


Pasaia: hiri-garapena

David Zapirain Karrika

Iago Irixoa Cortés



Sorginarri bilduma 7

David Zapirain Karrikak zuzendutako bilduma

Pasaia: hiri-garapena

David Zapirain Karrika

Iago Irixoa Cortés

Kolaboratzaileak:

Ion Alberdi Urrestarazu

Clara Barbier Zabaleta



2011

BABESLEA:



Azala: Paisajes españoles. Pasaiko Udala.

Diseinu eta maketazioa: eragin.com

Inprenta: Gráficas Lizarra

Euskara: Bihur enpresak euskaratua (irudi oinak izan ezik). bihurnet@euskalnet.net

ISBN: 978-84-937701-1-2

Lege gordailua: SS. 1385-2011

Aurkezpena

Zazpi dira dagoeneko Pasaia historia laburbiltzeko Sorginarri bildumako liburuak.

Zazpi dira jakin-mina sortu, sakonki ikertu, galbahea pasa eta loratu diren gaiak. Ez da makala egindako lana, ez eta emaitza ere.

Pasaia hiriaren garapenez arituko gara zazpigarren zenbaki honetan. Baina, dudarik gabe lur-eremu eta itsaso-labar honetatik haratago izandako interesak eta beharrak azaltzea ezinbestekoa izan da. Azken finean, estrategikoa izan baita eta oraindik halaxe da ingurukoentzat gaur egun Pasaia bezala ezagutzen dugun eta bizi dugun herri hau.

Datuak eta datak, imajinak eta mapak. Izan ere, idatziz jasoko duzun hori modu garbienean erakustea da gure asmoa.

On egin, irakurle!

Amaia Agirregabiria
Pasaia alkatea

SARRERA. David Zapirain Karrika	11
1. BIZIBERRITZEA	13
1.1. Lokatzetik ateratzeko ahalegina	14
1.2. Aitorpen politikoa: “izatetik” “egotera”	28
1.3. Iparrorratzak beti erakusten du iparra	30
1.4. Erabateko adostasuna proiektu baten inguruan	34
1.5. Lehen industria modernoak errepidearen babesean	38
1.6. Trena eta portua bat eginik Pasaian	40
2. LUR EGONKORRA	45
2.1. Plan zehatz bat	46
2.2. Hazkunde industrialak	53
2.3. Eremu zaharrak goitik behera berritzea	62
2.4. Eremu berria hartzea	65
2.5. “... gure etxeak zure fabriken ondoan egin zenituen...”	69
2.6. Pasaia berriaren ekipamenduak	80
3. INDUSTRIA GARAIPENA	105
3.1. Industria udalaren aurka	107
3.2. Industria eta batasuna	112
3.3. Ondorioa	118

Sarrera

Azterlan orotan da komenigarria hasieratik zehaztea helburua eta erabilitako metodoa. Kasu honetan, komenigarria izateaz gain, behar-beharrezkoa da.

Izan ere, liburu hau udaleko Kultura eta Artxibo sailek bideratutako eta Irargi Eusko Jaurlaritzaren Euskadiko Dokumentu Ondarearen Zentroak emandako diru-laguntzari esker idatzi dugu, azken urteotan Pasaia udalak digitalizatu eta deskribatu dituen espediente batzuk dokumentatzeko eta baloratzeko asmoz. Hain zuzen ere, merezitako lekua eman nahi zitzaion udal artxiboko planoei, irudi horiek oso baliagarriak baitira Pasaia etorkizunik gabeko arrantzaleen herrixka bat izatetik hiri txiki industrial bat izatera nola pasatu den ulertu ahal izateko.

Hala, planoak, identifikatu eta dokumentatu ondoren, azterlan hau egiteko erabili ditugu. Aitortu behar dugu instalazio eta eraikin guztien plano guztiak ez direla gorde eta gorde diren guztiek ez dutela datu aipagarririk ematen. Behin aztertuta eta ordenatuta, ordea, aiposak dira Pasaia industrialaren hastapenak berregiteko.

Bestalde, hasiera batean, katalogo bat, edo gutxienez inbentario bat idatzi behar genuen planoetako eraikin eta lekuen funtsezko alderdiei buruz. Helburu hori, ordea, aldatzen joan zen idazketak aurrera egin ahala, harik eta liburu formatu klasikoagoa bihurtu arte. Izan ere, konturatu ginen bildutako material grafikoa oso lagungarria zela testuinguru jakin bat ulertzeko. Hortaz, hemeretzigarren mendearen bukaeratik badiak izandako aldaketa sakona irudiz hornitzeko ere erabili genituen planoak.

Azkenik, esan behar dugu, aldaketa horren ondorioz, gaia aukeratu behar izan genuela. Horregatik, momentuz, alde batera utzi dugu itsas eta ontzi ondareari hertsiki lotutako dokumentazioa, eta Pasaia hiri-garapena jorratu dugu: eremuaren bilakaera aztertu dugu eta bertan kokatutako lantegiek, etxebizitzek, eraikinek eta giza-taldeak gizarte berri baten sorreran izandako garrantzia nabarmendu nahi izan dugu.

Esku artean duzun liburu hau bilduma honen 1. eta 3. zenbakien artean sar daiteke lasai asko (hemeretzigarren mendean duelako abiapuntua eta gerraren aurretik amaitzen delako), eta 2. eta 6. zenbakien pasarteak jasotzen dituelako (izan ere, bietan daude ondare industrialari buruzko testigantzak, eta horietara jo dugu zenbaitetan informazioa osatzeko). Horren harira, eta aipatutako mapak eskainitako orietazioari esker, liburu honetan aukera izan dugu aurretiko materialak eta ideiak ordenatzeko.

Nolanahi ere, azterlan hau ez da helmuga, kontrakoa baizik. Gure asmoa izan da duela gutxi izandako gertaera garrantzitsuen berri ematea eta Pasaia industrialaren alderdi eta protagonisten datu jakinak ematea. Baina, batez ere, abiapuntua izan nahi du, beste aditu edo afizionatu batzuek ikerketak edo gogoetak egin ditzaten.



BIZIBERRITZEA



Gure gizarteko terminologia eta hitzak erabiltzen ditugunean garai bateko edo gurea ez den gizarte bateko gertaerak, jarrerak eta jokabideak azaltzeko edo ulertzeko, ez dugu beti asmatzen, ez baita erraza.

Horregatik, azken ehun urteotan Pasaia izan duen bilakaeraren inguruko kronika baterako biziberritze terminoa ausarkeria izan daiteke zenbaitentzat. Baina, argi dago, gaur egun hitz horrek berehala ekartzen digula gogora Pasaia berri bat –portua, herria eta gizartea–. Pasaia berri hori garai bateko oparoaldi industria- la eta soziala ahaztu ezinik dabil, egun dagoen zulo beltzetik atera nahian.

Lehenertze ala biziberritze hitzak ez dira azaltzen kon- tsultatu ditugun proiektuetan, transkribatu ditugun udal aktetan edo irakurri ditugun prozesu judizialetan. Hala ere, portuak beti izan du herritarrentzat bizimodua ateratzeko eta guztiontzat eta inbertitzaileentzat aberastasuna sortze- ko instalazio egoki, moderno eta arrazionalen beharra.

Badira ezagun egiten zaizkigun prozesu batzuk, era- kundeak aurrez aurre ipini zituztenak, maila politiko handiko pertsonaiak goraipatu zituztenak eta planoak eta proiektuak egiteko aukera eman zutenak. Izan ere, heme-

retzigarren mendean, portuaren egoera –egoera fisikoa eta jarduera ekonomikoa oso narriatuta zeuden– eta bertako biztanleen egoera antzekoa zen: zer jan eta zer jantzi ez zutela, etxeak utzi behar izan zituzten edo errentarik kobratzeari uko egin.

Horregatik, beharbada, behin eta berriro Pasaia- ti- k pasatzen ziren proiektugileek ez zuten Badia lehenera- tu nahi. Beharbada, batzuek soilik Erregea zerbitzatu nahi zuten, beste batzuek beren etxea, beste batzuek Erregea, beren etxea eta beren komunitatea; batzuentzat portua base militar bat zen, beste batzuentzat beren negozio- gunea, eta gehienentzat (nekez) bizitzeko leku bat. Edonola ere, helburua biziberritzea ez baldin bazen, horretan ari zirela irudituko luke.

1.1 Lokatzetik ateratzeko ahalegina

Pasaia- ko portuko segurtasunari eta sakonerari esker, badia eta kostaldea ezin aproposagoak dira itsasoari lotutako edozein jarduerarako, hala nola ontzioletarako, arrantzarako, merkataritzarako, babesteko, transforma- ziorako,...

Hala eta guztiz ere, eta azken urteotan egiaztatu dugun moduan, baldintza natural horiek ez dira nahi-

Orain dela
hamarkada batzuk
oso bestelakoa zen
Pasaia- ko kai
industrialen irudia.
*Pasaia- ko Portuko
Agintaritzaren
argazki artxiboa.*





Itsas-beherak lohia
uzten zuen agerian.
Kai industrialek
itsas-adarraren
ezaugarriak aldatu
zituzten.
*Pasaia*ko Portuko
Agintaritzaren
argazki artxiboa

koak, eta kaitik hurbil bizi den jendeak ezin du bere bizitza antolatu kaiko jardueren inguruan. Horretarako, dagoen lekua modu arrazional batean erabili behar da, eta orain arte bezala, badiak edo barruko portuak babesa bermatu behar du, eta bertara sartzea erraza izan behar du.

Gaur egungo eztabaida izan arren, aspaldiko kontua da. Portuko eta itsasoko jardueren presentzia, portuko erakundeen gobernua, instalazioen erabilerak eta Pasaia-ko eraketari buruzko eztabaida amaiezina eta Pasaia-ko portuko buru gisa duen legimititatea badiako historiaren zati dira.

Baliteke hausnarketa horiek zorrotzagoak izatea portuak garai txarrak bizi dituenean, orduantxe gogoratzen baitituzte pasaiaitarrek iragandako oparoaldiak. Nolanahi ere, eztabaida horiek gehiegi luzatzen ari dira.

Hortaz, Gipuzkoako berrantolaketa politikoa Gipuzkoan hemeretzigarren mendean (1615), ez zen aprobetxatu portua gobernatzeko eta mantentzeko ildo berriak finkatzeko¹. Dena den, orduan bildutako azterlanak eta datuak etengabeko erreferentzia iturri izango dira ondorengo urteetan; esaterako, hemezortzigarren mendearen erdialdean, 1740. eta 1780. urteen artean, eguneratu ziren, kaiaren egoera lazgarria nabaria baitzen mantentze eta inbertsio faltaren ondorioz. Horrez gain, bertako biztanleekiko aitorten politiko faltak ere eragina izan zuen. Hau da, dragatzearen eta lanen finantzazioak beti egiten zuen

topo dorrezainen –portuko zerga biltzaileen– inbertsio faltarekin.

Pasaia-ko ontzigintza eta itsas zirkulazioa hondotik ateratzen saiatu ziren proiektuetan berebiziko garrantzia dute mapek, gertaerak berritzeko oso lagungarriak direlako. Mapa horietan bi alderdi nagusi daude:

- Lehenik eta behin, portuko egoera fisikoa.
- Bigarrenik, badiaren zeuden azpiegiturak, badiari bul-tzada berria eman ziotenak.

Portuko egoera orokorrari dagokionez, badiaren muturreko egoeran zegoen, batez ere itsasbeheran, dragatze falta, kostaldean zegoen prebentzio falta eta erabileraren kontrolean zegoen utzikeria eta gabeziaren ondorioz. Hori dela-eta, kalatu handiko ontziek Dorrearen atzealdearen eta Donibaneko plazaren artean soilik atrakatu zezaketen.

Garapen ekonomikorako aprobetxa zitezkeen azpiegiturei dagokienez, grafikoetan behin eta berrir aipatzen dira ontziolak eta ontzioleki lotutako industria.

Bi alderdi horiek beti egongo dira lotuta, gure badiako baldintza naturalak behar bezala aprobetxatzeko, ezinbestekoa izango baita agintaritza eskudunaren jarduna.

Kezka horiek direla-eta, (eta, ia beti Pasaia-ko jurisdikzio politikoari buruzko epaiketa amaigabearen adituaren txosten gisa) badiaren irudikapen grafiko ugari egin ziren.

Irudikapen horietatik, batetik, Vicente Xinerrek² egin-dakoa berreskuratu nahi dugu. 1744koa da eta, gutxienez, bi bertsio daude, berdin-berdinak: jatorrizkoa eta Filipi-netako Konpainiako zuzendariei Vicente Xinerrek berak eskainitako kopia.

Aipatutako bi alderdiak kontuan hartuta, horrela sailka ditzakegu Xinerren mapan adierazitako gertaera garrantzitsuak:

- ontzigintzari lotutako egiturak

Bi multzo daude. Batetik Caracaseko Konpainia Gipuzkoarrarenak, bereziki Konpainiaren ontziolak eta gainerako egiturak, bi itsasbazterretan; F, G, H, I, O, P... letrekin adierazita.

Bestetik, ontziola bat, baina militarra edo, behintzat, Erregeari zuzenean lotuta: munizio biltegia, kordeldegia, ainguren erret fabrika (Fanderiara eraman baino lehen): B, D, E, G...

Horrez gain, beste eraikin interesgarri batzuk aipatzen dira. Kaputxinoen komentua, Dorrea, Santa Isabel gaztelua aipatzen dira eta baita Salinas jauregia ere; baina azken hau izendatzeko ez da Salinas Rober – Etxeberri familiaren izena erabiltzen, baizik eta titulua: Villalcazarreko Markesak.

Eta datu berri bat dago: itsasontziak ur gezaz hornitzen ziren erreken bokalean, urmaelean, egungo Arrandegi kalearen inguruan.

- nabigagarritasun baldintzak

V, Z, AB, AR, AD,... lohi bankuen kokapenaren berri ematen dute eta, besteak beste, higakinak, harriak eta lokatza kontrolik gabe badiara nondik erortzen diren adierazten dute.

Horrez gain, baldintza onetan, ontzidi batek Salbiaraino ez ezik, Oreretako sarreraraino ere nabigatu omen zuen.

Beste behin, bi alderdi horiek, lotuta azaltzen dira, oraingoan, Caracaseko Konpainiako zuzendariei eskainitako kopiaren bidez. Izan ere, portuko garbiketa eta irisgarritasuna oso inportantea zen konpainia horrentzat.

Explicación:

A: Villa y muelles de Rentería, hasta donde según tradición, llegaban, cargaban y descargaban antiguamente en pleamar embarcaciones de 200 toneladas.

B: Almacén propio de Su Magestad en que entran las municiones de artillería que vienen de las Reales Fábricas de Ituvieta y Asura.

C: Lugar de Lezo.

XX Convento de Capuchinos

D: Casa propia de Su Magestad que servía de cordelería.

E: Otra casa también de Su Magestad que fue Fábrica Real de Anclas.

F: Casa que la Real Compañía de Caracas está construyendo a tejavana sobre 18 pilares para resguardar del sol y agua llovediza las faluas.

G: Casa propia de su Magestad en que vivió el constructor Martín Boyes.

H: Estacadas que ha hecho la misma Real Compañía para resguardar las maderas de construcción.

I: Sitio en que se construyó la fragata del Rey nombrada "Santa Theresa".

J: Astillero en que se construyó[sic] los navíos del Rey nombrados "El ruví" y "La Guipuzcoana".

K: Sitio llamado la Herrera, y camino que viene de San Sebastián.

L: Barranco donde se acen hoy las aguadas.

M: Barrancos por donde desaguan las pequeñas fuentes que nacen de los montes vecinos.

N: Casa de los Marqueses de Villaalcazar.

O: Astillero en que actualmente construye la misma Real Compañía y en que se fabricaron los navíos del Rey nombrados "La Andalucía" y "La Castilla".

P: Casa que está en el mismo astillero, cuyo costo con el de las herrerías adyacentes y el de el mismo astillero, se cree cargó a Su Magestad en las quantas que dio el Constructor Simón de Celarain.

Q: Sitio llamado el Sableu, donde según se dice, andó la esquadra del comando de Don Alonso de Ydíquez, y a donde se fue a pique el navío llamado "La Concordia", que entró en el puerto maltratado del combate que viniendo de la América tubo con dos navíos franceses; cuyos vestigios están hoy cubiertos de lama.

En este mismo paraje, cargaban y descargaban antiguamente en bajamar de aguas vivas embarcaciones de 150 toneladas, y hoy queda enteramente en seco.

R: Lugar del Passage de la parte de San Sebastián.

S: Baluarte llamado la Torre, en la que comúnmente havita un rejidor de San Sebastián.

T: Lugar del Passage de la parte de Fuenterravía.

V: Banco de lama que queda cuasi descubierto y en que an tocado algunas embarcaciones, el que se cree previene [sic: proviene] del remansso que en aquel paraje hacen las aguas y del poco cuidado que ha havido también en sacar y recoger algunos lastres que se suelen aciallí arrojar.

W: Sitio llamado el mirador, en que ai una batheria demolida.

X: Banco grande que cierra toda la embocadura de la canal y se va cada día aumentando.

Y: Castillo Real nombrado de Santa Isabel, el que tiene Su Majestad al cuidado del gobernador que deve ressidir en hel.

Z: Banco que an ocasionado el remansso de las aguas y las crecidas abenidas del barranco que tiene encima y le perjudica mucho la cantera, d, que está ynmediata y se va con las continuas lluvias desplomando.

AB: Pequeño banco que an formado, según se cree, las aguas que por aquel paraje destilan perennemente de la montana.

AR: Cantera de donde se ha sacado y actualmente se saca piedra para edificios.

AD: Banco que se va formando de los desperdicionos que de la citada cantera caen y llevan consigo las aguas llovedizas del barranco.

AT: Embocadura del puerto.

AL: Arrecifo o peña llamada la Bancha que está vajo de la agua. Los pies que se señala en sus cabezas y en que tocó y se perdió el año passado de 1743 el corssario nombrado "El Gran San Miguel", de porte de 40 cañones.

Nota: que los números puestos en el plano de la canal señalan los pies de agua que en cada paraxe hai, hecho el fondo en bajamar de aguas vivas.

San Sebastián y mario [sic: mayo] de 1744.




Archivo General de Simancas: MPD 07-147; 148.

PLANO DEL PUERTO i CANAL DE LOS PASAJES DESDE SU

RENTERIA i SITIO DE LA HERERA QUE ES ADONDE LLEGA LA AGUA SALADA LEY
SARIO DELINEADOR DEL ESTADO MAYOR DE ARTILLERIA, POR DISPOSICION i CON ASISTENCIA
QUADRA, Y TENIENTE DE LA MARINA i MINISTRO PRINCIPAL DE ELLA EN ESTA COSTA DE

EXPLICACION

- A. Vista y Mullido de Renteria hasta donde segun tradiccion
B. Almacan propio de S.M. en que entran las mercancías de Antioquia que
C. Lugar de S.M.
D. Camisero de Capuchinos.
E. Casa propia de S.M. que lleva de Cordoba.
F. Casa que la Real Compañia de Santa Fe construyeron a la vera
G. Casa propia de S.M. en que vive el Comandante de S.M.
H. Estrada que ha hecho la misma Real Compañia para recoger
I. Sitio en que se levanta la Capilla de San Francisco.
J. Sitio en que se levanta la Capilla de San Juan el Bautista.
K. La llamada la Huera y Camina que viene de la Huera.
L. Direccion donde se ven las Aguas.
M. Direccion por donde desguazan las pequeñas fuentes que
N. Casa de la Marquesa de Villalcarlos.
O. Sitio en que actualmente construye la misma
P. Sitio en que se levanta la Capilla de San Juan el Bautista.
Q. Sitio en que se levanta la Capilla de San Juan el Bautista.
R. Sitio en que se levanta la Capilla de San Juan el Bautista.
S. Sitio en que se levanta la Capilla de San Juan el Bautista.
T. Sitio en que se levanta la Capilla de San Juan el Bautista.
U. Sitio en que se levanta la Capilla de San Juan el Bautista.
V. Sitio en que se levanta la Capilla de San Juan el Bautista.
W. Sitio en que se levanta la Capilla de San Juan el Bautista.



Dragatze zerbitzu eraginkor bat martxan jarri eta portura materialik ez erortzeko neurriak hartu ziren. Harriak eta lokatza Txingurri eta Oiartzun ibaietatik zetozen, baina baita bokaleko erreketatik eta sakanetatik ere, bereziki Alabortzara erortzen zirenetatik eta Sorginarritik Kodemastira erortzen zirenetatik. Antzina Kodemasti (gaur egun Ondartxo) ainguralekua zen. Ondorioz, batez ere dikeak egin ziren bi erreken ahoan.

Dikeak eraikitzeko lanak 1751. eta 1752. urteen artean egin ziren, Asturiaskoa zen Lorenzo Solís³ ingeniari militar entzutetsuaren zuzendaritzapean. Bi mapa daude: bata Kodemastiri (Ondartxo) eta Alabortzari buruzkoa, 1751koa; eta bestea, 1752koa, bigarren puntu honi buruzkoa. Hala, harriak ez erortzeko eta portura ur garbia sartzeko, hormatzarrak egin ziren.

Descripción de los planos parciales de las calas de Candemaste y la Bursa, situados en la canal del Puerto del Pasage, con proyecto de los paredones de firme que se deberán construir en cada una, y el de las paredes de piedra seca que han de circuir sus canteras.

Explicación:

A: paredón De firme cortando el gran barranco con sus dos chorreras derruidas, escombros y desperdicios de la cantera adyacente. Oy, todas derrumbadas en Conde Maste.

B: Pared de piedra seca circuyendo el pie de dicha cantera creando a su doso un espacio llano terraplenado, para detener sus derrumbos, filtrándose las aguas pluviales por los poros de la muralla sobresaliente tres pies sin perjudicar el puerto.

C: Perfiles cortados por medio del referido paredón de firme y pared de piedra seca, que demuestran su proporción y consistencia.

D: Desguazadero del torrente del gran barranco que desemboca en Conde Maste en tiempo de grandes avenidas a cuyo pie poco distante se está construyendo ya una pared de piedra seca, cortándose al trabés, para detener las horru-ras que acarrea a la cala, incomodando la canal y pasen las aguas limpias a ella.


E: Paredón de firme que se proyecta y aplica en la Bursa, cortando el derrumbo fangoso del monte y su avenida perjudicando notablemente la canal.

G: Cantera y proyecto provisional útil que se le aplica circuiéndola para contener y atajar sus derrumbos y desperdicios en daño de la canal.

H: Pared de piedra seca, que se intenta construir en esta próxima otoñada.

Y: Perfiles cortados por medio del paredón de firme y las paredes de piedra seca G y H y E.

San Sebastián y agosto 22. 1751. Don Lorenzo Solís.




Archivo General de Simancas: MPD 07-149.

Descripción de los Planos parciales de la Calca de Condes y de la Balsa, situados en la Canal del Puente del Puente con proyecto de los Puertos de fuste, que se debían construir en cada una, y el de la Balsa de piedra seca que han de construirse.

ARCHIVO GENERAL DE SIMANCAS

Explicación

- A. Llave de fuste cortando el oxan de la Calca con sus dos Chorreros de agua, y de las Cuentas, y de las Cuentas de la Calca adyacente y todas de la Balsa en Conde Norte.
- B. Puente de piedra seca cortando el pie de la Calca cortando á un lado un espacio llano para el agua, para de una vez de la Balsa y de la Calca para la Balsa y de la Calca para la Balsa y de la Calca para la Balsa.
- C. Perfil cortador por medio del Puente de fuste y por el de piedra seca, que demuestran su proporción, y consistencia.
- D. Desguazado del Puente de la Calca de la Balsa, que se debe en Conde Norte en tiempo de gran avenida, á cuyo pie poco distante se está construyendo ya una parte de piedra seca cortando se el trabajo, para de tener los trabajos, que se debe á la Calca en comunicando la Canal, y para la Balsa y de la Calca para la Balsa.
- E. Puente de fuste, que se proyecta, y aplica en la Balsa cortando el de la Balsa y de la Calca para la Balsa y de la Calca para la Balsa.
- G. Calca, y proyecto provisional útil que se le aplica á cada una de la Calca, y de la Balsa y de la Calca para la Balsa.
- H. Puente de piedra seca, que se intenta construir en esta parte de la Calca.
- Y. Perfil cortador por medio del Puente de fuste, y la parte de la Calca y de la Balsa y de la Calca para la Balsa.



Escala de los Planos


1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31 32 33 34 35 36 37 38 39 40 41 42 43 44 45 46 47 48 49 50 51 52 53 54 55 56 57 58 59 60 61 62 63 64 65 66 67 68 69 70 71 72 73 74 75 76 77 78 79 80 81 82 83 84 85 86 87 88 89 90 91 92 93 94 95 96 97 98 99 100


Perfil q. para por G.

Escala de los Perfiles

1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31 32 33 34 35 36 37 38 39 40 41 42 43 44 45 46 47 48 49 50 51 52 53 54 55 56 57 58 59 60 61 62 63 64 65 66 67 68 69 70 71 72 73 74 75 76 77 78 79 80 81 82 83 84 85 86 87 88 89 90 91 92 93 94 95 96 97 98 99 100

IMARINA. 389-





Aurreko mapetan adierazitako egoerak okerrera egin zuen. Odriozolak 1777an egin zuen mapan oso ondo ikus daiteke hori. 60ko eta 70eko hamarkadetako mapa batzuek itsasbeheran portuaren kolapsoaren berri ematen badigute ere, Odriozolaren mapak gai berriak ere eranstean ditu.

“D” letraren bidez adierazitako puntuak argi uzten du zein den badiaren egoera: itsasontzi batzuk aingurak botata daude eta beste batzuk hondoa jota itsasbeheran.

Konpainiaren instalazioak eta ontziolak aipatzen dira, duela 30 urte bezala, baina “Lan berriak” epigrafeak berritasun original bat dakar: portu barruko kostalde guztiak lotzen ditu (“i”: Bordalaborda – Borda Andia; “Z” Kaputxinoak – Bordalaborda; “b” hormatzarra Herreratik Salinasera eta hortik kaputxinoetara), batetik zirkulazioa eta komunikazioa errazteko, bestetik Ondartxo eta Alabortza eta muturretako bi ibaiak bideratzeko eta, bide batez, lurra eskuratzeko dikeak aprobetxatzeko, erai-kuntza berriak egiteko edo, baita izokin-nasak jartzeko ere.

Portuko barnealdea berrantolatzeke benetako saiakera horrek irtenbidea eman nahi izan zien oraindik konpondu gabe dauden arazoei, eta aurrea hartu zion 45 urte geroago diseinatu zen proiektu bati.

Mapa general del puerto y canal de Pasages.

Explicación:

A: Entrada del puerto.

B: Castillo de Santa Isabel.

C: Calas de Codomaste y la Burza.

D: Fondeadero y canal en que por la parte inferior y superior se representan diferentes buques. Los primeros, al ancla para hazerse a la vela; y los segundos, unos a medio flote, y otros en seco sobre la lama, en bajar.

E: Casa torre del boquete de la canal, con su plataforma.

F: Lugar del Pasage vanda de la ciudad de San Sebastián.

G: Astillero del Rey, con su casa y dos gradas para construcción.

H: Embarcadero o sitio de la Herrera, que se comunica con San Sebastián.

Y: Camino Real, que cruza de San Sebastián por la villa de Rentería a la ciudad [sic: ciudad] de Fuenterriavia, Valle de Oyarzun, Yrun y el paso de Francia y la Alta Navarra.

J: Población de Alza.

K: Villa de Rentería, en parte.

L: Veredas desde Rentería para Lezo.

M: Universidad de Lezo.

N: Camino de Lezo a la villa del Pasage.

O: Villanueva del Pasage.

P: Caseríos y molinos en la circunvalación de la canal.

Q: convento de Capuchinos de Rentería, con su cerco.

R: Casa de bordalaborda y tinglado de la Compañía [Gupuzcoana de Caracas].

S: Almacen del Rey.

T: Astillero de la villa del Pasage para obrage de carenas.

Nota: Que la demarcación de los pueblos, caseríos, caminos y sitios expresados ha parecido conveniente para que cualquiera pueda hacer concepto razonable de la posición del Puerto, canal y playas que forma, hasta la extensión y líneas de altas mareas en las letras “P”, a poco más o menos. Porque la presente disposición no es otra cosa que una idea tomada de la misma, de actuales obras, labadas de encarnado y que se funda sobre sus términos y extremidades para tirar las visuales y líneas de las obras de este proyecto, que se denotan en la color amarilla al tiempo de su ejecución.

Obras nuevas:

V: Reserva o amarradero para las gavarras en frente de la plazuela de la Piedad, donde hay un recodito.

X: Reserva para los pontones, mejorada.

i: Pared de 4 a 6 pies desde el astillero actual hasta la punta de Bordalaborda, a dar con un movimiento circular al tinglado y se podrá entender hasta la cordillera de Borda-Andia.

Z: Escullera sobre la lama en los dichos combento de Capuchinos y Bordalaborda de dos a 3 pies de alto para el tránsito de las gentes, maestranza y podaguines en bajamar.

a: Escullera en dos líneas que recibe en la anterior el río que vaja de Rentería y conduze a la canal para violentar y llevar las arenas de su boquete, Y para sostener la lama grande superior para que no se arrule, con la fuerza y peso de las mareas.

b: Paredón que ha de formar el camino desde la Herre-ra al Pasage y Capuchinos, con varios arcos, al "C".

d: dos narzas o yngenios de palos para pesca de salmón.

q?: Depósito o darzena para materiales de construcción.

fg?: Tinglado para trabajar la arboladura y otras cosas.


+ + +: almacenes para la Compañía, quando se haga el terraplen.

Nota: Que el río que vaja por Rentería y con vastante rapidez en tiempos lluviosos va señalado con la flecha.

Las "J" son dos canalejas que quedan en la playa al bajamar.

Lo que va de letra "h" son unos chorrillos de fuentes de ninguna consideración.

San Sebastián, 30 de mayo de 1777. Joseph de Odrizola.



Simancaseko Artxibo Nagusia: MPD 01-124.



1.2 Aitorpen politikoa: “izatetik” “egotera”.

1770ean, Donibane Hondarribiatik bereizi eta emantzipazioa lortu zuen eta, ondorioz, lehen portuko udal kontzejua sortu zen Pasaian. Badiaren nabigagarritasun baldintzak ez ziren behar bezala zaindu eta, ondorioz, herriguneak urrundu egin ziren pixkanaka. Oiartzunek eta Orereta zaharrak, judizialki ezarritako isiltasunaz gain, ez zituzten ontziak porturatzen ikusten; Lezo Hon-

darribiaren menpe zegoen eta oso urrun ikusten zuen hamaseigarren mendea; San Pedro dorrezainen menpe zegoen eta Donostiaren aurkako borroka judizialean murgilduta.

Donibane, behin hiribildu kategoria lortuta, portuko zuzendaritza eta ustiapena bereganatzeko moduan zegoen. Donibane, Lezo eta Hondarribia ados zeuden finkatutako mugekin, eta horrelakoetan izaten diren ohiko gorabeherak alde batera utzita, akordioa egin zuten.



Muga horren irudikapen grafikoa bilduma honetan argitaratu zen; hala ere, orain arte Oñatin (Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoan) dagoen kopia hartu dugu kontuan eta oraingoan Pasaiaiko Udal Artxiboan dauden bi kopiak erakus ditzakegu. *Pasaiaiko Udal Artxiboa: 726-11*

1. Término o Jurisdicción de la Ciudad de Fuenterrabia que confina con la Universidad de Lezo y Villa del Pasage.
2. Término de Lezo.
3. Terreno cedido por Fuenterravia a Lezo.
4. El Pueblo de Lezo.
5. Sitio nombrado Darieta.
6. Sitio nombrado Bordachu.
7. Casa de Olasuriaga.
8. Camino de Gainchurisqueta para Lezo.
9. Usategitea.
10. Término o Jurisdicción de la Villa del Pasage.

11. Pueblo de Pasage.
12. Peña de Aranda [sic: Arando].
13. Molino de Churrutalla.
14. Castillo de Santa Isabel.
15. Ermita de Santo Cristo de Bonanza.
16. Molino de Bordandi.
17. Borda de Eiru.
18. Canal de Pasage.
19. Cruz de Almadin

Escala de 3500 baras castellanas.





Hala San Pedro nola badia gobernatzen zituzten dorre-zainei portuaren egoeraz ez arduratzea eta auzoaren gobernuan eskua sartzea, besteak beste, leporatu zitzaion. Ondoko marrazki hauak, esate baterako, Bonantzako eliz aurreko harlauzak jartzeko lanei dagokie; bertan, Donostiak Donibanen bertan zuen mugarrria antzeman daiteke, bere eskumena haraino luzatzen zela aldarrikatuz.

Marrazkiak laguntzen dituzten testuetan, ordea, *muro o pared de la antigua parrochial de San Juan de la Rivera, con sus pilares pegante al monte dioena azpimarratu nahi dugu*, eliz zaharraren berri ematen du-eta. Bai eta harresia baten berri ematen duena ere. *Pasaia*ko Udal Artxiboa: 1682-2

1.3 Iparrorratzak beti erakusten du iparra

Horrek ez du esan nahi portuaren inguruko borroka amaitu zenik. Aitzitik, berriro hasi eta gaiztotu egin zen, hainbestearino, non Donostiak, 1804an, zalantzan jarri baitzuen Donibaneren legimititatea ontziak itsasbeheran karenatzeko⁴. Alabaina, Donibane lehen mailako subjektu politiko izatea lagungarria izan zen portuaren inguruko ordenamendu juridiko berri bat lortzeko. Bertako interesek eta erreinukoek bat egin zuten Vargas Ponceren trebeziari eta Arizabaloren laguntzari esker, eta hainbat instantzia judizialean pilatutako milaka orrialdeak txukundu ziren. Hortaz, udalerri berri bat sortu zen 1805ean. Udalerri horrek bat etorri beharko luke gaur egungo Pasaiaarekin, baina jakina denez, ez da horrelakorik gertatzen.

Jatorrizko udalerria San Pedrok, Donibanek eta Altzako zati handi batek osatuta zegoen. Altzako zati horretako baserriak, gainera, zerga iturri ziren udalerri berriarentzat. Helburua ez zen asimilatzea edo konkistatzea –batzuek hori uste dute eta egungo arazoak duela 200 urtekoekin nahasten dituzte–, eta horixe bera erakutsi zuten San Pedrok eta Donibanek, unean-unean ahal zuten moduan eta gehien komeni zitzaien moduan jardun baitzuten gobernatzeko garaian. Helburua zen Hiriburuak portuaren gainean zuen nagusitasuna ahultzea, eta horretarako, bere burua aski zuen udalerri bat sortu zen, portuaren erabileraren eta horniduraren inguruko historia sendoa partekatzen zuten hainbat elementu osagarri batuz.

Udalerri berriak izandako bilakaera eta gainditu behar izan zituen oztopoak jorratu ditugu jada, eta ez dira argitalpen honen xede, baina ezin dira alde batera utzi. Lehenik eta behin, udalerria eta bere baldintzak 1890. urtean behin betiko berretsita arte, 1805. urtea ezinbestekoa izan zelako badi suspertzeko irtenbide bat bilatzeko orduan. Donibanetarrek, esaterako, ez zeukaten oso argi bat-egite horrek zentzurik ote zuen baldintza horiek betetzen ez baziren¹. Bigarrenik, hemeretzigarren mendeko pasaia tarrentzat gauza bera zirelako portuaren eta inguruko hegalean gaineko erabateko jurisdikzioa, portuko zergen kontrola eta zerga horien inbertsioa lanetan eta garbiketara, nazioarteko merkataritzarako antolaketa eta kanpo nahiz barne bideen eraikuntza. Ikus dezake-

gunez, hogeitabatgarren mendeko arazo eta oztopoen antzekoak ziren.

Hau da, sektore jakin batzuek Pasaiaiko egungo jarduerak zentzugabeak direla esan arren, kontua da Pasaia udal proiektu politiko gisa ez dela behin ere existitu aipatutako gainerako beharretatik kanpo, eta udalerria ez dela sekula saiatu gai horiek bakarrik, inor aintzat hartu gabe, kudeatzen.

Hala, Pasaiaiko pertsona gorenak itunak egin zituzten joera ideologiko ezberdina zuten pertsonekin, eta negoziatzitekeen guztia negoziatu zuten. Lehen esan dugun moduan, guztien ongiatz gain, nork bere interesak bilatzen zituen, ondo jokatu zuten ala ez beste kontu bat da.

Ordezkarri pasaia tarren helburua zen Amerikarekin hartu-eman komertziala bultzatzea, kalatu egokiari eustea, barne eta kanpoko lurreko komunikazioa hobetzea eta emandako baldintzak finkatzea eta berriak sortzea. Eta horixe egin zuten, esaterako, Juan Bautista Arizabalok, Vargas Poncek –beti egon zen hiribilduarekin harremanetan– eta Ferrer familiak. Azken hauek Salinas jauregian bizi ziren, eta Joaquin Mariak, semerik entzute-tsuenak, Vargasekin partekatu zuen politika Espainiako Senatuan.

1817ko abuztuko osoko bilkurek, behin gerra napoleonikoak igarota eta independentzia Pasaia ri eta bere lurraldeari itzulita, ezin hobeki deskribatzen dute egoera, bai portuaren inguruan bizi direnena, bai Pasaia ren eta Donostiaren arteko harremanena.

Batetik, hondamendi ekonomikoko egoera areagotu egin zen portua garbitzeko dirua helburu militarretara desbideratu zelako, eta ondorioz, berriro finantziaziotrik gabe geratu zirelako garbiketa lan horiek; eta, bestetik, uraren maila jaisten ari zelako: tropa ingeles “askatzaileek” Solisen lana arpilatu zuten Alabortzan eta Kodemastin, eta badiara material pisutsuak ez erortzeko eraiki ziren hormatzarretako harlanduak kendu zituzten.

Horiek horrela, abuztuaren 20an egindako osoko bilkuran, Urantziako (Los Arcos) gutun bat irakurri zuten: aduanen lekualdatzeari buruz Nafarroako gorteetan zuten eztabaidaren harira, Erreteriarri eta Pasaia ri eskatzen zieten Donostia-Herrera arteko eta Zamalbide-Orereta arteko komunikazioa hobetzeko, merkataritza nafarra errazteko.

Gutuna irakurri ondoren, Juan Bautista Arizabalok hitza hartu eta pasaia tarren bizi-baldintza penagarrien berri eman zuen. Ahul eta soinean zer jantzi ez zutela, ezin ziren etxetik irten: *ya es tiempo señores que este*

1 - 1807an, esate baterako, Korrejidoreak, agintari judiziala zen aldetik, Pasaia babestu zuen Eskalantegin haritzak bota zituztenean hiribilduaren baimenik gabe; horretarako, hain zuzen ere, 1805ean ezarri eta 1807an berretsita xedapenetan oinarritu zen. 1814ko irailean, dokumentu horietan oinarrituta, Donostiak Gomistegi inguruan baimendutako lurren salmenta zalantzan jarri zuen.

Noble Ayuntamiento piense con seriedad, sea asociado con otros pueblos o en particular, el sacudir el ultimo extremo de miseria a que estamos reducidos, sino nos hemos de sepultar en ella. Abracemos pues la ocasión favorable que nos presenta el papel que se acaba de leer, admitida y puesta en planta se fomentará el comercio de este pueblo, se dedicarán sus naturales con más esmero a la marinería a que naturalmente son inclinados, y este desgraciado vecindario saldrá de la extrema indigencia en que gime.

Quien mire con indiferencia esta asunto advertirá desde luego las conocidas ventajas que se seguirán a esta abatida villa en particular, a los pueblos comarcanos y al Estado en general, de abrirse el comercio para Navarra en este puerto, único seguro en toda la costa de Cantabria.

Horrez gain, Arizabalok hainbat ebazpen eta eskaeraren berri eman zuen, Nafarroak, Aragoik eta eskualdeko herri batzuek, besteak beste, 1520ean, 1615ean, 1617an, 1721ean eta 1772an horren harira egindakoak: *pidiendo todos la libertad de comercio en este puerto por contemplarla utilísima la causa común....* Ebazpen eta eskaera horiek bat datoz Espainiako errege Carlos III.nak Pasaia Nafarroako portua bihurtzeko 1781ean egindako proposamenarekin. Vargas Poncek ere horren alde lan egin zuen.

Alabaina, merkatarik donostiarrek uste zuten komunikazioa hobetzeko lan horiek kaltegarriak zirela beren negozioetarako, eta egoerak ez zuen ez aurrera ez atzera egiten. Horrez gain, kontsulatu donostiarrak, kontrako epaiak izanagatik, ez zion uko egin portua erabiltzea-





*Pasaiaiko Portuko
Agintaritzaren
argazki artxiboa*


gatiko eskubideak kobratzeari, eta bigarren karga bat ezarri zion Pasaian jada ordaindu zuen orori.

Horrela jarraituz gero, erabateko hondamendia izango litzatekeela uste zuten: *de continuar así el puerto será la ruina total de todo este vecindario, que está reducido a la extrema miseria y que se ha de sepultar con ella indefectiblemente el próximo invierno sino se procura por todas las vías imaginables algún alivio, pues cada día se ve con el mayor dolor que los hombres cavezas de familia y otros se van ausentando del País a puertos havilitados para proporcionar a los menos para sí mismo algún alivio, dejando abandonadas sus familias que están en la mayor estrechez y muchos de ellas sin que osen salir aun de sus casas ya por devilidad a falta de alimento, y ya por carecer con qué cubrirse, y que representan el quadro más lastimoso.*

Pobretasun handi horren aurrean eta nekazaritza gabezia kontuan hartuta, merkataritza izango litzateke irteera bakarra. Hala, udalbatzak erabaki zuen erregeari merkataritza-askatasuna eskatzea.

Baina, kasualitatea izan al zen lehen aipatutako hiri-bildu nafarrak Pasaiaiko portuaren eta herri horren arteko komunikazioa hobetzeko eskaera hori? Lizarraldeko eta Errioxako erregearen eskaera al zen? Hala balitz, zergatik egin zuen erakunde txikiago batek? Ezin dugu ahaztu herri horretan Juan Bautista Arizabalok interesak zituela, bere suhia zen Otxoa Orobioren bitartez, eta segur aski Arizabalok aukera hori baliatu zuen portuko jarduerak leheneratzeko plan berria, edo zaharra, mahai gainean jartzeko. Hala, portua zirkulazio amerikarrera-ko egokitzea zen irtenbiderik hoberena. Gogora dezagun, negozio horrek aurreko bi belaunaldietan emaitza ezin hobeak eman zituela eta Arizabalotarak zuzenean ustiatu zituela eta, Bolibarren eta Independentzia amerikarren kontra borrokatuz, defendatu zituela⁵.

Aldundia asko haserretu zen, batez ere erabakia auzotar guztien artean hartu zutelako. Erabaki horrek ez zion soilik Gipuzkoari eragin, eta ezohiko batzar bat deitu zuten Arabaren, Bizkaiaren eta Gipuzkoaren artean. Aduanak kostaldera lekualdatzearen aurka zeuden eta Pasaia-
ren kontrako errepresaliak iragarri zituzten. Gipuzkoako



Hemeretzigarren mendea eginiko aldarria arraro xamarra ematen badu ere, 1957-1960 bitartean antzeko eskaerak plazaratu ziren, Iruñea eta Pasaia Arano-Goizuetatik lotuz. *Pasaia*ko Udal Artxiboa: 693-2

Aldundia artekaria izan zen irtenbide horretara ez iristeko, eta laguntzak eskaini zituen eskaera bertan behera utziz gero. *Atendiendo a la miseria en que está este vecindario, tratará [la junta] de eximir a la villa de algunos contingentes que tiene impuestos, arbitrando algunos otros medios para su socorro.* Aho batez izan ez bazen ere, udalbatzak eskaera bertan behera uztea erabaki zuen laguntzaren truke.

Proiektu horren bidez, batez ere, komunikazioak hobetu nahi ziren. Baina ez bakarrik kanpokoak, lurralde nafarretatik eskatzen zuten moduan; baita barrukoak ere, San Pedroko bizi-maila oso kaxkarra baitzen. Udalak behin eta berriro eskatuko du bide egonkor, lehor eta seguru bat San Pedrotik Herrerara edozein ordutan joan ahal izateko. Horrela, San Pedro ez zen isolatuta geratuko itsasbeheran, ontzi txikiek Herrerako ontzira-lekuan ere ezin baitziren sartu. Beraz, ordu horietan, lokatzaren eta harri irristakor eta bustien gaintetik ibili beste erremediorik ez zegoen.

Horiek horrela, Pasaia babesa eskatu zuen ondoko herrietan, eta bestelako emaitza lortu zuen. Errenteria, esaterako, ados zegoen eskaerarekin, baina ez zuen iritzirik eman nahi, gerraren ondorioz bertako artxiboa egoera txarrean zegoelako eta, ondorioz, ezinezkoa zelako dokumentatzea; eta are gutxiago Pasaia eta Donostiaren arteko harremanak kontuan hartuta. Donostiak, bere aldetik, lohia zela-eta ibiltzea zaila zela aitortu arren, zalantzan jarri zuen bide hori beharrezkoa zenik, eta San Pedro eta portua Almirantegora itzultzeko saiakera zela esan zuen.

Pasaia, hala ere, bidea egiteko lanak bidesari batekin finantzatzea eskatu zuen. Letradu probintzialak Batzar Nagusien esku utzi zuen erabakia. Azkenean, erakunde horrek ez zuen eskaera onartu eta bidesaria kontraforutzat jo zuen. Dena den, Ferrer anaiak arduratu ziren gai hori Probintziatik kanpo negoziatzeaz, eta 1819ko uztai-lean Gaztelako Kontseiluan lortu zuten baimena bidesaria ezartzeko.




Orduan ere Madrilen lortu zuen udalak behar zuen babesa, Gortean eta bertako erakundeetan ondo moldatzen ziren artekari iaioei esker. Hala, 1820ko azaroaren 12an, Pasaia eskerrak eman zizkion Joaquín Albisturri egoerari buelta emateagatik eta portua egokitzea lortzeagatik *para el comercio nacional y extranjero de entrada y salida, incluyéndose por supuesto el de America en el nacional*.

Egoera hobetuko zuen garai berri bat hasteko itxaropena “hasta ahora bien perseguido y bien desgraciado [Pasaia]” esaldiak irudikatzen du. “Orain arte” horrek optimismoa erakustez gain, gure eskualdea eta Nafarroa politikoki elkartzeko nahiaren berri ematen du, 1821eko martxoaren 2ko aktan jasota geratu zen moduan. Errenteriak proiektuan ez nahastea erabaki zuenean, Pasaia Ferreri eskatu zion Madrilen kudeatzeko.

1.4 Erabateko adostasuna proiektu baten inguruan

Arizabalo hil ondoren, Ferrer anaiak izango dira dudarik gabe Pasaia liderrak eta ordezkariak. Hala, 1822an, Joaquín María Ferrerrek Irun eta Donostia arteko bide berria kritikatu zuen. Haren ustez, abantaila gehiago omen zituen Herrera – Salinas – Mirabarkera – Berratzoko – Kaputxinoak ibilbideak, merkeagoa eta erabilgarriagoa zelako. Hori dela-eta, hauxe proposatu zuen: Herrerako ontziraletatik bidea Salinasera inoiz iristea, eta Salinasetik dike edo harribeta baten bidez beste ertzera igarotzea, punturik estuenetik. Gogora dezagun, Salinas berea zela. Hortaz, San Pedro eta errepede berria lotuko ziren, eta eraikuntzako gastuak merkatuko ziren, kostaldeko harria aprobetxatu zitekeelako zimendatzeko. Gauza bera proposatu zuen Bortalabardarako.



1744. urtean aurkeztu baina gauzatu ez zena, Antonio Tahona Ugartek⁷ 1820. urtean agertu planoak 1744. urtean aurkeztu baina gauzatu ez zenarekin antzekotasun handia du. Herrarako ontziralekua eta San Pedro elkarrekin lotzen zuen bidea luzatu egiten da, Oiartzungo itsas adarrarekin bat egiteko. Molde biribilak, itsas ertz guztiak elkarrekin lotzea ahalbideratzen zuen. Oiartzun ibaia kanalea bihurtuta, bideak bezain kai-muturrak diren harresi hauen atzeko padurak nekazal lurrak bilakatzen ziren, lohia eta harriak bideratu eta lur-erabilera sailkatu eta banandu egiten zirelarik. Dena den, ekimena bertan behera geratu zen, ohiko Kondemasteko eta Alaburtzako⁸ hormak eraikiz eta dragatze lanetan segitzeko. *Espainiako Defentsa Ministeritzako Alvaro Bazán Archivo General de la Marina delakoa* (5639/42) *eta Archivo Cartográfico y de Estudios Geográficos del Centro Geográfico del Ejército delakoa.*

Irtenbide horrek gogora ekartzen digu 1744ko mapan adierazitako irtenbidea. Ferrerek, ordea, ez zuen mapa horren zuzeneko aipamenik egin, eta Ugartemendiaren⁶ eta Huiziren ideiei eutsi zien. Proiektu horren bidez, kostaldea hobeto aprobetxatu eta lur lehor gehiago lortu nahi ziren. Hau da, badia biribildua, humanizatu eta arrazionalizatu diseinatu zuen itsas erabileretarako. Lur lehor gehiago eta lantzeko lurrak eskuratu ahal izateko, leku osasungaitzak idortu beharko ziren batez ere Trintxerpen eta Herreran. Eta gauza bera egin beharko zen Bizkaia-Bordalaborda-Kaputxinoak eremuan, Donibane hazi ahal izateko.

Estatuko politika ezagutzen zuenez, Ferreren ustez, hobe zen ez aipatzea proiektu hori portuari zegokiola eta portua egokitu nahi zela. Portuko komunikazioak berritzeko egitasmo gisa aurkeztu behar zela azpimarratu zuen, eta konpromisoa hartu zuen portua garbi-

tzeko eta ontzigintza sustatzeko laguntzak Madrilén kudeatzeko.

Horrez gain, alkateari gomendatu zion Donostiarekin negoziatzeko, Herrera eta San Pedro arteko bidea bultzatzeko. Horretarako, mugen inguruan Hiriari konponbide bat eskaintzeko proposatu zion: Pasaia uko egingo zion Mirakruzetik harantz zegoen lurrari eta lerroa itsasoraino trazatuko zuen. Jakina, mugaketa horrekin eta Trintxerpe – Herrera eremuaren lehorketarekin lur egonkorra lortuko zen eta Pasaia ez zen soilik itsas ekonomiaren menpe egongo. Horrez gain, udalerrri arrazionala izango zen lurraldearen ikuspuntutik, 1805eko klausulekin bat etorritz. Helburua hauxe zen: “itsasbaxter horietatik uxatzea biztanleak irensten dituen alferkeria eta miseria”.

Udalak parte hartu zuen aldi oro planoaren diseinuan. Antonio Tahona Ugartek diseinatu zuen, 1820ko urriko


aktetatik ondoriozta dezakegun moduan. Aldundiaren babesa ere lortu zuen 1821eko azaroaren bian: lehortu beharreko lurrak saltzea aurreikusten zuen udalak, eta Aldundiak, salmentak baimentzeko ahalmenik izan ez arren, ekintza hori babestu zuen.

Alabaina, Itsas Ministerioak lanak debekatu zituen, Oiarztun ibaia bideratuz gero, hondar-multzo batek bokalea blokea zezakeelako. Hala ere, proiektua geldiarazi ondoren, 1833an Lezoko eta Kaputxinoetako padurak lehortu ziren, eta isasadarra bideratu zen, eta orain arte, behintzat, ez da hondar-multzorik sortu bokalean. Lan horiek Irun eta Donostia lotu nahi dituen errepide berriaren eraikuntzaren lehen urratsa dira, N-1 errepidearen jatorria, hain zuzen ere. Ordura arte, bideak alde batera uzten zuen Hiria, Perurenatik Hernanirantz zioalako. Egoera berri

horretan, eta Oreretaren interes faltaren ondoren are gehiago, Pasaia, Ferreren zuzendaritzapean, bidea luzatu nahi izan zuen Herreratik, eta Pasaia lotu.

Ingeniaritzaren ikuspuntutik, bideak ez zituen bi herri-guneak zeharkatuko, baizik eta kanpoaldetik igaroko zen. Izan ere, itsasertza etxeetatik urruntzean, etxeak mareetatik babestuago egongo ziren. Horrez gain, zubi birakari bat egingo zen isasertzen artean⁹.

Ikuspuntu ekonomikotik, oinezkoen joan-etorriei esker, kontsumoak eta diru-sarrerek gora egingo zuten, eta enplegua sortuko zen eraikuntzan. Bestalde, onuraria izango zen auzotarrentzat: Bidea eroso eta segurua izango zen, lokatzik ez zelako egongo; dirua aurretuko zuten, txalupa hartu beharrik izango ez zutelako;




ondasunak eskuratu ahal izango zituzten, lurrak lehortuko zirelako.

Beste behin, Ferrerek negoziatzeko zituen dohainak gailendu ziren merkatarik donostiarren errezeloen aurrean. Merkatarik donostiarrak beldur ziren: Pasaia izango zituen abantailen ondorioz, Merkataritza Etxe berriak ireki zitezkeen bertan, eta hori gertatuz gero, ezin izango zituzten jaso produktu horien gaineko zergak ezta portuko instalazio eta zerbitzuak erabiltzeagatik kobratu ere. Azkenean, akordioa egin zuten, nork, zer eta zenbat kobratuko zen eta, batez ere, diru-sarrerak nola banatuko ziren Ferrerek negoziatu ondoren.



Alabaina, bidea, denok dakigun moduan, ez zen portuko lpar kostaldetik igaroko, baizik eta Hego kos-

taldetik. Lanak 1838an hasi ziren, baina finantzazio arazoak zirela-eta, geratu egin ziren 1841ean. Ondorioz, beste trazatu bat egin behar izan zen, Orereta erditik zeharkatuko zuena. Bide berriaren lanetan Fermin Lasalak parte hartu izana erabakigarria izan zen historia pasaiatarrean.

Pasaia gerrei egotzi zien bidea negoziatu zen moduan egin ez izana. Horren erruz, herria isolatuta zegoen. Horrez gain, bide berriari eusteko egin zen Molinaoko malekoia gehiago lokatzuko zuen portua, itsas ingeniariak aitortu zuten moduan, eta ondorioz, Herrera itxia eta lur emankor bihurtzea eskatu zuten berriro. Horregatik, udalak haxe eskatu zuen beste behin: beste malekoia hori egitea, bidea bidesariaren bidez finantzatzeko baimena berreskuratzea eta lur berriak sendotzea¹⁰.



Ciriaco Iñigo Ezkurak egin zuen mapa hau. Iñigo Ezkurak Pasaia udalaren aldeko dohaintza utzi zuen, herriko gazteek itsas ikasketak burutu ahal izateko beka sortuz. Pasaia Portuko Agintaritzaren argazki artxiboa




Carpenter-ren grabatu honetan, Donibanen zegoen soka-lantegia bikain antzematen da. Bilduma partikularra.

1.5 Lehen industria modernoak errepidearen babesean

Hemeretzigarren mendeko lehen erdian, bideragarritasun eta hazkunde itxaropenak, barne antolamenduekin batera, badiaren muturretan (Bizkaia eta hondartza Herre-ratik Salinasera) jarri ziren. Bigarren erdiak, berriz, kaiaren behin betiko transformazioa ekarri zuen: Molinaoko itsa-sadarra lehortu eta aro industrialari eta trenari hertsiki lotutako nasak eraiki ziren.

Horixe ikus daiteke plano erantsian. Jatorrizko marrazkia 1828koa da, eta kostaldearen jatorrizko egoera ikus daiteke bertan. Duela 100 urtetik ordura arteko ohiko datuak ikus daitezke, berritasun interesgarri batekin: Itsasbeherako marrak konparatzen dira eta horien ebolu-zioa 1788. urteaz geroztik badiaren ahoan, Dorrea pasa ondoren. Era berean, Filipinetako Konpainiari buruzko datua ere eguneratzen da. Filipinetako Kon-painia Caracaseko Konpainiaren ondorengoa da. Geroa-goko datuek kronologia bat osatzen dute, Kaputxinoak inguruan hasten dena, 1833an Lezoko eta Errenteriako padurak lehortearekin batera. Hala, itsasadarra bide-ratu zen, duela 13 urte Tahona Ugartek eskatutako moduan.

Hurrengo aldaketa handia 1845ean izan zen, orduan egin baitzen errepide nagusiaren trazatua (gorriz nabar-menduta) kostaldearen ertzetik, eta Molinaoko badiaren lehorketa. Esku-hartze horien ondorioz, badiari buruz-ko planteamenduak dezente aldatu ziren, leku interes-garria bilakatzeraino.



Mendebaldeko ertza eta bide hori Salinas inguruan elkartu ziren, 50eko hamarkadaren hasieran eraikitako pasabide edo harri-lubeta baten bidez. Alabaina, 1863an, trenaren etorrerak balio berria eman zion atzean zegoen lurrari, jada ez soilik lur emankor gisa, baizik eta nasa industrial gisa, eta ondorioz, eraitsi egin zuten 1867an^{II}.

Industria modernoaren, garaikidearen etorrera lotuta dago orain arte aipatu ditugun mugimenduei eta izenei. Horregatik, ez da harritzekoa 1843an Ferrerrek kaputxinoen komentuko lurrak erostea¹¹. Komentua egoera kaskarrean zegoen gerraren ondorioz. Leku estrategiko batean zegoen, Matxingo lurmuturrean; ordurako, jada lehortuta zegoen Oiartzun ibaiaren ahoaren zati bat. Eta laster kokatuko zen portuan Real Compañía Asturiana de Minas konpainia.

Izan ere, Matxingo Bortalabordatik gertu egotean, “badiaren barruan zegoen badia” txiki hori oso erakargarria zen enpresa antzindariarentzat. 1821eko proiektuan, bete beharreko gune gisa azaltzen dira Kaputxinoak penintsula eta Bortalaborda badia. Diseinatutako portu zirkular horretan elkartzeko ziren biak, Bizkaia auzoaren bukaeran, Bortalabordaren atzealdean eraikitako pasabide baten bidez. Hain zuzen ere, eta ainguren fabrika Fanderiara lekualdatu arren, Filipinetako konpainiarekin elkartutako soka fabrika Bizkaia eta Bortalaborda artean zegoen. Lehen kordeldegia 1797koa zen eta berritu egin zuten

1842an. Itsas industria tradizionalari dagokionez, Bizkaia auzoan 1840. urteaz geroztik zeuden ontziolak. Dena den, lehen jarduera garaikidea sodako fabrika dugu, 1831koa, Clarac, Salenne y Compañía Baionako Sozietateak sustatutakoa.

Arizabalotik Borda Handia ingururainoko lurra izan zen Pasaiaiko lehen lur industrialia. Egia esan, garai hartan, udalerrian zegoen eremurik handiena eta zelaiena zen, eta jada bertako hiri eta industria garapenaren ezaugarrietako bat erakusten zuen: eremuak etengabe berrerabiltzen ziren eta etxebizitzak, industriak eta instalazioak batera zeuden eta, batzuetan, gainjarrita ere. 1851ean, jesuiten lurrak izandakoetan, Arizabalo eta Barranco jauregien artean Hermanos Baignol portzelana fabrika zegoen^{III}. Barranco jauregian, berriz, Martin Mujikak pospolo fabrika bat jarri zuen 1867an.

Enpresek eremuak eta Pasaiaiko historia tradizionalan hain garrantzitsuak izan ziren familien jauregiak hartu zituzten, eta ondorioz, garai bat bukatu eta beste bat hasi zen.

Pasaiaiko Udala Artxiboan gordetzen diren bi plano hauetan Bizkaia auzoko portzelanazko lantegia, batetik, eta Pasaiaiko lehen industria modernoak, bestetik, oso ondo jaso-tzen dira. *Pasaiaiko Udala Artxiboa: 588-1, 726-13*

III - Limogeseko portzelanaren oinordeko zuzena, industriak hainbat gorabehera izan zituen, eta Sozietatea 1858an berritu zuten. Hogei urte portzelana egiten aritu ondoren, enpresa itxi egin zen eta Llanos y Fussade sozietateak hartu zuen 1880ean. Gerora, 1895ean, Llanosek, Guerin y Cía (W. G. y Cía) konpainiaren ordezkaria zen aldetik, aurre egin behar izan zuten Baignol anaien oinordekoen asmoei eta udalarekin zituen desasatasunei, eta, azkenean, 1896an, Manuel Camararen esku geratu zen.

II - Urte horretan bertan, dorrea eraitea agindu zuten. 40ko hamarkadan Errotazarra bidea egin zen eta 70. hamarkadan Lezoraino iristen zen.

Kaiak, errepideak eta trenbideak industria-prozesuaren erritmoa zehaztu zuten Pasaian. Pasaiaiko Portuko Agintaritzaren argazki artxiboa.



Izan ere, industria horiek, eta jakina lehen aipatutako konpainia asturiarrak, izan ziren portuko industriari lehen bultzada eman ziotenak. Hala, 1845. eta 1870. urteen artean, errepide berriaren eta trenaren inguruan 1833an itsasadarrean lehortutako gunek aprobetxatuz, Oreretan hainbat ehun fabrika zabaldu ziren. Industriadako jauzia egin zutenen artean daude Garbuño, Arizmendi, Etxeberria edo Londaiz industrialariak¹³. Horiek ere laster ikusiko ditugu Pasaian.


Alabaina, 1870etik aurrera, garai industrial berri bat hasi zen, bigarren bultzada bat hain zuzen ere, portuaren transformazioaren eta portuak eskualde osoan zuen eraginaren ondorioz.

1.6 Trena eta portua bat eginik Pasaian

Egoera berri horretan, Mandasko Dukeak¹⁴, Fermin Lasalak, izugarritzko garrantzia izan zuen eskualdean eta Pasaia industrial berriaren sorreran. Lasalak zuzenean hartu zuen parte Irun – Andoain errepide berriaren eraikuntzan, eta trenbidearen negozioan sartuta zegoen, baita gure mugetatik kanpo ere.

Alabaina aldaketa ez zen arrakastaren eskutik heldu, baizik eta porrotaren eskutik: Donostiako portua dragatzeko proiektuak porrot egin zuen. Lasalak Donostiako portua handitu nahi zuen eta Alderdi Ederren aurreikusitako trenbide-plataformarekin integratu¹⁵. Ondorioz, bere inbertsioak Pasaia badiara bideratu ziren. Azken finean, Lasalak berak sustatutako errepide berriari esker, Molinaoko badia itxita zegoen eta, beraz, lanaren zati bat finantzatuta eta egina^{IV}.


IV - Ukronia (aldatutako gertaera historiko batean oinarritutako errealitate alternatiboa) edo imajinazio ariketa bat egitea proposatzen dugu. Horretarako, badia irudikatuko dugu, baina ez Lasalaren arrakastarik gabeko saiakeraren ondoren, baizik eta emaitzak bilatutakoak izan balira nola geratu izango zen. Kasu honetan, aldaketa eragiten duen gertaera Lasalak Donostiako portuan egingo lukeen esku-hartzearen arrakasta izango litzateke: merkantzia-geltokia Alderdi Ederren, portu-plataforma Kontxako badiari, industria-portua alde zahararen eta irlaren artean, langileentzako barrakoiak San Martin kaleko hareatzan... Pasaia bainuetxe bati zango al zen? Donostiako burgesen bizilekua akaso? eta erdigunean industria eta langileentzako etxeak egongo al ziren? Imajinazioa alde batera utzita, ariketa interesgarria da hausnartzeko eta zenbait egoera zalantzan jartzeko, izan ere, “betidanik” horrelakoak izan diren gauzak bestelakoak izateko zorian egon ziren.



Esku-hartze berri horretan, liberalismo donostiarra-
ren izen nagusiek (Ferrer, Lasala, Calbeton, Amilibia,
Brunet...) parte hartu zuten hasieratik. Lanak 1864ko
azaroaren 15ean amaitu ziren, Pasaia-ko tren-geltokia-
ren inaugurazioarekin bat etorritik: *con el fin de solem-
nizar en lo posible el día en que por primera vez paró
el tren en este punto, unánimemente acordó se den a
todos los relacionados invitados un almuerzo, cuyo
coste, así como lo demás que pudiera ocurrir en este
dicho día, sea satisfecho por ambos barrios a iguales
partes. Colocado en cuerpo con todos los espresados
invitados y músicos en la estación, esperando la lle-
gada del tren, llegó éste al punto de parada en donde
se detuvo como minuto y medio, cuyo tren fue reci-
bido a golpe de música y en el cual todos los relacio-
nados señores, así como el director Llanos con sus
músicos, fueron a Yrun, de donde regresaron en el
tren de las once de mediodía.*

Alabaina, bidaiariak garraiatzeaz harago, portua
eta trena elkartu nahi zituen, hain zuzen ere Donos-
tian lortu ez zuena. Horixe da Mandasko Dukearen
eta Aldundiaren arteko korrespondentziatik ondorioz-
ta daitekeena. Gutun horietan, portua hobetzeko
saiaakerak eta planak aipatzen dira 1861etik 1869ra,
eta baita, tamaina dela-eta, ezagun egiten zaigun
portu bat eraikitze-ko oinarriak finkatzen dituzten
akordioak ere.

Diseinu zirkularra kenduta, 1821eko proiektuan
aurreikusitako portuaren oso antzekoa zen: uraren
azalera murriztu eta maila igo zen Trintxerpe – Herre-
ran eta Molinaon. Eta horrela sortu ziren portu eta
udal-erri industrial berriak. Herrian zehar, ia leku guz-
tietan, edozein motatako enpresak ugaritu ziren,
batzuetan ezinezkoa izateraino hiri-garapena eta haz-
kunde industrial bereiztea.



Kai berria gobernatzeko Batzar Berezi bat eratu zen. Kaiaren kudeaketa eta finantzaketa zituen ardura. Aldundiko ordezkariekin batera, Gipuzkoako Jauntxoak batzartzen ziren elkarrekin bertan: “personas que a su ilustracion y celo reunan la representacion de los distintos intereses de la provincia y conocimientos especiales en los ramos que tienen relación con el asunto”. Alegia: jabeen eta kapitalisten izenean: Fermin Lasala eta Jose Antonio Murua; Jose Maria Arbulu eta Gregorio Manterola industria-gizonak; Jose Manuel Brunet eta Fausto Etxeberria merkatarien izenean; Miguel Dorronsoro eta Policarpo Balzola estatistika arlokoak; eta Jose Luis Mercero eta Ciriaco Iñigo itsaso aferen esparrukoak.

1870. urtean Sustapenerako Elkargoa sortu zen horrela. Kai industrialen azalerak Antxo - Molinaoko tren geltokiaren inguruak ez ezik, Trintxerpe eta Herrera ere hartuko ditu aintzat.

Kai honi buruz aritu gara jada Sorginarri bilduman^V; halere, Lafarga ingeniariaren proiektua Peironcely ingeniariak zuzendu eta osatu egin zuela gogoratu behar dugu hemen. Era berean, Peironcelyrena ere egokitu behar izan zen. Izan ere, Gerrate karlistak ezarri atzerapenak gairidituta, Peironcelyn berak zama lanetarako Herrera lehenetsi bazuen ere, 310 metro luzera zuen lehen kai industrialia Antxon eraiki zen 1879. urtean.

Lafarga ingeniariaren plano honetan Herrerako hondartza kai industrialia bihurtzeko lehen urratsak zirriboratu ziren.

Pasaia Portuko Agintaritzaren argazki artxiboa.

LUR EGONKORRA





2.1 Plan zehatz bat


Lasalak Molinaoko badia landu zitekeen lurra bihurtu nahi zuen lehenik, eta industria-lurra gerora. 1846ko uztaillean Erregearen Agindu bat aurkeztu zuen Pasaia-ko udalean. Agindu horren arabera, Molinaoko badiak, Andoain – Irun bide berriaren kai-muturraren edo harri-lubetaren eta kostaldearen artean zegoen lurra Lasalarena zen, baldin eta hiru urteko epean lantzeko lur bihurtzen bazuen¹⁶.

Horretarako, Lasalak Jose Antonio Seguiolari alokatu zion lurra 10 urtetan, lehorketa lanez arduratzeko. Egia esan, Seguiola langileburua omen zen eta lanaz arduratzen ziren langileak edo peoiak zuzentzen zituen. “Molinaoko badiako harri-lubeta ixteko lanak” deskribapenari esker esaterako, lekua hartzen ari zen itxuraren ideia bat egin dezakegu. Lurrak ixteko eta lehortzeko, betelana eta ura ateratzeko lanak egin zituen. Ura ateratzeko, punpa bat erabili zuten, balbula batekoa, Eduardo Fosseyk Lasarten zuen fabrika egindakoa. Jakina, Lasala fabrika horren partaide zen.

Ondoko hegaletatik lurra eta harriak hartu ziren betelana egiteko, kai-muturrak edo harri-lubetak eraikitzeko eta, itsasbeheran urak zuen maila baxua aprobetxatuz, badia isolatzeko. Hala, betelana egiteko material hori ertzetan utzi eta gabarran garraiatu zen gune hesitu edo itxiraino, lehorketa lanak egiteko. Kasares, Berra edo Garbuño izan ziren, besteak beste, betelanerako lurren hornitzaileak, eta lehortutako lurretan lursailak eskuratu zituzten. Hutsuneekin bada ere, lanak 1853an amaitu ziren.

Litekeena da padura lehortzea eta lantzeko lurrak lortzea Mandasko Dukearen helburuen artean egotea. Behabada bai. Zalantzarik ez dago, ordea, lur berrien erabilera oso bestelakoa izan zela. Lantzeko lurren erabilera baztertu egin zen eta, industria ugari egon arren, 1883an Lasalak etxebizitzak egiteko prestatu zituen bere lurrak.


Garai hartakoa dugu 1883ko plano ezaguna, hau da, Pasaian hirigintza ordenatzeko lehen tresna. Diseinuaren goitiko bista erabat arrazionalak eta linealak, ordea, bizitegi eta industria erabilerak bereizi beharrean, nahastu egin zituen.



1878ko irailaren 1ean Mandas-eko Dukeak eta Borderas Elkarteak salmenta agiria sinatu zuten elkarrekin. Salmenta-agiriaren zati dugu krokis hau. Agiriaren xedea Borderasekoek Molinaon erregai biltegia eraikitzea zen. Horretarako, Dukeak bidea egokitzea eta gabarrak ontziratze leku erabiltzea ahalbideratzen zien.

Inguruko lurren gaineko hainbat eskubide ere bermatzen zien.

Gipuzkoako Protokolo Historikoen Artxiboa (Oñati): 3-3053



Lasalaren
kolaboratzaile
Elias Cayetano
Osinaldek sinatzen
du 1883. urteko
plano hau, 1:1000
eskanan.

Lehortutako
eremuak zatika
sailkatu dira, etxa-
dika. Hizki bat ego-
kitzen zaio etxadi
bakoitzari ("A" eta
"P" artean).

Banaketa honetatik
kanpo Borderas
Elkartearen jabetza
geratzen da, goian
zehaztu bezala,
Petroleo fabrika
izenpean.

Honakoak
aipatzen dira:

1. Terreno vendido
a don Mariano
Borderas y Cía;
2. Ydem de don
Ramón Casares;
3. Casa y terreno
de don Juan Sanz e
Irigoyen;
4. Terreno
de don Manuel
Usandizaga;
5. Casa y terreno de
don Santos
Múgica;
6. Terreno
de don Ramón
Múgica;
7. Ydem
de don José Alonso
Gómez;
8. Ydem de
don Manuel
Urcola;
9. Ydem de
don Benito
Olasagasti;
10. Ydem de Santos
Múgica.

Pasaia Udal
Artxiboa 727-4.

Padura lehortzeko
lanak Basanoagako
kala 1833an lehort-
tzean amaitu ziren.

Ontzigintzarako
gune ezaguna zen
hura, Antxon Istillu
(Astillero) izenare-
kin gogoratzen
dena.

a) Caserío Astillero

b) Sus terrenos

c) Emplazamiento

de la nueva casa

d) Terreno y caseta
del cuerpo de
ingenieros

e) Porción de terreno
del señor Lasala
que puede
permutarse con el
señor Loydi.

f) Terrenos que
deben adquirirse de
la Diputación

g) Camino vecinal
que debe trasladarse
su servidumbre
por entre manzanas
y el talud.

M) Mojones actuales

E) Estacas que se

han colocado para

marcar los límites


Manzanas marcadas


en tinta carmín.

Gipuzkoako Artxibo

Orokorrra (Tolosa):

DM 23-33.





Inozentzio Elorzak Zumaiaiko faroa eta Zarautzeko kaiako lanetan, besteak beste, hartu zuen parte. Probintziako Lan Publikoen Zuzendari bezala, ordea, herrien arteko distantziak ezarri eta argitaratu zituen. Gurean, Azkuene baserriaren ordez eraiki beharrekoa zen etxe honen planoak sinatu zuen 1893. urtean. Azkuene baserria, beraz, egungo Euskadi Etorbidearen 35. zenbakiaren inguruan zegoela esan genezake.

Errepidea ez dago, oraindik, zuzenduta, Gomistegi baserriaren azpian errebuelta arriskutsua osatzen zuelarik.

Gipuzkoako Artxibo Orokorra (Tolosa): JD IT 1800-6983.

Fabrikak eta etxebizitzak eraiki ahal izateko lur egonkorra eta lehorra lortu nahian, orduz geroztik etengabe lehortu ziren eremuak eta eraiki ziren dikeak, kai-muturrak eta antzekoak^{VI}. Udal aktetan, 1884an onartutako bi eskaera jasotzen dira badiako Ipar ertzean lanak egiteko: bata, Dionisia Cesarea Garbuñorena, hau da, Londaizen alargunarena; eta bestea 1885ekoa, Donato Gomez Trevijanorena. Lehen eskaeran, Dionisia Cesarea Garbuñok Errotetan zituen ondasunak aipatzen ditu.


Era berean, aipatzeko modukoak dira Salbioaren (Erregearen Ontziola) betelana 1882. eta 1892. urteen artean, Bidebietako jabeek beren finka hesitzeko aurkeztu zuten eskaera, edo, baserriak alde batera utzita, Augeren etxearen, hau da, Txintxerpeko lehen etxearen eraikuntza 1893an. Urte horretakoa da ere Azkuene baserriaren inguruan Ostolazak egindako proiektua.

Aldi berean, badiaren beste muturrean ere lehortzeko lanak egin nahi izan zituzten, lantzeko lurak lortzeko. Izan ere, Molinaoko badiaren gainean eskubidea zuela jakinarazteko Lasalak aurkeztutako Erregearen Agindua erregistratu zen egun berean, bide eman zitzaion Hermenegildo Instanderen eskabideari. Instanderek Bordialaborda eta Lezo arteko zatia lehortu nahi zuen nekazaritza-lurra bihurtzeko. Alabaina, ekimen hori ontzat eman arren, ez zuen aurrera egin; batetik, nabarmena zelako eta, bestetik, 1886an, Lau-

VI - Diferentziak alde batera utzita, soilik alderatu daiteke Guillermo de Lezonek eta bere lagunek mende batzuk lehenago egindako lanarekin.

Bien bitartean, lehorketarik garantzitsuena Donibaneko amarralekuarena da. Horixe dugu egungo plaza, itsasoa lehortuta eta uraren gainean egindakoa.

Toki-falta nabaria
 izan arren, argazki
 eder honek espazioa
 modu arrazionalen
 jorratzeko ahalegina
 ezin hobeto jasotzen
 du, Antxoko etxee-
 tako fatxaden
 planta dotorean isla-
 tzen dena.
*Pasaiaiko Udal
 Artxiboa.*



reano Conde de Maltak Bordalaborda lehortzea eskatu zuelako eta, portuko jarduerari kalte egingo ziola argudiatuta, ezezko biribila jaso zuelako.

Testuinguru horretan, “D” etxadia saldu zen. Agustin Arbillaagak erosi zuen 1885eko otsailaren 28an, eta hamar etxe, sotoak barne, eraikiarazi zituen bertan. 1887. urtearen hasieran amaitu zituzten. “Hamar etxe” horiek, jakina, Hamarretxeta¹⁷ ezagunak dira.

Esku-hartzearen arrakastaren eta Antxoko lur berrian eraikitako etxebizitzaren fede ematen dute Molinaorako eraikuntza ordenantzek. 76 artikulua dira, besteak beste, eraikinen altuerari, fatxaden ezaugarriei, keei, patioei, argizuloei, eskailerei, espaloiei eta lokalen erabilerei buruzkoak¹⁸.

Ordenantza horiek 1906. urtearen bukaeran edo 1907. urtearen hasieran idatzi zirela uste dugu, baina, nolana

ere, argi dago irizpideak bateratu eta finkatu nahi zirela Antxon XIX. mendearen amaieraz geroztik abiatu zen eraikuntza prozesuan; edo, behintzat, arau batzuk jarri nahi zirela etorkizunari begira. Era berean, proiektu horrek erakusten du duela gutxi arte Pasaiaiko udalak ez zuela esku-menik inguru horretan.

Hala, Pasaiaiko udalak jabe batzuei salerosketa eskriturak eskatu zizkien. Eskritura horietan ikus dezakegunez, Lasala nonahi zegoen eta Lasalak eta erosleek eraikuntza baldintzak finkatu zituzten. Hortxe dugu, esaterako, Lasalak Ignacia Minondo andreari saldutako 4.670 metro koadroak (planoko G etxadia). Agiri horretan, neurri ugari adostu zituzten etxadien eta etxeen eraikuntzaren inguruan, horien artean nabarmentzekoa da galdategirik jaritzeko debekuarena.



2.2 Hazkunde industrialia

Mandasko Dukeak Minandori jarritako baldintzak argi eta garbi erakusten du paduraren transformazioa baina, batez ere, Mandasko Dukeak berak jarduera industrial astunak jartzeko orduan zuen kontrola. Beste batzuetan, ordea, Mandasko Dukearen baldintzak ez ziren murriztaileak, eta kapitalaren etorrera errazteko klausulak finkatu zituen.


Kapital hori ez da oso urrutitik etorriko, 1870etik aurrera badian azalduko baitira Errenterian topatu ditugun lehen bultzada industrialaren arduradunak. Enpresaburu horiek Pasaiaira aldatu zituzten beren negozioak 1870etik aurrera, abaguneak erakarrita. Lehen fase horretan metatutako kapitala bermatzeko eta negozioak handitzeko, ahaideen arteko ezkontzak egin ziren.

Garai hartakoa dugu, esaterako, Pasaiaiko instalazio industrial aitzindaria: erregai eta petrolio biltegiak eta findegia. Erregai industrialaren hornidura, bestalde, indarrez sortuko zen garai berri horren beste adierazle bat izan daiteke.

Jarduera hori badiaren Hegoaldean eta Mendebaldean ezarri zen, komunikabide berrien eta kaien ibilbidearen ondoan. Horregatik, ez da kasualitatea portu modernoa eraikitzearekin batera, petrolio deposituak egiteko lizentzia eskatzea eta eskatzailea hain zuzen ere Londaiztarren kide bat izatea. Londaiztarrek lihoa ekoizten zuten Errenterian eta Oiatzunen.

Kokalekua nahiko bitxia iruditzen zaigu, 1870eko uztai-lean Ramon Londaizek Torreatze aukeratu baitzuen deposituak jartzeko. Zortzi urte geroago, Borderas sozietateak (Mercader y Londaiz) Kalparra inguruan jarri zituen aipatutako deposituak... Aipatzekoa da, gainera, lehenengoa etsita zegoela, haren etxea aseguratu lukeen inor ez baitzuen topatzen. Urte horretan bertan, hau da, 1878an, Sociedad Borderas enpresa Molinaon kokatu zen, eta horretarako, Mandasko Dukearen laguntza izan zuen¹⁹. Kokaleku berri hori oso egokia izan zen, eta, 1885ean, Borderas sozietatearen ondorengo enpresak (Mercader y Viuda de Londaiz) instalazioak handitu zituen. San Pedroko biltegiak eta deposituak 1892ko abuztura arte edo irailera arte egon ziren jardunean²⁰.

Padurak ez ezik, itsas bazterrak ere bete egin ziren. Planoan, gainera, honakoak nabaritu nahi ditugu: Kaputxinosen zegoen Real Compañía Asturiana delakoa eta honen atelierrak; Soka fabrika; Berrako upeltegia; Zamatete gaineko Ganboena; Palazio txikiko lorategiak; Ostaberde eta Kanpitxoaren arteko Buenavista base-rria; Araneder zein Gomistegi errekek. *Pasaiaiko Udal Artxiboa. P-007.*




Borderas
Elkartearen gunea
CAMP
SA
bihurtu zen.
Pasaiaiko Udal
Artxiboa.
961-13.

Irailaren lehen astean egindako osoko bilkuran, Gobernadore Zibilararen jakinarazpen bat irakurri zen. Jakinarazpen horrek Mercader – Londaiz sozietatearen eskaeraren aurka udalak hartutako erabakia berresten zuen. Enpresa horrek San Pedroko instalazioak txukundu nahi zituen. Udalar eskatu zion ordenantzak aldatzeko, deposituak zientzialarien aholkuak jarraituz eraiki eta segurtasuna bermatu nahi zuelako; izan ere, depositu horiek ordura arte petrolioia gordetzeko erabili ziren pilatutako kaxak ordezkatu behar zituzten. Desmarais Hermanos enpresak bilakaera paraleloa izan zuen; 1891. urteaz geroztik petrolio findua biltegiatzen zuen.

Egia esan, ustekabeen edo nahita piztutako sute baten arriskua da aurreko eztabaidaren arrazoia; gaur egun gertatzen den moduan, orduan ere ez baitzen erraza uztartzea segurtasuna eta aurrerapena –aurrerapena industria gehiago bezala ulertuta–. Azkenean, Saiz zinegotziaren ikuspuntua gailendu zen: *no veía la seguridad y garantía que ofrecían los tanques o depósitos que se*

proyectan establecer, que si bien comprende que para su construcción se tomarán todas las precauciones necesarias, no obsta para que el menor descuido o una mano criminal producía una explosión seguido de un horrible incendio, como el que se experimentó hace unos años en la fábrica de petróleo que los señores L. Mercader y Viuda de Londaiz tienen en el barrio de Molino^{VII}. Que si esto sucediera en los almacenes de que se trata, situados dentro de la población, las consecuencias serían lamentables, máxime si se tiene en cuenta que pegante a los edificios que han de servir de depósito de petróleo existen seis casas habitadas de numerosas familias. Por todo lo que, y no queriendo contribuir con su voto a que dichas familias en particular y el vecindario en general

VII - 1888ko maiatzaren 16an izandako suteaz ari da. Sute horren berri eman zuen “El Eco de San Sebastián” (<http://www.antxo.com/?p=48>) egunkariak. Langile bat hil eta beste bat larri zauritu zen.



1928ko planoan ikus daitekeenez, 1893ko hodiak ordezkatu zituzten: hodi berrien ibilbidea zuzenagoa zen. Horrez gain, planoan beste gune interesgarri batzuk azaltzen dira, hala nola galdategia, minerala deskargatzeko lekua edo irinen fabrika. *Pasaia*ko Udal Artxiboa: 961-12.



Mea zamatzeko
guneak 1965. urtera
arte iraun zuen.
Alfonso Darik
diseinatu zuen.
47 metro luzera eta
9 metro garaiera,
hemen zuen
bukaera Arditurriko
meategitik garraia-
tzen zena.
*Pasaiaiko Portuko
Agintaritzaren
argazki-artxiboa.*

vivan en continua alarma, era de opinión que si alguna modificación merecen las ordenanzas municipales en la parte que se disiente, es la prohibición absoluta de depositar petróleo en dichos almacenes, no solamente en tanques ni cilindros sino también en cajas y barriles, por hallarse el depósito dentro de la población y está expuesto a una catástrofe en el momento menos pensado.

Ezezkoa jaso ondoren, enpresak Molinaoko instalazioak hobetu zituen. Horiek horrela, 1893an baimena eskuratu zuen hodi batzuk deposituetatik kairaino jartzeko eta itsa-sontziak zuzenean petrolioz hornitzeko²¹.

1884. eta 1886. urteen artean egin ziren salmentek 1883ko plana eta bertan adierazitako lurrak eta etxadiak hartu zituzten erreferentziatzat. Sociedad Borderas enpresarekin eta bere ondorengoarekin batera, lur berrian kokatu ziren lehen enpresen artean dago Isaac León hijo mayor y hermanos enpresa. Azken enpresa horrek Planoko H etxadi ia osoa hartzen zuen, etxadi horretan Louit Hermanos txoko-

late fabrika zegoela ahaztu gabe. Magdalena inguruan, berriz, Santos Mujikaren toska fabrika eta Julian Souzaren xaboi fabrika zeuden.

O etxadi osoa Antonio Etxeberriaren, Jose Manuel Brunet Praten eta Mandasko Dukearen A. Etxeberria y Compañía enpresak hartzen du. Enpresa horrek Mandasko Dukeak Lasarten zuen fabrika hornitzen zuen²², horregatik jarri zion Dukeak Minandori lehen aipatutako baldintza murriz-tailea. 1907an enpresa hori deuseztatu eta Fundiciones de Molinao sortu zen, Etxeberria gabe eta Mandasko Dukearen eta Brunet familiako beste kide baten partaidetzarekin²³. 1918an, Luzuriaga galdategia sortu zen, enpresa horren bilakaeraren ondorio.

Planotik kanpo, baina inguruan, Ugalde irinen fabrika zegoen. 1903ko eraikin ikaragarri horrek 1000 metro koadro baino gehiago hartzen zituen eta 24 orduko 30 tona irin egiten zituen. Inguruan ere minerala deskarga-tzeko lekua zegoen²⁴.

SALTOKIAK PASAI ANTUXON (1891-1892)

Saltokia	Kokapena
Kafetegia/jatetxea	Errepidea
Kafetegia	Errepidea, L letra
Kafetegia	Errepidea, G letra
Ostatua eta kafetegia	Errepidea, F letra
Jangaien, ehunen eta irundako gaien txiki-zkako salmenta	Errepidea, Magdalena
Harategia	Berra-bea
Ardoaren eta pattarraren txikizkako salmenta	K errepidea
Ardoaren eta pattarraren txikizkako salmenta	Errepidea K
Janari-denda	Magdalena V
Pattarrak eta likoreak	Magdalena V
Toska arrunta	Magdalena (behea!)
Estankoak, koilarak, etab.	Errepidea

Saltokia	Kokapena
Komisionista (Próspero Delbós)	Magdalena
Farmazia	Errepidea
Bizartegia	Errepidea
Zurgindegia	Magdalena
Latorritegia	Hamarretxeta
Zurgindegia	Magdalena
Ardoaren eta pattarraren txikizkako salmenta	Molinao R, Errepidea, Errepidea B, Errepidea A
Ikatzaren txikizkako salmenta	Errepidea (barraka batean)
Jostundegia	Carretera L (BEHEA)
Okindegia	Errepidea G
Ile-apaindegia/bizartegia	Errepidea
Estankoak, koilarak, etab.	Molinao

Pasaiaiko errolda industrialaren arabera. Pasaiaiko Udal Artxiboa. 1676-3.

Irin-fabrika. Itzela. Antxoko sarreran. Pasaiaiko Portuko Agintaritzaren argazki-artxiboa.

Alabaina fabrika horiez gain, baziren langileen eta biztanleen beharrak asetzeko establezimendu asko. Biltegi eta banatzaile asko zeuden, produktuak –olioa, bakailaoa, kolonialak eta gaztak– handizka saltzen zituztenak eta baita egur biltegiak, ardoak esportatzen zituzten establezimenduak, etab.

Etxabeetan, mota guztitako saltoki eta industria txikiak jarri ziren. Sare industrial trinko horretan, askotariko jarduerak nahastu ziren: torlojugintza edo inprenta, diskoen eta botoien fabrikazioa, laborategi farmazeutikoak, ile-tindua, ontzi zilindrikoak eta destilatuegiak edo likore fabrika.

Udal matrikula industrialari, hau da, zerga industrialak ordaintzeko oinarriari esker, ikusi ahal izan dugu aduana-agenteena zela Antxon 1890. urtera arte zegoen jarduera komertzial edo industrial aipagarri bakarra. Alabaina, hori aldatu egin zen pixkanaka. Horixe da, behintzat, udal kontribuzioak 1891-92ko ekitalditik aurrera erakusten duena.

Saltoki guztiak ez zeuden jabeen bizilekuetan edo etxeetan. Normala denez, batzuek, biltegiek esaterako, azpiegitura egokiak behar zituzten. Hala, ardoak Boderlera eramaten zituzten enpresak, ardoen biltegizainek edo ardoak esportatzen zituzten enpresaburuak, hala nola Larrañaga Hermanos, Lardy J., P. Lardi eta Chipin, A. Jaurriat, Leon Galoping edo Henry Garnier Antxon kokatu ziren, han-hemenka, hainbat biltegitan eta baita trenbideen ondoko plataformatan ere.



INDUSTRIAK ETA ESTABLEZIMENDUAK PASAIA

SP = San Pedro - Trintxerpe

D = Donibane

A = Antxo

Saltokia	1898-99	1910	1925
Alokatzeko gurdiak	2 (SP)		
Lurrun-garabiak	1 (Kaiak)	1 (Kaiak)	
Olioaren handizkako salmenta			1 (A)
Olio minerala		2 (SP)	
Aduana-agentea eta ontzi-kontsignataria	17 Portua ^{VIII}	15 (Portua)	32 (Portua)
Igeltseroa		6 (1 SP, 4 A, 1 D)	4 (2 A, 2 SP)
Burdin eta totxoen biltegia			2 (SP, A)
Espartingilea	2 (SP, A)		
Bainu publikoak		1 (A)	
Bizartegia/Ile-apaindegia	3 (A)	7 (3 A, 2 SP, 2 D)	8 (3 A, 3 SP, 2 D)
Ontziak			1 (SP)
Itsas Kafetegia		1 (A)	
Kafetegia/taberna		12 (11 A, 1 SP)	
Ikatz minerala			4 (Portua)
Ikatzaren txikizkako salmenta			4 (2 A, 2 SP)
Haragiak			8 (1 D, 3 SP, 3 A, 1 zehaztu gabe)
Arotzeria metalikoa			2 (1 A, 1 SP)
Arotza	6 (3 D, 2 SP, 1 A)	5 (2 D, 1 SP, 2 A)	6 (3 SP, 1 D, 2 A)
Paper-denda			1 (A)
Janari-denda		6 (Portua)	6 (3 D, 3 A)
Komisio-hartzailea	1 Portua		2 (Portua, D)
Erregai mineralak			2 (A)
Gozogilea		2 (D, A)	1 (A)
Conglomerados de canesú? Cancpú?			1 (A)

VIII - 94-95eko kontribuzioan, Portua, Kaiak eta Biltegiak Antxo barruan kokatu ziren. Zerrendak Altxako eta Donostiako matrikula industrialean inskribatutakoekin osatu ziren.

SP = San Pedro - Trintxerpe

D = Donibane

A = Antxo

Saltokia	1898-99	1910	1925
Itsasoko artekari interpretea			3 (Portua)
Sagardogilea	8 (4 D, 3 SP, 1 A)		
Ikaztegia	1 (Portua)	3 (A)	
Ardoen biltegia	6	1 (A)	
Drogeria. Txikizkako salmenta			2 (SP, D)
Ebanisteria eta ereduak			1 (SP)
Itsasontzietarako gaiak			1 (SP)
Espezialitate farmazeutikoak		1 (A)	1 (SP)
Kola fabrika			1 (SP)
Kalamu-soken fabrika	1 (D)	1 (D)	
Espartin fabrika			1 (A)
Gaseosa fabrika		1 (A)	2 (A, SP)
Izotz fabrika			1 (SP)
Likore fabrika		2 (A)	
Malguki fabrika		1 (SP)	
Portzelana fabrika		1 (D)	
Tapioka fabrika		1 (A)	
Ile-tindu fabrika	1 (A)	1 (A)	
Farmazialaria		1 (A)	2 (A)
Farmazialaria	1 D		
Burdindegia			1 (A)
Ostatua eta kafetegia	5 (1 SP, 3 A, 1 D)		
Burdinaren galdaketa	1 (A)	1 (A)	1 (A)

INDUSTRIAK ETA ESTABLEZIMENDUAK PASAIAN

SP = San Pedro - Trintxerpe

D = Donibane

A = Antxo

Saltokia	1898-99	1910	1925
Errementaria	1 (SP)	3 (2 SP, 1 A)	
Latorrigilea	2 (SP, A)	2 (1 SP, 1 A)	
Barazkiak			3 (D)
Iturgina			2 (SP, A)
Elikagaien lonja. Txikizkako salmenta	1 (A)	1 (A)	
Toska, ontziteria			1 (A)
Egurra			3 (2 SP, 1 A)
Maisu igeltseroa	2 (SP, A)		
Maisu hargina	1 SP	2 (SP)	3 (1SP, 2 A)
Medikua	1 D	1 (D)	2 (D, SP)
Mertzeria	2 (D, A)	9 (2 D, 7 A)	12 (3 D, 5 SP, 4 A)
Altzariak			1 (A)
Okindegia	4 (2 D, 1 SP, 1 A)	5 (2 D, 1 SP, 2 A)	5 (1 D, 1 SP, 3 A)
Papera			2 (A)
Zoparako pastak			1 (A)
Arrainaren handizkako salmenta			1 (SP)
Petrolio			1 (Puerto)
Maziak			1 (SP)
Petrolio-findegia		1 (A)	1 (A)
Olio mineralen findegia			1 (SP)
Jatetxea		20 (10 D, 4 SP, 6 A)	
Arraina gatzetan jartzeko fabrika eta olio biltegia	2 (D)		
Harakina	3 (D, SP, A)	4 (1 D, 1 SP, 2 A)	
Doikuntza-lantegia			1 (SP)
Galdaragintza arina			2 (A, SP)
Galdarategia, “construcciones Maya”			1 (A)

SP = San Pedro - Trintxerpe

D = Donibane

A = Antxo

Saltokia	1898-99	1910	1925
Inprimategia			1 (A)
Upelgintza		4 (A)	
Errementeria			6 (1 D, 4 SP, 1 A)
Burdina lantegia eta sarraila-denda		2 (SP)	
Orrazien eta botoien denda	1 (D)		
Lurrin-denda			1 (A)
Upeltegia			1 (A)
Olioien salmenta		1 (A)	
Jatekoen salmenta		3 (2 D, 1 A)	
Fruten salmenta		2 (1 A, 1 SP)	
Sagardoaren salmenta		23 (7 D, 8 SP; 8 A)	
Albaitaria	1 D	1 (D)	
Pattarraren txikizkako salmenta	24 (7 D, 9 SP, 8 A)		
Ardoaren handizkako salmenta	1 (A)	2 (A)	7 (3 A, 4 zehaztu gabe)
Ardoaren txikizkako salmenta		27 (3 (D), 7 SP, 7 A)	
Ardoak			5 (2 SP, 3 A)
Atzerriko ardoak eta likoreak	1 (Biltegia)		1 (A)
Zapataria	2 (SP, A)		

Herrera ez zen prozesu horretatik kanpo gelditu. Bertan bultzada pixka bat beranduago izan arren, 1893-94ko ekitaldiko kontribuzio industrialean, jada, Administración de Fundiciones del Norte galdategia eta ardo biltegi pare bat topa daitezke. Donibanen, berriz, ezin dugu aipatu gabe utzi eskabetearen prestatutako jakien saltokia, Tuton jaunarena.

Nahikoa da errolden bidez biztanleen bilakaera jarraitzea edo Pasaiaiko barruti bakoitzean kokatutako jardueira ekonomikoak konparatzea, inbertsio industrial nagusiak non egingo diren jakiteko. Antxok 1897an jada 939 biztanle zituen; gutxiengatik bazen ere, Donibaneren atzetik zegoen (1063), eta San Pedroren aurretik (355). Garapen industrialaren ondorioz, banaketa bestelakoa zen

1925ean. Trintxerpen kokatutako industriak erakarrita, Antxok 2132 biztanle zituen, San Pedro-Trintxerpek 1926 eta Donibanek 1475. Garapen horren beste adibide garbia dugu Antxoko industriei buruzko 1892-93. ekitaldia. Bi epigrafetan banatuta dago: “Jabetza” eta “Industria eta Merkataritza”. Lehen atalean 18 izen azaltzen dira eta bigarreanean, berriz, 58.

Aldi berean, Donibaneko Arrieta y Cía sozietateak –portzelana fabrika ordezkatu zuen altzairu-fabrikak– lurraren gainean zituen eskubideak Donibaneko Ontziolari ematea erabaki zuen, bere jarduerak ez zelako bate-ragarria ondoan zuen enpresa berri horren jarduerarekin. Hala, jarduerak garatuz eta dibertsifikatuz joan ziren, eta batez ere, berrituz eta modernizatuz.

1862an jada, San Pedroko dirua eskatu behar izan zien partikularrei, hegala lur-erauzketa eta ezpona bidez finkatzeko. Partikular horietako batek, Passamanek, udalari esan zion dirua ahal zuenean itzultzeko.

Alabaina, 1883tik aurrera, badiako ertz guztiak berritu eta izugarri hazi ziren. Barruti berria, portuari lotutako eragile ekonomikoa izateaz gain, eredu eta eragingarri soziala zen. Urteak begiratu besterik ez dugu egin behar hori egiaztatzeko. Bada, 1883an su artifizialak itzuli ziren San Ignazioko eta Santa Anako jaietara, eta urte horretatik aurrera, udal aktetan behin eta berriro aipatzen da San Pedroko eta Donibaneko kaleetako galtzada-harriak aldatu zituztela: 1885ean Mutrikuko harria jarri zuten San Pedron eta, 1883an eta 1887an, Zumaiakoa Donibanen. Zoladura oso gaizki zegoen –1887an ezin zen Donibaneko kaleetatik ibili– eta ura bideratzeko hodi berriak sartu behar izan zituzten²⁵. Aurrerantzean, lurzoru publikoa zaintzeaz arduratu zen udala eta, horretarako, besteak beste, pisua zela-eta galtzada-harriak hondatu zitzaizketen gurdien sarrera murriztu zuen²⁶.

Era berean, Donibaneko plaza eta San Pedrokoa berritu zituzten, 1898an eta 1911an hurrenez hurren. Bestalde, kontsumo pribaturako uraren kudeaketari esker, biztanle kopurua handitu zen eta bizi-maila hobetu.

Aldaketa hori nabaria izan zen iturrietan. 1858an, Donibaneko iturri nagusia Bonantzara aldatu zuten, neguan Txurrutallarako bide arriskutsua saihesteko eta bidetik elurra eta izotza kendu behar ez izateko. Iturri


berria Vicente Ansola tolosarrak diseinatu eta Francisco Iraza altzatarrek egin zuen. 1869an debekatu egin zuten bertan arropa eta arraina garbitzea.

Hain zuzen ere, Bonantzako iturri horretatik gainera, hiribildua urez hornitzeko aukera aztertu zuten 1883an, galtzada-harriak aldatzeko lanekin batera, kalean zehar hainbat hodi jarrita, baina proiektua ez zen burutu. San Pedron ere, galtzada-harriak aldatzeko 1885ean egin ziren lanen harira, Salbioko iturria berritu eta bertako urak herriko sarreraraino eta erdiguneraino bideratu ziren. Ateratako hondarra Salbioko zati bat betetzeko erabili zen eta, 1886ko urtarrilean, iturri berri bat jartzeko 14. zenbakian. 1887an, ordea, Arribalakopuntakoa, hau da, Dorrekoka konpondu zuten.

90eko hamarkadak bultzada berria ekarri zuen arlo horretan; hala, Antxon iturri baten lehen aipamena 1893ko udal aktetan azaltzen da. Gero, asko eztabaidatu zen kokalekurik hoberenari buruz. San Pedron, urte horretan bertan, iturri automatiko bat, hau da, ponpa baten bidez erregulatutako iturri bat jartzeko aukera aipatzen da. 1894ko irailerako, jada, iturri horietako bana jarri zen barruti bakoitzean.

Udalak, 1887an, herritarrak animatu zituen ura etxetara zuzenean bideratzeko hartuneak egiteko: Jose Tuton, Ignacia Maria Aranburu, Ramon Llanos, Antonio Minando, Ignacia Cruz Elizalde, Avelino Sanz eta Ramona Urteaga izan ziren lehen eskatzaileak eta Pablo Camara arduratu zen hartuneak egiteko eta galtzada-harriak

Lan handiak ez ezik, lan apalak eta ezkutukoak ere guztiz dira beharrezkoak herritarren bizi maila hobetze alderai. Ura etxetara eramatea, adibidez. 1886ko plano hone-tan, Donibaneko ur-hoditeria dugu. *Pasaiaiko Udal Artxiboa: 300-23.*






aldatzeko lanak zaintzeaz. Kontuan hartuta geroz eta jende gehiagok etxean ura eduki nahi zuela eta Donibanen iturri bakarra izatea oso deserosoa zela, 1902an hornidurari buruzko araudi berri bat egin eta kontagailuak jarri zituzten.

Bestalde, elektrizitatea sortzeko erabiltzen zen uraren indarra. Horrela, batetik, herriko argiak hobetu, mantentze-lanen kostua merkatu eta petrolioaren aurrezten zen²⁷, eta, bestetik, elektrizitatea etxetara eramatearen truke udalak dirua biltzen zuen. Hala, 1897ko irailean, Alabortzako iturburuetako jabe zen Satrustegiko Baroia-ekin hitz egin nahi izan zuen, itsasora zuzenean isurtzen ziren urak aprobetxatu eta energia elektrikoa sortuko lukeen ur-jauzi bat lortzeko beharrezkoak ziren lanak egiteko^{IX}.

Orduz geroztik, udalak behin baino gehiagotan erosi zien ura Satrustegiren oinordekoei (1899, 1904, 1906...), populazioaren hazkundera, kontsumo industrialaren igoera eta bereziki San Pedron eta Antxon lehorte garaietan sortutako zailtasunak²⁸ medio, eskaera geroz eta handiagoa baitzen. 1904ko akordioari esker, ez bakarrik Donibane, baizik eta herri osoa hornitu zen, eta 1906koari esker, udalak Alabortzako iturburuaren jabetza eskuratu zuen. Udalak, higieena eta uraren kalitatea bermatu nahian, bertan artilea garbitzea debekatu zuen. Ur erosketek gora egin zuten 20ko hamarkadan (1923 eta 1928), hazkunde industrialaren ondorioz. Aurrerago aztertuko dugu gai hori.

Dena den, beharbada garai hartako lanik deigarriena San Pedroko kalea konpontzeko egindakoa izan zen, bereziki 66. eta 68. zenbakietan egindakoa. Beratik errazago igaro ahal izateko, bi irtebide eman ziren. Batetik, 100 urte lehenago Donibanen egin zen bezala edo San Pedron bertan ere ikus daitekeen bezala, beheko solairuak moztu eta arku bat egitea proposatu zen kalea etxearen azpitik pasatzeko, eta bestetik, “kaleak hartzen duen guztia behetik gora” moztea. Azkenean, 1883an, 64 – 69 zenbakien artean atzeraemangunea zabaltzea eta lan horiek kofradiaren kutxarekin finantzatzea erabaki zen. Alabaina, 1885eko otsaila arte ez zen adostasunik lortu eta Aldundiari baimena eskatu zitzaion mailegu bat eskatzeko.


Badiako herrien fisonomiaren aldagetarekin batera, kaleen izenak aldatzeko premia sortu zen; “calle única” bezalako izen inpertsonalak alde batera utzi eta nortasuna eman nahi zitzairen, eta euskaraz eta gaztelaniaz errotulatu. Horiek horrela, 1896ko abenduan, izen hauek



Pasai Donibaneko kale bateko zati baten goitiko bista horizontala eta luzetarako profila, 14 – 17 zenbakien artean eta elizaren ondoan. Kale hori zabaltzeko eta maldak erregularizatzeko, perfillean azaltzen diren hainbat eskailera-maila kendu dira, Udalak hala eskatuta. Arizabaloren atzealdera joateko Donibane kalearen bukaeran zeuden eskailerak kendu nahi ziren. Argi dago gurdiak, esaterako, nekez igaroko zirela bertatik. Era berean, atzeraemangune bat ikus daiteke bi etxetako fatxada edo

horman, berritutako kalea zabaltzeko. Lan horiek Lekuonak egin zituen 1864. urtean eta arestian aipatutako San Pedroko lanen aurrekaritzat har daitezke. Ikus daitekeenez, elizaren sarbidean hilerria zegoen. 1875ean malda ere arindu zen, baina Tuton enpresaburuaren finantziarioekin, egoera ekonomiko larria zela-eta altxor publikoak ez baitzuen dirurik lan horiek egiteko. *Pasaiako Udal Artxiboa. 1682-4.*

IX - Bitxikeria gisa, urte horretan bertan elektrizitateak olioaren ordezkatu zuen Erreterian. Iturriko ura etxean edukitzeko aukera 1876an eskaini zieten bizilagunei, hori bai, murritzeta askorekin. Ikusi Barcenilla: *La pequeña Manchester*. Donostia: Aldundia, 1999.



proposatu ziren kale nagusietarako: Calle San Juan - San Juan kalia; Calle San Pedro - San Pedro kalia, eta, Antxon, Calle Mayor - Kale Nagusiya. Nortasuna aitortu eta bizitza berri bat hasi zen, hiri-garapenari lotutakoa, dudarik gabe.

2.4 Eremu berria hartzea

Antxo, edo Lasala auzoa bere sustatzaileak deitzen zion bezala, portua-errepidea eta industria artean sartuta geratu zen, baina Osinalde diseinatzaileak baieztatu zuen bertako osasungarritasuna bikaina izan zela erakitzaileek eta jabeek hustubideak, ildoak eta estolda-zuloak zaintzen zituzten bitartean: *Jamás los terrenos del Molinao motivaron en treinta años, reclamación ninguna de nadie por causa de insalubridad, siendo natural que no la hubiera cuando despues de costosas obras, los terrenos daban productos agrícolas propios de terrenos completamente saneados como ademas de la hierba, son el maíz y la manzana. Tampoco en los diez años siguientes, cuando se estableció la fábrica de refinacion de petróleo y se comenzó a levantar casas viviendas hubo allí estancamiento alguno de aguas. Pero hace dos años [1887] empezó a notarse que tierras jamas bañadas por agua lo eran; cosa muy natural cuando se trasformaron de heredad en centro importante de industria y poblacion. Con solo el aumento de propietarios y de*

habitantes, se comprende que hubiera allí descuidos y abusos que antes no habia.

Gauza bera esan zuen 1893an, eta zehatz-mehatz azaldu zuen lehorketaren ondorengo prozesu osoa: *por encargo del Excelentísimo Señor Don. Fermín de Lasala, Duque de Mandas, el que suscribe formó con fecha 31 de Diciembre de 1883, un plano para la urbanización de los terrenos del Molinao. Anteriormente a este proyecto, existía un depósito contra la carretera, con el objeto de recoger las aguas de la regata de hacia Alza. A este depósito se dirigían también las aguas de la ribera que estaban en su inmediación.*

En virtud del trazado del terreno que se dividió en manzanas con sus correspondientes calles espaciosas, se sustituyó el referido depósito con otro para los mismos objetos, y que está marcado en el mencionado plano de 1883. Este nuevo depósito es muy capaz, como se ha comprobado hasta ahora, para contener todas las aguas que afluyen a él.

La manzana G del plano, así como todas las demás, hasta que se vendieron por el Sr. Lasala, han tenido zurcos, por los cuales se han conducido las aguas a este nuevo depósito. El 24 de febrero de 1885 compró Doña Ygnacia Minondo la mayor parte de la manzana G y como se han dejado los zurcos sin el cuidado indispensable de

Tokiko leku-izene-kin eta inguruko herrien izenekin batera, Lasala sendiari lotutako izenak biltzen ziren Antxoko lehen kale izendegian. Pasaiaiko Udal Artxiboa: 306-21. Pasaiaiko Udal Artxiboa: 306-21.

Antxoko elizaren eraikuntzak Antxo bezalako lur biguin batean eraikitzeke zailtasunen berri ematen digu. 1896ko ekaineko eskrituretan, Mandasko Dukeak lur bat laga zuen Lasala auzoan (udalak Antxo deitu zion), eliza eraikitzeke, *Santa Cristina, Ventosilla eta San Sebastian* kale zaharren artean. Antxok jada 1.000 biztanle zituen, eta udalak eskatu zien jesuitei



Loiolatik kendu zituzten euskal Santu eta Birjinen irajakinak lagatzeko. Alabaina, 1897an, elizaren zati bat hondoratu eta lanak geratu egin ziren.

Ez obraren zuzendaria zen Osinaldek ez

Goikoa arkitekto donostiar ospetsuak ez zuten istripuaren erantzukizuna hartu nahi izan. Goikoak, besteak beste,

Aldundiaren Jauregia (1879-1885), Amarako eskolak (1893) eta Polloeko hilerria (1876-1878) egin zituen.

*Pasaia*ko Udal Artxiboa: P-043.



limpiarlos con alguna frecuencia, resulta que se han rellenado de tierra y por consiguiente no es posible sanear el terreno, sino se reponen los zurcos que han desaparecido. Otra de las causas de que constantemente [esté] inundada la manzana G, es tam[bién] por las aguas que por filtración de la carretera, van a ese terreno, de una propiedad, que pudiendo evitar ese perjuicio, tiene cortado el malecón y por cuya abertura pasa una gran cantidad de agua y están en continua inundacion los terrenos de su inmediacion, que son las manzanas B, G y H en las partes que no se han edificado.

Por esta última causa que se acaba de mencionar, se inundaba también la manzana F, y con el objeto de sanearla, los señores Lasala y Lojendio, dueños de la misma, ejecutaron el año 1891 el terraplén, en 7.208 metros superficiales el 1º y en 1.627 el 2º, consiguiendo con esta operación que hicieron por voluntad propia, tener en un estado satisfactorio y seco, toda la referida manzana y calles contiguas hasta su eje.

Tambien los señores don Eustasio Olasagasti y don Benito Olasagasti, han terraplenado sus correspondientes propiedades sin que nadie les haya obligado a hacer esa operación que indudablemente favorece y le da mayor valor a la finca (...)

Ninguno de los propietarios que han edificado y muchos de ellos con sótanos, se han quejado de haber tenido inundaciones, pues es regular y obligatorio que cada propietario cuide su finca con las condiciones que exige su clase y situación, para su buena conservación.

Etxeen, mendiaren, itsasoaren eta industriaren arteko elkarbizitzak hainbat arazo sortu zituen. Erreklamazio edo kezka asko zeuden, zamalanan ondorioz, esaterako, oinezkoentzako alderdiak eta igarobideak erabili ezinik geratzen zirelako. Horrez gain, bizitegi guneen erdian zeuden urmael handiek makina bat buruhauste sortu zuen bizilagunen artean: bertan pilatutako hondakinen ondorioz, urari kiratsa zerion, eta udalak ezin zituen putzu horiek erosi eta garbitu.

Arestian aipatutako dokumentuan, Osinaldek depositu deitzen duena, 1910. urteaz geroztik, "istil" gisa azaltzen da udal aktetan. Bi aukera zeuden: eremua bete edo irekita utzi, eta azkenean, zati bat betetzea eta plaza bat egiteko lurra lortzeko Mandasko Dukearekin negoziatzea erabaki zuen. 1914. eta 1915. urteetan etengabe eztabaidatu zuten gai horren inguruan, mareen ondorioz oso zaila baitzen eremua garbitzea.

1915. urtearen bukaeran, arazoa konpondu nahian, eremua garbitu, konpondu eta sifoiak eta parrillak jarri ziren, baina dirudienez, ez zen nahikoa izan, eta 1916ko uztailean, udalak jabeei jakinarazi zien gogaituta zegoe-la adostasun faltarengatik eta Osasun sailetik behin eta



Istilaz gain, topoa ikus dezakegu. Topoak, bere arku bereziekin, arrastoa utzi du gure herriko hiri-bilbean. 1910eko apirilean, Mandasko Dukearekin negoziatu zuten: Antxon geltoki bat egiteko lurra lagatzeko eskatu zioten. Proiektuak protestak eragin zituen zubiaren ondoko etxeetako jabeen artean, eta eztabaida piztu zen zinegotzien artean eta udalaren eta topoko Konpainiaren artean. Bi erakundeen artean tirabirak izan arren, topoak lehen bidaia egin zuen 1912ko abenduaren 14an²⁹.

Topoko zubiaren arkuek negozioak erakarri zituzten. Hala, 1917. eta 1945. urteen artean, erabilera hauek izan zituzten arkuek: Tailerrak, goardia zibila-ren ostatua, gurdiak uzteko lekua, terraza eta eguzki-ohialak kafetegirako, ikaztegia, iragarki-euskarria, zakarrerria salerosketa, galdategia, iturgindegia... eta baita barrakak ere, askotan baimenik ez zutenak.

berriro jasotako salaketengatik. Jatorrizko proiektuaren arabera, istilak euri-urak bildu eta marearen igoera arindu behar zituen, baina, egia esan, herri osoko ur beltzak jasotzen zituen komun handi bat zen.


Saneamendu osorako azterlanen arduraduna Sarasola ingeniaria zen, baina aurrerapenak motelak ziren eta Gobernadore probintzialaren haserrea eragin zuten. Esan dugun bezala, hainbat iritzi zeuden istila lehortzearen egokitasunari buruz. Biztanleak itsasgoraren beldur ziren. Haien ustez, itsasgora istilaren bidez arintzen ez bazen, beste kalte batzuk eragingo zituen. Horregatik, ezinbestekoa zen depositua herrigunetik aldentutako mutur batera lekualdatzea edo hodi-biltzaile handi bat egitea. Azkenean, istila saneatzeko oinarriak 1918ko uztaillean aurkeztu ziren. Lanak eta betelana 1924an amaitu ziren, eta paduraren azaleraren hiru laurdenak lehortu ziren, 3.334 metro koadrotik gora, Gaiztarro arkitektoaren neurketen arabera. Jabetza hori udalak erosi zuen 1926ko abuztuan, Antxoko plaza egiteko. Plaza 1928. urtean amaitu zen eta Recorba eta Ventosilla kaleen izenak aldatu ziren. Izen horiek Lasalatarrek Espainian zituzten jabetza batzuenak dira^x.



Antxoko plaza eta azoka eraiki baino lehen, itzelezko saneamendu-lanak burutu behar izan ziren. Lan horiek luze jo zuten, baina antxotarren bizi baldintzak hobetzeko ezinbestekoak ziren. *Pasaia*ko Udal Artxiboa: P-005.


X - Horixe da Erregearen Agindu batek diona. Agindu horrek baime-na ematen zion Fermin Lasala Colladori Duero ibaitik ura hartzeko, *Recorba* izeneko barrutia eta *Ventosilla* izeneko larrea ureztatzeko. *Gaceta de Madrid*. 269 zk. 1858/09/26.

Trintxerpeko kaiak
eraiki ahala,
Herrerako padura
betetzen da. Esparru
berri horretan enpre-
sa ugari kokatzen da,
ordura arte ura
zen esparruan
hain zuzen ere.
Pasaiaiko Udala
Artxiboa: 592-10.




Lehen arazoa 1904an Herrerako hondartza lehortearen eta bertako hazkunde industrialaren ondorio zen. 1924ko maiatzean, ordea, ezin zen San Pedrora zihoan

68 |



Ura bideratzeko asmoz marraztutako plano honetan Donemiliagako Markesaren jabeak agertzen dira. Donemiliagatarrei esker, badia Erdi Aroko leinu handiekin lotu genezake. Illunbeko Miguel Zapirainek, berri, XX. mendearen hasierako baserriarren berri ematen digu. Ciriza edo Ziganda bezalako enpresariak edo Gomistegi erreka inguruko etxe berriak, ordea, industria aroaren indarra ekartzen digute gogora. *Pasaiako Udaltzartxiboa: 306-2; Gipuzkoako Agiritegi Orokorra – (Tolosa): JD IT 1800-6998.*



hartuta, kopurua handi samarra izango zen), eta esan zuen murr bat egiteko aukera aztertuko zuela hondar horiek eta beste sustantzia batzuk iragazteko eta marea-aren igoera eta jaitsiera ahalbidetzeko.

Azkenean, hustubidearen arazoa eta infekzio-fokua behin betiko desagerrarazteko, estolderia eraginkor bat jarri behar izan zuten kale osoan zehar, 1925eko azaroan *Felix Agirregabiria y Compañía* enpresak bere eraikuntzak saneatzeko aurkeztu zuen proposamena kontuan hartuta.

2.5 “... gure etxeak zure fabriken ondoan egin zenituen...”

Hamarretxetan sotoak egoteak esan nahi du, garai hartan jada, etxebizitzak eta lokal industrialak uztartzen zirela. Sustatzaileek ez dirudi dualtasun horri uko egin nahi ziotenik, aitzitik, errentagarria zen beraientzat. Azkenean, udalak hainbat debeku jarri behar izan zituen, fabrikak ugaritzen ari zirelako eta geroz eta zailagoa zelako etxebizitza bat eskuratzea.

Bigarren arazoa Seroaneko Markesaren padura zen. Errepidearen ondoan, urmael hori askotan azaltzen da hemezortzigarren mendeko eta aurreko mendeetako mapetan. Bertan, itsasontziak ur gezaz hornitzen ziren garai batean. Markesak gobernatzen zuen ingurune eder, garbi eta berdean, Salinas jauregia zegoen eta baita putzu handi hori ere. 1924an, kexak izan ziren paduraren egoera txarra zela-eta. Padura Araneder baserriaren eta Salinas jauregiaren lurren artean zegoen, hau da, egungo Arrandegi kalearen bukaeran eta Gudari Plazaaren artean. Seoanek arrain-hondarrei egotzi zien usain txarra egotearen errua (arrandegitik zetozela kontuan

Horixe gertatu zen 1930eko azaroan, udalbatzak Louis Saint Yoursen eskaera aztertu zuenean: Eskatzaileak zerrategi mekaniko bat eta egur biltegiak jarri nahi zituen Victorio Luzuriagari erositako 3.687,63 metro koadroko lur batean, baina udal araudia kontuan hartuta, konpromiso hau hartu zuen: *se compromete a construir sobre una parte de los talleres una casa de ocho habitaciones con un frente de 27 metros por 15 de alto, que da a la calle de Alza, siendo el muro de la fachada que da a la calle de Rentería de 5 metros de altura; que el resto del terreno que confina con la Sociedad de Petróleos, con el canal y con la calle de Alza lo*



Trintxerpeko gogoa ezabatzeke asmoz, frankistek izen berri bat ezarri zioten auzoari, Nuestra Señora del Carmen, hain zuzen ere. Horrela egin zuten, ezabatu eta ezarri, barrutiko etxerik esanguratsuenaren fatxadaren bertan. Pasaiaiko Portuko Agintaritzaren argazki-artxiboa.

cercará con madera o tabique hasta la altura de 2 metros, utilizando como almacenes para agrandar los talleres o venderlo por entero o en parcelas para viviendas o industrias sin la menor obligación para los nuevos propietarios o para él a construir casas viviendas si no les conviniere.


Alkateak biltegien eraikuntzarekin etxebizitzetarako lurra falta zela berretsi zuen: *no hay que poner dificultades para la instalación de una industria, porque es la vida de un pueblo que atrae gente que obliga luego a la construcción de viviendas y al poner inconvenientes, los propietarios del terreno cercan o ballan sirviéndoles de almacén, sin que haya modo de obligar a que construyan viviendas, quedando así por tiempo indefinido, cosa que a todo trance hay que evitarlo.*

Egia da fabrikak eta etxebizitzak leku berean egonda ia ezinezkoa zela bereiztea eremu pertsonala eta eremu pribatua. Eta egia da, era berean, industria pasaiatar gehiena ez dela, hain zuzen ere, arina eta garbia izan. Bizi-baldintza pertsonal eta profesional horiek, ordea, kultura sozial eta politiko bat sortu zuten³⁰. Argi eta garbi ikus dezakegu hori Gerra Zibilean eta baita aurre-

ko urteetan ere. Baina borroka sindikalaz gain, gizarte pasaiatarraren indarraren lekuko dira elkarteen oparotasuna³¹ eta baita zenbait administrazio eta aisialdi azpiegitura ere. Soziabilitate eremu horiek, azken finean, erakusten dute populazioaren hazkundera, batetik, eta biztanleen bizitza fabrikaz haraindi, bestetik.

Bestalde, ontzigintzak eta industria astunak, merkataritza eta alturako arrantzak langileen beharra zuten. Hemeretzigarren mendeko kapitalismo horretan, sustatzaile industrial batzuek bateratu egin zuten kapitalismoa eta paternalismoa, nagusia eta aita figura bakar batean. Horiek horrela, 1928. urtearen hasieran, Antxoko kaleen izenekin batera, San Pedroko kale guztien izenak aldatzea proposatu zuten udalean. Hala, egun Euskadi Etorbidea dena Francisco Andonaegi zen eta egun Arrandegi kalea dena Pescadería³². Aurretik, 1923an, udalak plaka esmalteztatuak jarri zituen kaleen izenekin eta atarien zenbakiekin, kaleak ordenatzeko eta bateratzeko.


Andonaegi armadoreak sustatutako etxebizitzak funtzio bikoitz horren lekuko dira. Arnaobidao baserriaren eta San Pedoren artean zegoen errepedearen zati bat



Izotz-fabrika.
1925ean Elizalde
arkitektoak Cipriano
Augerentz
diseinaturat.
Pasaia Udal
Artxiboa. 863-28

Andonaegi kalea deitzen zen, harik eta faxistek General Mola izena jarri zioten arte. Baserri hori Bidebietako gasolindegia-telefonikako eraikinaren inguruan zegoen. Andonaegik hainbat etxebizitza egin zituen bere langileentzat. Nolanahi ere, garai hartan nahiko ohikoa zen enpresaburuek langileentzako etxebizitzak sustatzea industriaguneen ondoan edo barruan; izan ere, besteak beste, Mercader – Londaiz sozietateak etxebizitza bikoitz bat egin zuen 1909an petrolio fabrikako langileentzat. Eta gauza bera egin zuten Cirizak edo Zigandak. Dena den, gure ustez Andonaegiren adibidea da adierazgarriena, bai bere bolumenagatik bai duen garrantzi sozialagatik. Enpresaburu horrek³³ etxebizitzak egiteko aurkeztu zituen planoei buruzko lehen aipamena 1923 urtarrilekoa dugu. Bost etxebizitza ziren, dudarik gabe, Trintxerpeko nagusiak. Plano horiekin batera, ur-hartuneari buruzko eskaera aurkeztu zuen. Geroago, 1927ko urriaren 20an, multzo hauen bizigarritasuna eskatu zuen: Trintxeralde –ur-hartuneak 1921. urteaz geroztik baimenduta egon arren–, Trintxeraurre (1937) eta Trintxer-bide (1940). Guztiak ere instalazio industrial berrien aurretik.

Aldi berean, estolderia trazatu zen Azkuene baserritik San Pedrorantz (1926) eta Agirregabiria anaiek egungo Arrandegi kalearen eta Gurarien Plazaren arteko zatia eta Arrandegi kalearen goialdea egin zuten (bizigarritasun



Etxe berria
Urangarentzat,
Donibanen 1931.
urtean. Etxe berriak
Pasaia osoan zehar
hedatzen dira
hamarkada hauetan.
Pasaia Udal
Artxiboa 992-8.



Udalerriak asoziazionismo handia du bereizgarri³⁴. Kirol eta kultura elkarteak, dudarik gabe, soziabilitate tresna garrantzitsuak dira.

Antxoko “La Armonía” elkarteak, esaterako, 1893an sortu zen. Donostiara ez den Probintziako elkarerik zaharrena da³⁵. Hasiera batean, ongintza eta laguntza elkarteak zen, bazkide asko baliabiderik gabeko langile pasaiatarrak zirelako. Elkarrekin asetu egiten zituen udalak zuzenean bere gain hartu ezin zituen betebeharrak, eta baita gastuak ere. Edo horixe da, behintzat, 1899ko otsailaren diru-laguntza eskaera diotena.

“La Armonía” elkarteak oinarri hartuta, garapenari esker, sozietate asko sortu ziren Gerra Zibila hasi aurretik.

“Sociedad Pasaitarra” elkarteak (1904ko ekainak 18 inguruan deuseztatu zen) edo Gure Kayola (1905) elkarteak izan ziren lehenak. Gerora, Antxoko “Unión Artesana” (1931ko abenduaren 7an deuseztatu zen) eta Lore Xorta (1931ko uztailaren 13ko akta) sortu ziren, eta San Pedron, San Pedrotarra (1925eko azaroak 5), Gure Txokoa (1933ko urriak 24) edo “Piña Kurdin” (1934ko ekainak 12).

Gerra Zibilaren ondoren, Antxon, besteak beste, elkarte hauek zeuden: “Club 33” (1949-I-31), xake eta ping-pong txapelketak antolatzen zituen, Galeperria ehiza eta arrantza elkarteak (1949-X-10) edo Arkupe (1953-VII-6).

Musikari lotuta, hortxe dugu Donibaneko “Constancia” banda, Gipuzkoako bandarik zaharrena, 1813koa, Antxoko “Musical Pasaitarra” (1910), “Sociedad Musical Independiente” (1914), Antxokoa hori ere, “Reunión Artesana Artístico Musical” (1915) edo “Sociedad Musical Pasaitarra” (1925).


Hain zuzen ere, bandetako kontzertuak entzuteko, kioskoak daude oraindik ere. Hala ere, kioskoak ez dira hain zaharrak. Kioskoei buruzko lehen aipamenak Antxon 1906ko uztaila-koak dira, eta berriro aipatzen dira bi hamarkada geroago, merkatua bezalaxe, istilaren lehorketaren harira. Era berean, jakin badakigu Donibanen behin-behineko kiosko bat zegoela 1909. urtearen inguruan, eta behin-betiko bat eraiki nahi zela. 1911n amaitu zen behin betikoa.

San Pedron, pilotalekuko lanetan sobratutako harriarekin eraiki zuten kioskoa 1925eko irailaren eta 1926ko martxoaren artean. Beraz, kioskoaren eraikuntza ez zen aurreikusi, eta garai hartako moda kontuan hartuta egin zen: *El Sr. Odriozola hace presente que en las obras llevadas a cabo en el frontón de San Pedro ha sobrado piedra más que suficiente para montar un kiosko para la música que ha de tocar quincenalmente, por cuyo motivo solicita su construcción, ya que el coste ha de ser de poca monta*. Baranda Luzuriagan forjatu zen. Donibaneko kioskoa berritzeko lanak 1933koak dira eta Sergio Murua Izari esleitu zitzaizkion.

Andonaegik
eraikitako etxeak
Araneder errekararen
albotik hazi ziren.
Iñaki Berrio.



XI - Askotan uste izan da *La Armonía* elkarteak, Donostiako *Unión Artesana* elkartearekin batera, Gipuzkoako elkarerik zaharrena dela. Alabaina, 23 urte horietan, beste herri elkarte batzuk sortu ziren, besteak beste, 1857. urte inguruko *La Fraternal* aitzindaria, *Unión Artesana* elkartearen hazia izan zena. Beharbada, akats horrek 1873an Donostian izen bereko elkarte bat sortu izanarekin du zerikusia. Nolanahi ere, Antxoko *La Armonía* elkarteak da, *Unión Artesana* elkartearekin batera, oraindik ere irekita dagoen elkarerik zaharrena. Bestalde, Yarzakan esan zuen lehenago *Los Amigos del Norte* elkarteak zegoela, 1892an deuseztatu zena. Vid. YARZA, 141. orria.




Iñaki Berrio.

Gipuzkoako
Agiritegi Orokorra
(Tolosa): JD IT
1800-6998

eskaera 1935ean egin zuten). 1931ean, kale nagusian, esaterako, Zigandak sustatu eta Gaiztarrok diseinatutako etxeak eraiki ziren, Artola-Eneatik^{XII} Illunberantz. Hala, espaloi batean, lerroan jarrita, etxeak zeuden, eta, aurrean, era guztietako instalazio industrialak: Lasa eta egur konpainia, besteak beste.

Data horiei erreparatuta, galdera bat datorkigu burura: lehen emigratzaileen uholdea 1920. urtea baino lehen iritsi bazen Pasaiara, non kokatu ziren Trintxerpeko etxeak eraiki arte? ontzietan? barrakoietan? gela komunetan pilatuta? etxera itzultzen al ziren marea amaitu ondoren? Bien bitartean, etxe egokien gabeziak ezinegon eta eragozpenak eragiten zituen. Horren lekuko da Francisco Casalek 1923ko azaroan aurkeztutako eskaera. Casalek hitza hartu eta udalbatzaren aurrean salatu zuen, lehenik eta behin, oinarritzko jakiak garestiak zirela eta edozein langilek ezin zuela familia mantendu eta, bigarrenik, alokairuak eta, batez ere, berrakuratzak bat-batean igo zirela eta etxeak egoera txarrean zeudela. Zinegoztiei proposatu zien batzorde bat osatzeko, eta bere etxea eskaini zuen bizigarritasun baldintzak ikusteko. Udalbatzak ez zuen onartu Casalaren eskaera. Se trata, obviamente, del actual conservatorio, que la familia posteriormente legó al municipio para usos culturales. La propiedad de Andonaegi se completaba con la casa del guardia, detrás de la iglesia, con una avenida arbolada, un exten-




Fausto Gaiztarrok
Zigandarentzat
diseinatutako
etxeak, egungo
Euskadi Etorbidean.
Pasaiako Udal
Artxiboa. 970-22.


so jardín, frutales y otros árboles si no exóticos si al menos diferentes (palmeras) e instalaciones deportivas, como un campo de tenis.

Andonaegik sustatutako etxeak ezin hobeki erakusten dute gizartearen zatiketa klasista eta hierarkikoa. Besterik gabe, gainera. Hala, langile eta arrantzaleen etxeek gain, beste etxebizitza mota bat dago, bestelako dimentsio sozial eta espaziala duena. Etxeaz, edo txaletaz (garaiko

XII - Jaizkibel kalearen eta Euskadi Etorbidearen artean, izkinan dagoen etxea izango litzateke, 1918an eraikitakoa.




Lertxundirena, San Pedron. PUA: 983-1.




Etxarriren destilategia, diska-fabrikaren ondoan. Antxon. Setien. PUA: 188-57.



Camararenak, Donibanen. Zendoia, 1918. PUA: 961-10.




Ciriza, Trintxerpen. Lete, 1925. PUA: 970-25.




Augerena, Trintxerpen. Elizalde, 1932. PUA: 863-31.



Agirregabiriarenak, Trintxerpen. Elgarresta, 1929. PUA: 759-10.



Andonaegiren etxea eta biltegiak, Trintxerpen. Setien, 1925. PUA: 809-6.



Lasa eta Yeregiren ateliei eta etxeak, Donibanen. Setien, 1932. PUA: 982-10.


Ziganda, Andonaegi eta bestelako enpresarioek bultzatu etxeekin batera, San Pedroko Lertxundirena edo Arratibelena, Irisarrirena Donibanen, Roldanena edo Beltranena Antxon... denak sasoi berekoak dira eta prozesu bera ilustratzen dute. Antxo bete ondoren, eraikuntzak Trintxerpen hasiko ziren. Etxe hauek guztiak izen handiko arkitektoek sinatu zituzten, Gipuzkoan eraikin ikusgarri eta garrantzitsu asko egin zituzten arkitekto berberak. Elgarresta, Setien, Alday anaiak, Gaiztarrotarrak, Eizagirre...



Agirregabiriarenak, Trintxerpen. Elgarresta, 1930. PUA: 759-9.




Lasa eta Yeregiren atelier eta etxeak, Donibanen. Setien, 1932. PUA: 982-10.




Balenziagarena. F. Gaiztarro, 1924. PUA: 939-14.




Artola-enea, San Pedro. Setien, 1925. PUA: 848-1.



Arozenarena. Zendoia, 1919. AMP-PUA: 832-12.



Azkuene + Artolaenea, Trintxerpen. PUA: 970-25.




Leizeagarena, Antxon. Elgarresta, 1923. PUA: 982-15.



Roldanena, Antxon. F. Gaiztarro, 1928. PUA: 987-10.

Horrez gain,
 Andonaegik beste
 ondare bat utzi zion
 Pasaia. Eraiki
 zituen etxeei izena
 jartzeko orduan,
 Trintxer eta Trintxer-
 berri hartu zituen
 kontuan. Beraz,
 Trintxeraurre,
 Trintxer-bide eta
 Trintxeralde etxebizi-
 tza multzoek
 Andonaegiren etxebi-
 zitzari zor diote beren
 izena. Egun, errotu-
 luak irakur daitezke
 fatxadetan. Badago
 beste etxebizitza mul-
 tzo bat, auzo berriari
 izena ematen diona,
 hain zuzen ere,
 Trintxer eta Trintxer-
 berri azpian dagoen
 Trintxer-pe izenekoa,
 ordura arte Herrerako
 badiaren eta hondar-
 tzaren zatia zena.
 Hala ere, faxistek,
 euskarazko erreferen-
 tziak eta, kasu horre-
 tan, bertako memoria
 ezabatu nahian, alda-
 tu egin zuten
 Trintxerpe etxeko
 fatxadaren izena eta
 Nuestra Señora del
 Carmen jarri zioten.
 Horrela, zigortzeaz
 gain, lekua eta berta-
 ko biztanleak berriro
 fundatzen, bataiatzen
 eta kristautzen
 saiatu ziren.

*Archivo Municipal
 de Pasaia –
 Pasaia Udal
 Artxiboa: 809-5.*



hizkera eta Andonaegiren beraren hizkera erabiliz gero) ari gara. Aipatutako etxez gain, enpresaburuak bere etxebizitza eraiki zuen bere langileen etxebizitzaren ondoan. Ondoan, baina beste estilo batekin, beste ingurune batekin eta haietatik nahiko bereizirik. Andonaegik egin zuen lehen eraikinak bertako lehen baserria ordezkatu zuen: Trintxer, hain zuzen ere portuan kokatu ziren Erdi Aroko familia garrantzitsuenena izan ez zen bakarra. Hasiera batean, baserri planta zuen Trintxerberri izeneko eraikin berri bat egin zuten (1923an edo lehenago bukatu zuten). Arrazoi pertsonalak bultzatuta, ordea, bigarren eraikin bat egin zuen enpresaburuak. Estilo neoeuskaldunaren kutsua badu ere, osagai berriak ditu, hala nola, beirate handiak, barruko eskailera dotorea eta terraza eta begiratokia, dorre formakoa.

Familiak udalerriri utzi zion kultura-erabilerak emateko baldintzapean, eta egun, kontserbatorioa da. Guard-

txea ere Andonaegirena zen. Elizaren atzean zegoen eta zuhaitzez betetako etorbide bat, lorategi handi bat, fruta-arbolak, palmondoak eta tenis-zelai bat zituen.

Izan ere, erabilera eta xede jakinak zituzten eraikin berriak behar ziren, etengabe ugaltzen ari ziren biztanleen beharrak asetzeko. Udal dokumentazio grafikoa ikusi baino ez dugu egin behar: horietako instalazio batzuen bilakaera azkarrak adierazten du biztanle kopurua eta jarduerak etengabe hazten ari zirela. Garapen hori azaltzeko lehenik eta behin bizitzari eta heriotzari lotutako ekipamenduak aukeratu ditugu: elikadura (hilegiak eta azoka), harraskak eta hilerriak; ondoren, pertsonen sozializaziori lotutakoak: laguntza (babes-etxea); eskolak; eliza; sarbide berriak; eta, azkenik, aisialdiarekin zerikusia dutenak: museoa, pilotalekuak, Alabortza eta zinea.

San Millango Markesaren ondasuna ez bezala. Azken honen ondasunak Erdi Aroan zuen jatorria eta Probin-tziako handienetakoa zen. Dena den, biak izan zuten eragina hogeigarren mendeko Pasaian. Horiekin batera, Seoaneko Markesa, Ferreren oinordekoa, dugu inguru-ko beste jabea.

Joaquin Maria Ferrerek³⁵, 1818an, Zamatete erosi zuen, eta 1821ean, Rober – Etxeberria – Salinas familiarena, Villalcazarreko Dukearena izan zen Salinas jauregia³⁶. Erdi Aroko kutsuarekin, harresi handiekin eta lorategi edo baratze mailakatuekin, portuko ia irudi guztietan azaltzen da, eta koadroren batean hiru edo lau solairu zituela ikus daiteke.

Hemeretzigarren mendeko gerren ondorioz oso egoera txarrean geratu zen. Soldadu portugaldarrentzako ospitale izan zen 1814an eta kanpainakoa azken karlistadan, eta lehen karlistada amaitu zenean, berreraiki behar izan zuten 1850ean³⁷. Gerra Zibilean, ordea, errepublikanoen egoitza izan zen. 50. hamarkadan, berriz, auzokoek osasun-laguntza jasotzen zuten bertan musutruk, herritik kanpo etorritako sendagileei esker: hortzak ateratzea, esate baterako. Katekesia ere bertan eman zen.

Gero Velasco familiaren esku geratu zen eta, azkenean, 1966an eraitsi zuten eskola nautikoa egiteko.

Bi argazki hauetan agertzen den jauregia da interesatzen zaiguna. Moztuta, handituta,... batean jauregiarekin batera agertzen den harresiak ere agertu behar du.

1905ean³⁸, Ferreren oinordeko zen Seoaneko Markesak ondasun hauek zituen finkaren barruan:

- Landetxea: 3.500 oineko jauregia. Beheko solairua, lehen solairua eta bigarren solairua du. Harrizkoa da eta sendoa. Lorategiak, baratzeak, basoa, labore-lurrak eta sagastiak ditu.

- Salinas basetxea: Labore-lurrak, sagastiak eta baratzea ditu.

- Zamatete baserria. Eraikin berria, 828 posturako labore-lurra, baratzea eta sagastiak dituen. 3.400 oin (263 metro koadrotik gora).

Deskribapen horretatik ondoriozta dezakegu Zamateteko baserri zaharra³⁹ eraitsi eta berria egin zutela, argazkikoa hain zuzen ere. Hala, behin betiko desagertu ziren San Pedroren eta Erdi Aroko pertsonaia entzutetsuen arteko harremanak portuaren inguruan. Eta baita mundu zaharra ere, industrialaren mesedetan.



Erabilera eta ingurune industrialak Salinas jauregiaren gunea murriztu zuten. Jauregia 1966. urtean eraitsi zuten.



Ferreren ondasun mordoaren artean Palazio Txikia⁴⁰ aipatzen da, 1848. urteaz geroztik behinik behin. Gure ustez, San Pedron, Erregearen Ontziola inguruan zegoen Portuko Sozietate Nagusiaren egoitza izan zitekeen.

2.6 Pasaia berriaren ekipamenduak

HILTEGIAK

Dudarik gabe, Donibaneko eta San Pedroko hiltegi tradizionalen lanak hiri-garapenaren adibide garbia dira; berrikuntza lanak bat datoz industriaren garapen-hasierako urteekin.


Donibaneko hiltegi berria (1881) San Pedrokoa (1886) baino zaharragoa izan arren, azken hau hamar urteren buruan itxi zen⁴¹.

1887ko apirilaren 21eko erregearen aginduaren kopia, eraikinaren ondoren iritsi zena: *se concede al Ayuntamiento de Pasages de San Pedro la autorización que solicita para ocupar con destino a la construcción de un matadero, el terreno de la zona marítima terrestre situado en dicho puerto y señalado con tinta carmín en las planas del expedientes. Terreno de 126 m2, incluyendo la zona para el nuevo camino de sirga, el cual tendrá 3 metros de ancho, contadas entre los paramentos del zócalo del matadero y la arista exterior de la*


coronación de los muros del muelle y quedará de dominio público. 3º: la rampa existente y que a de lindar por el Oeste con la fachada de éste nombre, del matadero, se salvará con tablonos giratorios o un puente volante de madera. 4º: los muros del muelle se construirán de mampostería concertada con mezcla hidráulica y coronación de sillería sentada también sobre mortero hidráulico. El espesor medio de estos muros no bajará de cuatro décimas de la altura, contada desde la fundación y el de la coronación tampoco bajará de ochenta centímetros.

Baina bere kokapena ez zen ona (Torreatzen zegoen) eta berehala etorri zen gain behera. Batetik, ez zuen ur gezik, ez eraikina ez barrukiak garbitzeko. Bestetik, animaliek San Pedroko kaleetatik pasa behar izaten zuten, eta hori oso arriskutsua zen oinezkoentzat eta bereziki umeentzat, baina baita ganaduarentzat ere: hamar maila zituen harmailadi batetik jaitsi behar izaten zuen nahitaez, eta ondorioz, askotan uretara erortzen zen.

Izan ere, 1906. urtera arte, hiltegia arraindegia zen. Horiek horrela, eraikinaren maizterra zen Lucio Igartza-balek lurra trukatzeko aukera proposatu zion udalari:




Proyecto de matadero en la zona alta de Azkuene, firmado en 1956 por Elizalde. Archivo Municipal de Pasaia – Pasaia Udal Artxiboa: P-033.



1886. urtean Kamiok diseinatutako hiltégia. Pasaia Udal Artxiboa: 303-9.

hiltégiaren orubearen truke, Igartzabalek beste bat eman-go zion, pilotalekutik eta Salbioko ubidetik gertu zegoe-na, eta bertan eraikiko zuen berria. Udalaren gehiengo-a ados egon arren ekimenarekin, eta eraikin berria aurrei-kusitako lekuan egin arren, hiltégi zaharraren lurra ez zen udalarena, itsas zona zelako, eta erabilerari lotuta zegoen, eta beraz, trukea ezinezkoa zen. Ondorioz, gatazka bat sortu zen alderdien artean. Arazoa 1912an konpondu zen, udalak hiltégi berria Igartzabalen oinor-dekoei erosi zienean. Hona hemen eraikin berriaren

deskribapena: es de una sola planta, cerrados sus cuatro lados por muros de mampostería ordinaria, siendo sus fundaciones de mampostería hidráulica, sobre la fachada del Este, se abre la única puerta de entrada al edificio que está coronada por un hueco cerrado con persianas fijas en esta misma fachada, a un lado y otro de la puerta, se abren dos huecos, también cerrados con persianas fijas, y lo mismo se hallan los tres huecos la fachada Sur; sobre los muros se levanta el armazón de la cubierta con una forma intermedia y forrada de tabla, se cubre con



teja plana, la otra parte edificada adosada a la anterior consta también de solo planta aja, siendo en altura mayor que la del matadero y es construcción análoga, no teniendo mas huecos que una puerta de entrada y un hueco circular sobre ella. La cabida total de la finca es de ciento cincuenta y dos metros y noventa y dos decímetros cuadrados, de los cuales hay edificados ciento ocho metros cuadrados, y sin edificar, los restantes.

La parte construida linda por el frente u Oeste con camino vecinal público, por la espalda o Este con el resto del solar por la derecho o el Sur con el camino público y por la izquierda o Norte con la casería número 3 del mismo barrio; y toda la finca linda por su frente o Sur por la derecha saliente u Oeste, con caminos públicos por la espalda o Norte con la casa número 3 y terreno de la regada de la misma y por la izquierda o el Este con la alcantarilla conductora de las aguas, procedentes de la fuente pública de Sableo.

ANTXO

Antxokoa dugu Altzarekin partekatutako beste ekipamenduetako bat. Ekipamendu hori, 1925ean eta geroago ere, garai berrietara egokitu behar izan zuen.



El proyecto comprende dos partes: la primera es la modificación del edificio actual, suprimiendo la parte de cuadra y dividiendo la nave en dos mitades con su puerta independiente de entrada cada una de ellas. Las poleas se dividen montándoles en los sitios correspondientes. Las obras proyectadas en este pabellón comprenden además del cierre de dos puertas y apertura de otras dos, el arreglo con hormigón y caídas suficientes del suelo, construyendo un hormigón de portlan de 10 centímetros de espesor que sea de completa impermeabilidad. Las aguas que provengan de la limpieza del suelo y de los lavaderos de tripas que se establecen en ambas salas, van a parar a dos pozos Mouras de los que saldrán descompuestas para verter en el riachuelo. La separación de las salas se hace de asta entera hasta la altura de 3-00 metros y tanto esta separación como los muros de fachadas se revisten de azulejo blanco, gasto el mas importante de toda la reforma pero que se considera necesario por la idea de limpieza que ha de dar, tan necesaria en estos menesteres.

En completa independencia se construye adosado a la fachada Sur un pabellón destinado a cuadra, cochiguera y quemadero de cerdos. Este edificio será para uso común de ambos municipios, mas debe tenerse en cuenta que su uso no es continuo, que las reses descansan pocas horas antes de ser sacrificadas y que la capacidad de siete vacas y cuatro cerdos es suficiente para las necesidades de ambos ayuntamientos durante algunos años. Con este pabellón se consigue que los animales no conozcan por el olor de sangre que se acerca su sacrificio, cosa que se observa corrientemente y que les pone en un estado que desmerece la calidad de su carne. (21-XII-1923)


HARRASKAK

Garbigailuari guztiz ohituta gauden arren, duela gutxi arte, Pasaian arropa eskuz eta kalean garbitzen zen, erreketan edo harrasketan. Gaur egun ez dago egitura apal horien arrastorik, garai batean behar-beharrezkoak eta ugariak izan arren (Salbio, Torrea, Donibaneko plaza, Erroteta, Molinao, Azkuene, Araneder...); biztanleak gehitzeak eta erosotasun mailak bultzatuta desagertu ziren.

Harraska horiek berritzeko eta eraikitzeko lanak batera egin ziren ura birbanatzeko lanekin eta hiltze-ekin. Hala, 1863. eta 1866. urteen artean, Donibaneko Gazteluko harraska baino ez da aipatzen. 80ko




Aurreko orrian:
1906. urtean
Kamiok berak sinatu
zuen San Pedroko
hiltzeirako plano.
Pasaiko Udal
Artxiboa: 582-5.



Molinaoko hiltzea
zaharberitzeko pla-
noa, ohikoa dugun
Elgarrestaren sina-
durekin.
Pasaiko Udal
Artxiboa: 300-11.

hamarkadatik aurrera, ordea, ekipamendu horri buruzko lan eta eraikin berrien aipamenak ia amaigabeak dira. San Pedro 1886 (iturria baino beharrezkoa dela aipatzen da), Molinao 1891 (egoera txarra), Donibane 1894,



Araneder 1899, berria Donibanen 1907, berria San Pedron 1908-1909, Araneder 1921, Azkuene 1922, lanen amaiera San Pedron 1931... ezin konta ahala lan eta berrizatzek barne, harik eta 50eko hamarkadatik aurre-



1885. urtean Kamiok San Pedroko harraska eraikitzeko aukeratu tokiak bat egingo luke Didier Petit de Meurville-ren marrazki honekin, kanposanturako doan bidearen hasieran.
Pasaiaiko Udal Artxiboa 1794-4.



1903ko plano honek Molinaoko hiltegia eta harraskaren kokapena erakusten du. Hasieran, Molinaoko baserriaren parean zeuden biak; planoan, berriz, harraska berria zubiaren beste aldean agertzen da. Gorago zehazten diren uharkak bai harraskara bai eta etxeetara ere ura eramatea ahalbidertzen zuten. Gainera, uretan arropa garbitzeko balio zuten harlausak zeuden.
Pasaiaiko Udal Artxiboa: 300-22.




ra pixkanaka erabiltzeari utzi zitzaizen arte. Torrekoa eta Bonantzakoak oraindik daude jendearen gogoan; biak iturrien gainean zeuden.


ANTXOKO AZOKA

Harrigarria bada ere, egungo eraikin askok hainbat aurrekari izan dituzte historian zehar, zenbait momentutan sortutako behar berberen emaitza direnak. Batzuetan, gainera, azpiegitura edo eremu mota horiek gorabehera asko izan dituzte. Horren adibide ia paradigmaticoa dugu Pasai Antxoko azoka. Azokaren fatxadari ikus dezakegun moduan, 1928an eraiki zen, baina, lehen saiakerak aurreko bi hamarkadakoak dira: behin betikoa eraiki baino lehen, Antxon hainbat aurrekari izan ziren hogeitertan, 1908tik 1928ra, hain zuzen ere.

Hasierako proiektua udalean aurkeztu zen 1906ko apirilean. Mariano Arrietak eta Pedro Lapazaranez azoka estali bat egin nahi zuten Antxon, bizilagunek beste plaza batzuetara joan beharrik ez izateko: *donde el vecindario pueda hacer las transacciones sin que como hasta la fecha se vea obligada a recurrir a otras plazas para proveerse de las provisiones que hacen falta*. Garai hartan, Arrietak



Trintxerpeko harras-
ka, egungo Azkuene
kalearen hasieran.
Ikuztegi honek auzo
honen garapena isla-
tzen du: biztanle
gehiago eta ondorioz
zerbitzu gehiago.
Pasaiako Udal
Artxiboa: 582-9.



1926an Antxoko
azokarako
Elgarrestak sinatuta-
ko proiektua.
Pasaiako Udal
Artxiboa: 306-10.

eta Lapazaranek honela egin nahi zituzten lanak: *haciendo el relleno de la plaza Viteri al nivel de las rebajas de ambas escuelas y el terreno comprendido entre estas y la iglesia de Ancho; esta obra, añaden, tendrá 10 m. de largo por 4 ½ de ancho y estará sostenida por dos columnas decoradas, armadura de hierro y cubierta de chapas honduladas y galvanizadas.*

Lanak finantzatu ahal izateko, udalari eskatu zioten 12 urtez azokako zergak kobratzeko eskubidea lagatzeko. Epe horretan, azokako mantentze-lanez arduratuko ziren. Behin 12 urte horiek igarota, eraikina udalarena izango zen.

Proposamenak ez zituen guztiz konbentzitu kudeatzailerak, eta hilabete bat geroago esan zuten udalak berak egin zitzakeela lanak eta ez partikular batzuek, “lur nahikoa eta egokia zuelako horretarako”. Hala ere, lurra-
ren betelanak soilik egitea erabaki zuten, Donostia kaleko lurra eta estolderia lanak aprobetxatuta. Lanak, dena den, Lapazarani eta Arrietari esleitu zizkioten, eta, azoka inauguratzeko zorian egon zen, 1908ko ekainaren 27ko aktaren arabera: *haciendo ver que terminadas las obras de construcción de la plaza de mercado de Ancho, ponen a disposición del Ayuntamiento por si se digna acordar su inauguración para el servicio público. La Corporación acuerda que ante todo examine el maestro de obra de referencia y emita en dictamen en el sentido de si reúne o no las condiciones debidas.* Alabaina, hiru urte geroago (1911ko azaroak 19), merkaturik ez zegoela ikusita, Topoaren arkuen azpiko lurrak proposatu zituzten hura jartzeko: *se viene notando en Ancho la falta de una plaza de mercado y que para completar esto, conviene se acomode en los terrenos que existen debajo de los arcos que se han construido para el paso del nuevo ferro-carril; (...) que estos ascienden a once, pero que tanto él (Presidente) como el sr. Miranda se comprometerán a alquilar 2 cada uno, o sean, 4; que con la cuota que se fijará a los que ocupen puestos fijos, con suma facilidad se pagará el alquiler que solicite la Compañía que es dueña de esos terrenos y de esta manera, sin gasto alguno para el Ayuntamiento, tendrá en Ancho la plaza que tanto interesa. (...) acuerda [la Corporación] se dirija un oficio a la Compañía interesándole diga en qué condiciones podrá ceder al Ayuntamiento el terreno que ocupan los 11 arcos, cuyo terreno trata de destinar para plaza de mercado.*

Horren harira, hauxe irakur daiteke 1918ko uztaillean: *que todos los días se nota, que tanto las pescaderas como las verduleras y vendedoras de frutas se reúnen en la acera estorbando el tránsito de personas por no tener un lugar apropiado; y es natural que con el agua que corre ponen aquel lugar completamente sucio. Que para evitar el espectáculo que dan las reunidas, procede a su juicio se acomode sitio propio para la venta formalizando al efecto un mercado en la tejabana que existe cerca de la alhóndiga, para cuyo fin la Comisión de obras, ayudada por los concejales de Ancho, estudiarán la manera de*

reglamentar ese servicio, señalando al propio tiempo el arbitrio que procede para cada puesto fijo que se establezca y demás circunstancias que estime convenientes para la mejor organización del servicio...

Jakina, istila eta aurreko testigantza kontuan hartuta, ez da harritzekoa Antxo osasungarria ez izatea eta tifusa ohikoa izatea. 1918. eta 1919. urteen artean jarri zen martxan behin betiko merkatuaren aurreko proiektua. 1908ko proiektuak ez bezala, plano garaikideek bigarren merkatu horren kokalekuaren berri ematen dute. Elizaren ondoan zegoen, elizaren iparraldean eta eskolen aurrean, hain zuzen ere.

Orduan ez zuten neurriekin asmatu, hasieran aurreikusitako proiektua ez zelako nahikoa. Horregatik, azoka eraikitzen ari ziren bitartean, aurreikusitako 6 postuez gain, 3 gehiago eraikitzea erabaki zuten. Bertan azoka egon zen, horixe egiaztatzen dute postuak jartzeko eta egokitze-lanak egiteko 20ko hamarkadan egindako eskaerak, eta baita 1919ko maiatzean onartu ziren tarifek eta funtzionamendu araudiak ere.

Istila lehertzeko eta saneatzeko proiektuak bidea eman zion beste azoka bat egiteko proiektuari. Gogora dezagun, 1926an, istila udalak eskuratu zuela eta bertan eremu handi bat geratu zela. Hala, 1928an, fruta, barazkiak, arraina eta haragia saltzeko beste azoka bat egitea proposatu zuten, baita egin ere.

Egungo Gernika plazan, bestalde, Trintxerpeko azoka txikia zegoen. Bi sarrera zituen eta postuak teilape baten azpian zeuden. 1946-47. urtean zabaldu zuten, eta Azokako eraikinak ordezkatu zuen berrogei urte geroago.


CEMENTERIOS

Oro har, aktei esker, hileriei buruzko informazio asko topatu dugu XIX. mendearen erdialdeaz geroztik. Jakina, informazio mota hori ugaritu egingo da Pasaiaiko industrializazio eta urbanizazio prozesuak aurrera egin ahala, hazkunde demografikoaren ondorioz geroz eta hilotz gehiago ehortzi behar baitziren.

1877. urte inguruan jada San Pedroko hilerria handitu zuten, eta 1895ean, sarbidea hobetzeko lanak egin zituzten. Baina, esan dugun moduan, biztanle kopurua hazi arte ez zen benetako premiarik egon hilerria egokitzeko. Hala, Pasaia kanposantuei buruzko araudi bat egin zuen 1916an eta San Pedroko hilerria handitu behar izan zuen pixka bat aurrerago, hain zuzen ere, immigrazio-aldirik garrantzistuenarekin bat etorritz. 1917ko aktei erreparatuz gero, ikus daiteke udalak lurrak eskuratu nahi zituela San Pedroko hilerria handitzeko eta sarbideak hobetzeko, bai Trintxer edo illunbe inguruan bai herrigunearen ondoan, eta horretarako, Bista-Eder eta Elizondoko lurrak erosi zituela. Lanetan erabilitako materiala kalitate txarrekoa

Militar ingelezen presentzia portuan karlistadei lotuta dago. Euren hilerria Donibaneko sarreran zegoen, eskolen ondoan. 1936ko gerran faxisten hegazkinek jaukitutako bonbek kanposantu hau jo zuten. Dirudie-nez, udalak monarkia britainarrari laga zion lurra. Horixe da, behintzat, 1857ko marxoan kontsulordeak idatzirik utzi zuena. Nolanahi ere, jakin badakigu udalak txukundu zuela hilerria, garai hartan nahiko hon-datuta baitzegoen sastrakaren eta ganaduaren ondorioz. Hilerria garbitzeko eta txukuntzeko lan horiek, ordea, Gobernu britainiarrak ordaindu zituen. Era berean, leku horretan egin beharreko aldaketak edo lanak Gobernu britainiarraren ikuskapenaren eta baimenaren menpe zeuden. 1887an, esaterako, Pasaia-ko Udalak kontsulordeari proposatu zion hilerria udal fondoekin konpontzea, portura iristen ziren atzerritarrak eta “disi-denteak” lurperatzeko. Atzerriko Negozioen Ministerio britainiarrak proposamena onartu zuen, baldintza batzuk betez gero: *siempre que se comprometa a respetar las sepulturas de los oficiales y soldados de la legión ynglesa allí enterrados y den una garantía de que se conservarán en buen orden y condicion, rodean-dolos si fuera necesario de vna verga, para que los nuevos entierros que se hagan no interfieran con los que están ya en aquel cementerio.*

Ur horniketari buruzkoa bada ere, honako plano honek Donibaneko antzina-ko kanposantua, eli-zaren ondoan era-kusten digu. *Pasaia-ko Udal Artxiboa: 727-2*



izan omen zen, 1922an murru zaharra eraitsi baitzen lur-mugimenduen eraginez.

Ondareari dagokionez, 50eko hamarkadaren hasieran Ferrer familiaren kapera zaharra hilerri-raman zuten.

Lehen, elizaren paretan bermatuta zegoen, ate nagusiaren ondoan. Lekualdatze horrek, argi eta garbi, aginte ordezkapena adierazten du. Izan ere, inork ez daki eraikin hori pasaia-ramar entzutetsu eta beneratu horren oroimenez egin-dakoa dela.

1927tik aurrera
Donibanen ere gor-
puei lurra emateko
tokia leporaino
zegoen. Eliz ondoko
hilerria gainezka
zegoen, nahiz eta
argazkian ondo ikusi
bezala, bere traza ez
izan nolanahikoa.

Dena den, zulo
berriak egin nahian,
nonahi gorpuzkinak
ala harriak altxatzen
zituela esaten zuen
lurperatzaileak
berak.
Toki berriaren bila,
Arrieder izeneko
lekua hautatu zen,
bere kokapena oso
ona baitzen: haize
kontra, iturrietatik
aldenduta, herritik
kilometro batera,
herri bide bat
aldamenean.




Antxon behin baino gehiagotan saiatu zen udala hilerri bat egiten, esaterako 1896an, Londaizen alargunak lur bat eman zionean, edo 1919an. Lurrak erosteko eta hilerria eraikitzeko oinarriak onartu ziren, baina proiektu horiek ez zuten aurrera egin.

BABESETXEA

Sindikatu pasaiatarren indarra ez zen elkartasun tresna bakarra izan bizilagunen artean. Erliziozko erru-
kiak ere aztarna utzi du, baita herriko hirigintzan ere. Concepcion Etxeberria sanpedrotarraren testamentu-
betearazleek sortutako zaharren babes-etxea da horren adibiderik garbiena. Etxeberriak, 1879ko testamentuan, babes-etxe bat fundatu zuen San Pedro kaleko 57. zenbakian zuen etxean, zaharrak zaintzeko: “para recoger y atender a los ancianos y ancianas avecindados en ambos Pasajes”. Egun bada San Pedron berari

eskainitako kale bat, Passaman Alargunaren kalea hain zuen ere. Oinordekoek Etxeberriaren nahia bete eta babes-
-etxea zabaldu zuten 1884ko abuztuan, Karitateko Alaben ardurapean eta baldintza batzuen menpe beti ere. Eta, Gipuzkoako gizarte aurre-industrialaren ongintza tradi-
zionalaren parametroekin bat etorritz.

Enpresa pasaiatarrari lotutako beste alargun batzuek zuzenean hartu zuten parte babes-etxearen hobekuntzan eta hazkundean, gizarte viktoriarra gogora ekarriz. Hala, Londaizen alarguna zen Cesarea Garbuno Arizmendik babes-etxerako laga zion Insaustiren alarguna zen Ramona Arriolari Alloko lurren ondoko lursail baten erabile-
ra lehenik, eta jabetza, geroago. Londaizen alarguna findegia jabea zen eta bere abizenetan eta ezkontzan Ooreretako lihogintzaren hiru izen nagusi daude. Insaustiren alarguna, bestalde, Passaman Fundazioaren administrazioa zen.



Hiru alargunek kudeatzen dute zaharren etxea; hiruak industrial ospetsuen emazte izandakoak eta negozioetan ondo baino hobeto trebatuak: Passamanen alargun Concepcion Etxeberria, Londaizen alargun Cesarea Garbuno, Insaustiren alargun Ramona Arriola. Bi hauen sinadura ikusten da egoitzari buruzko agiri honetan.

Pasaiaiko Udal Artxiboa: 306-10.

Guerra Zibilaren ondoren, fundazio errukiorrak bere kudeaketa aldatu zuen, Ramona Arriolak, garai hartako patrioiak, ihes egin baitzuen liskarra hasi zenean. Harrezkero, Donostiako eta Pasaia-ko alkateek eta San Pedroko eta Donibaneko parrokoek osatutako batzorde baten kontu geratu zen, fundatzaileak idatzita utzi zituen arauak kontuan hartuta beti ere. Egia esan, babes-etxearen egoera geroz eta okerragoa zen denborak aurrera egin ahala, eta 1953. urtean, egoera ekonomikoa oso txarra zen. Gipuzkoako ongintza establezimenduen artean zegoen, eta horri esker, Aldundiaren diru-laguntzak eta laguntzak jaso zitzakeen⁴³. Hala ere, 1970ean, ixteko lehen urratsak eman ziren, erlijioso-elkarteak kudeatzeari utzi baitzion. Azkenean, 1973an jada lehen txostenak egin ziren 42. eta 54. zenbakiko etxeei beste erabilera bat emateko.

ESKOLAK⁴⁴


Herriaren izaera industrialak eragina izan zuen heziketa motan. Hori dela-eta, ez zen nekazaritzara bideratutako heziketarik eman, esaterako, baizik eta enpresen kudeaketara eta kontabilitatera, diseinura, marrazketara



eta lanbide heziketara (Arte eta Lanbideak) edo itsasikasketetara zuzendutakoa. Hala ere, kapitulu honetan eskolarik garrantzitsuenak baino ez ditugu aipatu, Pasaia-ko hiri-garapenarekin eta garapen horrek utzitako arrasto fisikoa kontuan hartuta beti ere.

30eko hamarkadan, Trintxerpeko bizilagunek gune irekiak eta eskola bat eskatu zituzten. Bertako bizilagunek eta enpresek udalean salatu zuten aisialdirako lekuri ez zegoela, eta oinezkoak harrapatzeko arriskua zegoela, ez baitzegoen ez plazarik ez tokirik ibilgailuetatik eta lantegietatik babesteko. Salaketarekin batera, eskaera formal bat aurkeztu zuten eskola bat zabaltzeko (1926an, Trinidad Salaberriak 110 haur zituen bere eskola mistoan, eta etxe berriekin –Agirregabiriakoekin, segur aski– haur kopurua handituko zela uste zuen. Eskaera bat ere aurkeztu zuen helduei gau-eskolak emateko).


Udalak hasiera batean emandako irtenbidea ez zen bizilagunen gustukoa izan, gune horiek herriko mutur batean jarri zituelako (dirudienez Gudarien Plaza aldean) eta osasungaitzak eta arriskutsuak zirelako. Bizilagunek

San Pedroko lehen eskolaren eraikina, 1887. urtean Jose Belaunzaranez sinatu planoan. San Pedroko alkate ordetza-aren ondoan, Herriko Plazan. Pasaia-ko Udal Artxiboa: 300-19.





Pedro Biteri Arana
filantropoari esker
Antxoko eskolak
egin ziren



Trintxerpeko
eskolentzako tokia
zehazteak luze jo
zuen; gudak eskola
eraikitzea gehiago
atzeratu zuen.
1933ko Elgarrestaren
fatxada Elizalde
1944. urtean
eguneratu zuen.
Pasaia Udal
Artxiboa.


Illunbe baserriaren lurak proposatu zituzten plaza eta eskola egiteko, leku onean zeudelako, txukun zeudelako eta hirigunetik gertu eta industriagunetik urrun zeudelako. Eskaerarekin batera, sinadurak eta zigiluak aurkeztu zituzten. Udalak kontuan hartu zuen eskaera, eta 1932an, lokal bat egokitu zuen Francisco Andonategi kaleko, egungo Euskadi Etorbideko 9. zenbakiko etxabeetan 160 mutil eta 180 neskarentzat. Udalak, behin betiko irtenbide bat eman nahian, Illunberen ondoko lurak, hau da, Zigandaren lurak aukeratu zituen eraikin berri bat egiteko.

Gerrak, proiektu hori eten zuen, eta eskola berria 1947an inauguratu zen, Nuestra Señora del Carmen deiturapean, Trintxerpe izena ezkatatzeko.



1965ean, lokalak ez ziren nahikoak bertan zeuden 1.000 haurrentzat: geletatik eta mota guztietako eraiki osagarrietatik barreiatuta zeuden, eta ondorioz, handitu egin ziren 70eko hamarkadaren hasieran. Eskola duela gutxi berritu dute.

Biteri filantropoak eskolen sorrera sustatu zuen probintzia osoan zehar. Baita Pasaian ere. Bertan, bi eskola fundatu zituen, Juan Jose Aginaga arkitektoak eraiki-






Bizkaia auzoan, Martiarena-Barranco eta Arizabalo jauregien arteko esparruan era guztietako egiturak eman dira denboran zehar; besteak beste, portzelanazko lantegia eta eskolak. *Pasaia*ko Udal Artxiboa: 1152-27.



1922. urteko eskolak Pedro Gaiztarrok San Pedrorako sinatu egitasmoen artean ditugu. *Pasaia*ko Udal Artxiboa: 300-17.



takoak: bata Donibanen, Bizkaia auzoko industriagunearen barruan (erortzeko zorian 1969an eta eraitsia 1984an); eta bestea, ezagunagoa, Antxon. Donibanekoa jada txiki geratu zen 1935ean, haur kopuruaren hazkundearen ondorioz.

Antxokoak, hasiera batean, baretu egin zituen pixka bat Altzaren eta Antxoren arteko liskarrak. Izan ere, 1897. urteaz geroztik eskolaren kudeaketa partekatu behar zuten eta ez ziren ados jartzen. Horrez gain, kudeaketari dagokionez, eskolaren garapena eta elizarena batera joango ziren beti^{XIII}. Irakaskuntza Batzordeak oinarritzko eskola kopurua lautik bira murriztu nahi zuen irakaskuntzaren kalitatea hobetzeko.

Hala ere, 1932an oraindik haur eskolako lokala berrigailurik ez zuen "lokala edo barraka" zen.

Don Bosco ere Mandasko Dukeak bere testamentuan horrelako eskola bat egiteko borondatean du jatorria.

XIII - Antxoko heziketari dagokionez, Antxoko Historia Mintegia egiten ari den lana aipatu nahi dugu.


San Pedron, bestalde, 1916an eskolaren egoera "penagarria" zen, baina behin betiko eraikina ez zen 1923. edo 1924. urtera arte egin. Eraikin handia da, baina kokalekua dela-eta, nekez ikusten da.

SARBIDE BERRIAK


Antxon topoa-trena-errepidea zeuden, eta hemeretzigarren mendearen bukaeran, Errotetatik sartzea zegoen Donibanera. Trintxerpen, ordea, zirkulazio handiari erantzuteko moduko sarbide bat egin behar zen. Hala, 1889an, Portuko Administrazioari eskatu zitzaion errepide bat egiteko. Errepide hori ireki zenean, ordea, arazo asko egon ziren. Lur-erazketek eta lokatzak kexa asko eragin zituzten Gomistegi eta Salinas arteko zatian 1920ko hamarkadan, 100 urte lehenagoko egoera gogora ekarriz. 1926ko ekainean, etxe berriak eraiki ondoren, San Pedroko bizilagunek eta industrialariak Aldundiari eskatu zioten errepidea, bereziki Uriarte eta Artola-enea arteko zatia konpontzeko. Kontua da Gomistegiko muinoa inguratzen zuen kurba itxia zela eta ezin zela ikusi kontrako norabidean norbait zetorren edo oinezkoren bat errepidea zeharkatzen ari zen.

Lerro zuzen bat trazatu behar zen eta muinoa moztu. Lan horiek errepide nagusiaren zirkulazioa arinduko zuten, batez ere udan, eta ibilgailuak Donostiarantz bideratuko zituzten. Pasaiaiko Udal Artxiboa: 306-19.

PROYECTO DE DESVIACIÓN DE LA CARRETERA — ESCALA 1/100 —



Eskalerillaseko
aterpea 1929koa da.
Pasaiaiko Udal
Artxiboa: P-004.



Hain zuzen ere, Donostiako errepide horretara sar-
tzeak zuen lehentasuna, Salinaseko harri-lubera eraitsi
baitzuten. Horeik horrela, 1879an, bi ertzak lotzeko
zubi bat egitea proposatu zuten, baina, azkenean,
itsas-garraio zerbitzu bat jarri zuten. Zerbitzu horri
gerra arte eutsi zitzaion. Era berean, 1888an eta 1913an,
tranbia herriguneraino iristeko eskatu zuten. Errepide
nagusira ateratzeko beste saiakera bat dugu Eskaleri-
llaseko geralekuaren proiektua, 1929koa^{XIV}.

XIV - Bitxikeria moduan, 1947an eskaera bat jaso zen, geralekuan
fruta, ardoa eta gozokiak saltzeko postu bat jartzeko, baina atzera
bota zuten leku faltarengatik.



Escarioko errepide gisa ezagutzen den proiektuak Hondarribia
eta Donostia kostaldetik lotu eta 50eko hamarkadan gainezka
zegoen errepide nagusiko zirkulazioa arintzen zuen. Badiatik
pasatzeko zubi bat aurreikusten zuen eta San Pedro eta
Trintxerpe goiko auzoekin lotzen zituen. Proiektu hori, udalaren esanetan, alferrikakoa, garestia, arris-
kutsua eta osasungaitza zen. 1955ean esandako hitzak ditugu

horiek. Alkateak ez zion inolako zentzurik ikusten proiektuari,
eta Trintxerpe eta San Pedro hipotekatuko zituela uste zuen.
Aldundiaren erantzuna, behin proiektua baztertuta, oso esan-
guratsua da, jakinarazpenean hauxe erantsi baitzuen: “zorio-
nez zuentzat”.

Pasaiaiko Udal Artxiboa: 693-1

SAN PEDROKO PILOTALEKUA

Beste azpiegituren antzera, San Pedroko pilotalekua eraikitzeko ekimena pribatua izan zen. 1878ko urtarri-laren 10ean eman zuten ekimenaren berri. Udalak ekimena onartu zuen, bizilagunek, bereziki gazteek, leku gutxi zutelako aisialdirako: plaza txiki bat, besterik ez, elizaren ondoan: *la cual además de ser sumamente angosta sirve para recrearse al tamboril la gente en los días festivos y lo que es mas de calle publica pues es continuación de esta y por ella tiene que pasar todo el que al pueblo llega por no tener esta mas de una calle.*


Pilotalekua eraikitzeko Salbio aukeratu zuten, eta Pasaiaiko Portuko Sustapen Sozietateari lur bat erosteko proposamena egin zioten. Sozietateak erantzun zuen ezin zituela 10 urtetik gorako salmentak edo lagapenak egin eta, behar izanez gero, lurraren erabilera eskatuko zuela⁴⁵.

Lur horiez gain, Zamateteko lur zati bat ere behar izan zuten kirol-azpiegitura hori egiteko, eta horrek Seoaneko Markesaren familiaren artean desadostasunak sortu zituen: Seoaneko Markesaren administratzaileak eta Markesak berak iritzi ezberdinak zituzten pilotalekua egiteko Zamatete baserriaren lur batzuk lagatzeari buruz: *si bien dijo que él no [José María Pérez-Caballero] era dueño de dicho terreno sino sola y unicamente administrador de una parte, pues lo tenía proindiviso su señora cuñada, la Excelentísima Señora Marquesa de Seoane y su hija, la señorita doña Sagrario Pérez-Caballero, pero que lo que estaba de su parte no obstruyendo el camino, no tenía inconveniente en cederlo condicionadamente; pero que habiéndose visto después con el Excelentísimo Señor Marqués de Seoane, éste les dijo que no cedería ni como donación ni como venta ni de manera alguna ni una pulgada de terreno perteneciente a su señora, y que por tanto, ya podía el Ayuntamiento ver si podía construir el juego sin llegar a los terrenos de su señora.*

Lanak 1881ean amaitu ziren, ekainaren 12ko aktaren arabera eta frontisean bertan ikus daitekeen moduan, eta material hauek eraili ziren: Kalparrako harrobiko harria, Santa Catalina zubiaren paretik ateratako hondarra eta Ernioko karea.


Pilotalekuak atzeko pareta zuen, eta barrera-aulki batzuk zituen, pilota partidurik ez zegoenean kendu zitezkeenak. Izan ere, nobilladak izaten ziren bertan.

Palan eta zestan jokatzeko egokia zen, baina erabilera aldatuz joan zen denborarekin. Hala, 1924ko azaroan, harmailak eta atzeko pareta eraisteko aukera aztertu zuten. Eraiste material horrekin kalea eta arrapala egingo ziren, Portuko Sozietate Nagusiarekin hitzartutakoarekin bat etorritz. Iritzi desberdinak egon ziren lan horien inguruan: zinegotzi batzuek (Arana) uste zuten atzeko pareta kentzea



1912. urtean Augusto Agirrek diseinatu Antxorako frontoia, eskolen ondoan.
Pasaiaiko Udal Artxiboa: 303-3.

arriskutsua izan zitekeela jokalarientzat: *pues es natural que al recoger la pelota que va a la carretera, bien puede pasar en aquel momento un automóvil o cualquier vehículo, que podría dejarle tendido y sin vida en aquel lugar.*



la Ciudad de San Sebastián, en cumplimiento del encargo conferido en sesión de dos del corriente mes, siendo su contesto literal del tenor siguiente: En desempeño de la comisión conferida por el Ylustre Ayuntamiento del Barrio de San Juan de la villa de Pasages a mi el infraescrito Maestro aprobado, para la medición y tasación del terreno que ocupa la casa de nueva planta que Don Adrian Gasis y otras interesadas están edificando en la parte oriental de la plaza pública de dicha villa confinando por la parte oriental con otra casa nº (blanco), propia de Don Fernando Macazaga y Don Santiago Yrarramendi, por el mediodía con la mar, por el poniente con la misma plaza pública y por el norte con la calle así bien pública, el qual en su totalidad contiene de área setecientos cincuenta y cuatro codos cuadrados de tierras con inclusión del muelle o antepuerta meridional, y la mitad del callejon perteneciente a ambas casas a seis reales el codo, en atención a su localidad que es de las mejoras del pueblo que importan cuatro mil quinientas veinte y cuatro reales vellón, para mejor inteligencia presenté el croquis que he levantado sobre el mismo terreno.

San Sebastián, 9 de julio de 1858

Explicación

- A.** Planta de la casa nueva que están edificando.
- B.** Callejon perteneciente a medias a otra casa nueva y a la de los citados Sres. Macazaga Yrarramendi
- C.** Muelle o antepuerta meridional de la referida casa nueva.

D. Rampa

E. Casa de los espresados Sres. Macazaga y Yrarramendi.

K. Mar.

Así mismo ha reconocido por encargo del mismo Ayuntamiento el paredón del rebote de la plaza pública en el cual está enlosada la casa de nueva planta que se halla construyendo Don Adrián Gasis y demás interesados de esta vecindad a fin de graduar canon a reconocimiento que el citado Ayuntamiento anualmente intenta exigir y soy de parecer que en consideración al remate público y hermoear la caveza de la misma y no haberse abierto ninguna ventana en dicho paredon, podían exigirse cuatro reales de vellón anuales por día del espresado reconocimiento puesto que el relatado paredón queda haciendo el mismo servicio a que está destinado para el público. Fecha ut supra. Osinalde.

El Ayuntamiento enterado del croquis que precede y considerando que hace el periodo de muchos años no se ha construido ninguna casa y que muchas de las que existen se han caído y otras se hallan enteramente inhabitables, y a este paso, de no haber quien construya tampoco ha de haber localidad suficiente para poder acomodarse las gentes de este vecindario, y por otra parte, siendo muy del caso al ornato público la concesión que se pide, no puede menos de concedérsele para que según el experto de la medición que contiene el área del

solar es de setecientos cincuenta y cuatro codos cuadrados con inclusión del muelle o antepuerta meridional y la mitad del callejon perteneciente a las dos casas a los que deducidos los cuatrocientos y diez codos cuadrados comprados a los herederos del finado Don José Feliz de Lataza, queda ahora reducidas a trescientos cuarenta y cuatro codos, también cuadrados, a razón de seis reales cada uno importa su valor a la suma de dos mil sesenta y cuatro reales de vellón, no puede menos que accederse a la pretensión de la referida Doña Estefanía para que construya la casa que apetece y que la relacionada cantidad de las dos mil sesenta y cuatro reales de vellón, se la entregue al Tesorero de propios y arbitrios de esta Villa, Don Juan Fernando Saiz, como tambien los cuatro reales de vellón anuales por vía de reconocimiento del paredón que tiene por frente de la plaza en que se halla enlazada.


Donibaneko pilotalekuei buruzko berri gehienek berrikuntzekin dute zerikusia. Hala ere, 1936ko apirilaren 2ko aktan aipatzen da udalaren lurretan pilotaleku berri bat egiteko aukera. Segur aski, proiektu hori Gerra Zibilaren erruagatik atzeratu zen. Jakin badakigu, behintzat, 1947ko maiatzaren 25ean onartu zela Felix Llanos arkitektoak aurkeztutako proiektua. Baina, 1948ko abuztuan atzera bota zuten beste partida batzuekin batera, gastua gehiegizkoa zelako. Proiektuari 60ko hamarkadaren bukaeran ekin zitzaion berriro, hain zuzen ere 1969ko maiatzaren 19an, baldintza batzuen menpe, Jose Antonio Lizarazu Lekuonak pilotaleku estali bat eta lokalak eraikitzeko prest azaldu zenean: *Se da lectura al escrito que presenta don José Lizarazu Lecuona, vecino de San Sebastián, por el que se compromete a efectuar la construcción de un frontón cubierto y locales bajo el mismo, así como la urbanización correspondiente (...), y a ceder dichas obras, una vez terminadas, a este Ayuntamiento, con la condición de que han de destinarse al servicio público deportivo, reservándose el donante el derecho de revertir a su propiedad las edificaciones en el caso de que no se destinen por el Ayuntamiento al fin expresado.*

ANTXOKO PILOTALEKUA

Antxoko pilotalekua Mariano Arrietari esker egin zuten. 1906ko uztaillean, hauxe esaten zen Arrietari buruz: *intenta construir en terreno de su propiedad un cubierto de 9 m. de largo por 6 de ancho en el que formará un frontón o juego de pelota pequeño, para que los niños de las escuelas puedan recrearse a este juego; que esta misma plaza servirá de entretenimiento a los mayores sin que por su ocupación se exija retribución alguna, puesto que el frontón será público y gratuito; al mismo tiempo, añade, levantará también a sus espensas un kiosko donde se pueda tocar la música los días que crea conveniente. Para lo cual presenta a examen y aprobación del Ayuntamiento el plano levantado al efecto...*

Proiektu hori burutzeko beharrezkoa izan zen Biteri eskolen eta Antxoko plazaren arteko lurrak erostea Mandasko Dukeari (1909ko uztailak 11). Urte batzuk geroago, 1911ko martxoaren 5ean, Dukeak ofizio bat bidali zuen udalera. Ofizio horren arabera, prest zegoen istilean edo ur-deposituan zegoen 1.000 metro koadroko lur bat emateko, erabilera buruzko bermeen truke beti ere, eta baldin eta saneamendu eta estolderia lanak udalaren kontu baldin baziren: *con destino exclusiva y unicamente a plaza pública para el esparcimiento del vecindario. Así nunca, en ningún tiempo se levantará en el expresado solar ninguna construcción, ora definitiva y permanente, ora provisional y temporal, bien de piedra, ladrillo, cemento, hierro madera. En el terreno que donaré podra haber solamente arboles. En cambio de esta cesión gratuita, el Ayuntamiento de Pasages se comprometerá a sanear inmediatamente el resto del depósito y a tenerlo en todo tiempo en buenas condiciones, estableciendo a este fin y desde luego dos trompas que se moverán por sí solas y además una compuerta movable por medio de engranage u otro medio adecuado; y que abierta a voluntad, facilite la operación de las trompas.*

Mandasko Dukeak berak handik gutxira esan zuen lur hori ez zela pilotalekua egiteko; horretarako, beste lur bat eman zuen, 491 metro koadrokoa, "bere planoko F lettran zegoena, Bilboko trenbidearen ondoan, eta Maria Cristina kaleraino zihoana". Plazaren kasuan bezala, lursail berriak erabilera bakarra izango zuen. Udalak lur hori onartu zuen, baina ez zen nahikoa nonbait, eta hasierako kokalekua aldatzea erabaki zuen. Horretarako, lursail horren eta Manuel Mirandaren lursail baten arteko trukea egin zuen. Mirandaren lursaillean planta berriko etxe bat zegoen. Hain zuzen ere etxe hori izan zen arrazoietako bat Pasaiaiko udalak trukea egiteko, etxe horretako ezker pareta frontisa izan zitekeela konturatu baitzen. Hauek izan ziren truke hori egiteko baldintzak: 1.- El Ayuntamiento de esta Villa sugroga (sic) del terreno de 564 metros que le fue cedido por el Excmo. Sr. Duque de Mandas, en la manzana letra F del barrio de Molinao, un trozo de 266 m2 que constituía finca independiente, lindante con la Avenida de María Cristina y lo cede a Don Manuel Miranda. 2.- Don Manuel Miranda cede a su vez al Ayuntamiento de esta Villa el terreno de 360 m2 que posee por título de compra en la referida manzana. 3.- Don Manuel Miranda construirá por cuenta propia, pagante al edificio que proyecta levantar en el terreno que le cede el Ayuntamiento, un frontón destinado a juego de pelota. Este frontón, cuyas medidas y elementos que han de entrar en su construcción se determinarán en un documento suscripto por ambas partes, y que serán los mismos que se detallan en el presupuesto presentado al Ayuntamiento, será de propiedad de la Villa. 4º.- En la referida construcción entrará también el pavimento de dicho frontón. 5º.- El Ayuntamiento abonará a Don Manuel Miranda por la ejecución de las referidas obras, traslado del edificio comenzado en su anterior terreno, al que ahora adquiere este, la suma de siete mil pesetas en la forma que convengan las partes. 6º.- Todo el terreno que el Ayuntamiento adquiere en la manzana letra F indica-



Trintxerpen ere frontoiak eraiki ziren. 1962ko urrian Andonaegiri erosita-ko lurretan frontoi estalia altxatzeko aukera jarri zen mahai gainean. Egitasmo honen diseinatzailea Ricardo Olaran Añibarro dugu, herrian beste lanetan ere ibili zena. 1965eko martxoan lanak abian ziren. Pilotaleku hau Andonaegiko parkearen zati izan zen, ingurune guztia moldatu zen arte. Olaranek estalki laua eta auto-eutsigarria aukeratu zuen, merkea eta berritzailea. Olaranek berak frontoiaren norabidea kasu handiz finkatu zela adierazten zuen. Frontoi berriarekin, ordea, horrelakorik ez zela egin begi-bistakoa da. ten eta bere hautuaren nondik-norakoak azaldu zituen. *Pasaiaiko Udal Artxiboa: 323-1.*

da o sea, lo que anteriormente posee la parte donada por el Señor Duque de Mandas y el trozo que le cede el Señor Miranda se destinarán en todo tiempo a plaza pública sin que pueda edificar en ella bajo ningún concepto. 7º.- El terreno que queda entra lo cedido al Señor Miranda por el Ayuntamiento y el trozo adquirido por el Ferrocarril a la frontera francesa, se destinará a camino para el público que se dirija bien a la calle de San Sebastián o bien a la Avenida de María Cristina. 8º.- Una vez que actual acuerdo haya pasado por todos sus trámites y cualquiera el carácter de firme, se otorgarán las escrituras públicas correspondientes en las que se harán constar los linderos referentes al trozo que cede el Ayuntamiento, precediendo a este efecto a practicar el oportuno trabajo⁴⁶.

Desadostasunak izan ziren zinegotzien artean azpiegitura berri horren erabilgarritasunaren inguruan. Zerbitzu berri baten inguruan Pasaiaiko barrutiek historian zehar izan dituzten berezitasunetako baten lekuko dugu 1911ko ekainaren 3ko akta: *El señor Presidente suplica a los señores concejales expongan su parecer acerca del terreno donde se intenta levantar un frontón en Ancho. El señor Goicoechea contesta que ha estado en el lugar fijado y ha observado que dado caso de que el Ayuntamiento proceda a la compra del terreno para la construcción de un frontón, resultará que*

tiene que invertir mucho dinero y no estando el Ayuntamiento en situación de gastar, no procede a que se compre terreno ni se contruya frontón. El señor Arrillaga, José, a su vez dice que ninguna falta hace en Ancho el frontón y que por lo tanto se opone a que se lleve a cabo una obra de tal naturaleza, donde se ha de invertir sin beneficio una suma de mucha importancia. El señor Salaverria contesta a ambos señores exponiendo que el barrio de Ancho necesita un frontón donde puedan entretenerse los jóvenes, ya que San Juan y San Pedro existen, que atendiendo al número de vecinos que cuenta a la recaudación que obtiene y demás circunstancias, precisa la construcción de un frontón y por lo tanto es de opinión se lleve a cabo esta obra.

Lanek kexak eragin zituzten materialaren kalitate faltarengatik eta bizilagunek lan berriak eskatu zituzten frontisari altuera gehiago emateko, ezker pareta handitzeko eta pilotalekuaren eta eskolen artean ate bat egiteko, azken lan hori planoan azaltzen zela argudiatuta. Gerora, frontoia berritu eta ezker horma luzatu zen, Mirandak emandako lurrari esker (1923-IV-14 y 1927-V-12).

Jakina, bien bitartean, Trintxerpek ere pilotaleku bat eskatu zuen. Hamarkada batzuk geroago eraiki zen. Hala, 1962an, Andonaegiri erositako lurretan, Trintxerpeko herriko plazaren

ondoan pilotaleku bat eraikitzeko aukera gorpuzten hasi zen. Proiektua Ricardo Olanar Añibarrok idatzi zuen. Lanak mar-txan zeuden 1965ean. Pilotalekua Andonaegi parkean zegoen, harik eta multzo osoa birmoldatu zuten arte. Olanaren esa-netan, goialdean bermatzen zen estalki laua modernoa, merkea eta berritzailea zen, eta pilotalekuaren orientazioa oso egokia zen, berriarena ez bezala.

VICTOR HUGO

Ikusi dugu bizilagunen oinarritzko beharrei erantzuten dizkieten azpiegitura batzuetan (azoka, hiltegia, etab.) ekimen partikularrak izan duen garrantzia. Bada, gauza bera gertatu zen, besteak beste, museoekin. Pasaia ez du tradizio museistikorik edo objektu artistikoen erakus-ketari lotutako instalaziorik izan, baina ezin dugu ahaz-tu ekimen batzuk izan direla bertan. Esaterako, Victor Hugo Museoa. Gogora dezagun, idazleak egun batzuk pasa zituela Pasai Donibanen.

*Pasaia Portuko
Agintaritzaren
argazki-artxiboa.*



Orduan ere, Pasaiaiko udalaren laguntza nabaria izan zen. 1903ko urriaren 6an, Pasaiaiko udala prest azaldu zen museoaren sustatzailea zen Déroulèderi babesa emateko. Udalak ez zuen bere izena aipatu, segur aski, atzerriatua zelako: *Este museo, dijo, no lo hemos creado nosotros pero una vez creado, estamos en la obligación de conservarlo porque así pagamos una deuda de gratitud con el poeta inmortal que residió en Pasages y quiso incorporar al precioso y abundante tesoro de su producción literaria, amenas e interesantes descripciones de nuestro pueblo, de nuestra bahía, de nuestras montañas y pagamos también la que tenemos contraída con el iniciador del Museo Víctor Hugo, que al corear el recuerdo de esta gloria y asociarlo a la casa en que habitó, ha logrado despertar la atención de sus compatriotas hacia Pasages, popularizando provocar minuciosas visitas de extranjeros y nacionales a esta villa. De modo que existe hasta un interés material de conservar ese Museo, pero más que el interés material está empeñada nuestra buena reputación porque creo que sería un desdoro para nosotros y que constituirá una falta de cortesía y de respeto a una opinión universal que reside el homenaje de su admiración al Víctor Hugo, el asistir indiferentes a la desaparición de ese Museo. Y este museo puede desaparecer, dispersarse los objetos que lo forman el día en que le falten los cuidados y el celo entusiasta con que lo atiende su iniciador, si la tutela oficial no le acoge bajo su patrocinio y amparo. En cambio, si el museo adquiere consistencia y estabilidad, se enriquecerá con otros donativos que ya se han anunciado para el caso de que ese propósito se realice y aumentará su interés. El Ayuntamiento está pues, obligado a acogerlo bajo su tutela. La falta de recursos le impide por ahora sufragar todas las atenciones del establecimiento, pero debe suponerse que la Diputación Provincial, teniendo en cuenta que constituye un compromiso moral la conservación del Museo, vendrá en nuestra ayuda, prestándonos el auxilio necesario para que el pueblo de Pasages, quede en el lugar que le corresponde.*

Izan ere, udalbatzaren eta pasaiatarren esker ona erakusteko, busto bat jarri zen Donibanen, Gaztelurako bidean. Eskultura hori ordezkatu behar izan zuten, umeek hondatu zutelako: *Se da lectura a la carta que los Sres. Lopetedi, Trecet y Compañía dirigen a esta alcaldía, haciendo ver que habiendo tenido conocimiento por la prensa local de que el busto de Víctor Hugo colocado en la parte de San Juan fue deteriorado por algunos niños, ofrece al Ayuntamiento un ejemplar fundido, cuyo peso alcanza 61 Kg. por el precio de 400 ptas. El Ayuntamiento, teniendo presente que en realidad la Corporación es el que debe colocar otro busto, ya que los niños sin experiencia rompieron el que existía en el punto que se dirige al Castillo, acuerda estudiar el asunto, para lo cual tendría una conferencia con el encargado del Museo D. Francisco Gazcue, a fin de ponerse de acuerdo*⁴⁷.

Hurrengo urteak ez ziren samurrak izan museoarentzat: Etxea alokatzeko kontratua indargabetu zuten bisitari faltarengatik (1911/07/11) eta kokalekua aldatu zuten (nesken eskolara lekualdatu zuten 1915. urtearen buketan –uztailaren 13ko akta–, eta Donostiara aldatzeko aukera ere aztertu zen (1915/07/08). Azkenean, 1963an (ekainaren 3ko akta), Victor Hugo egondako jatorrizko etxea besterentzeko nahia ikusita, udalak erosi eta museo jarri zuen bertan. Erakusketa iraunkorra duela gutxi berriro dute.

ALABORTZA

Era berean, ezin ditugu aipatu gabe utzi itsasoari lotutako jolas-jarduerak, hala nola bainua. Donostia, Zarautz eta Deba bezalako azpiegiturak eta gunek izan

ez arren, Pasaia hainbat ekimenen xede izan diren hondartzak izan ditu.

Hala, 1961eko ekainaren 12an, udalak baimena eskatu zien Itsas Komandantziari eta Portuko Lan Batzordeari Kalaburtzako hondartzan, besteak beste, aldagelak, kantina eta tranpolinak jartzeko: *Teniendo en cuenta la gran cantidad de personas que durante el verano acuden a las playas de Alabortza y Ondartxo, se acuerda solicitar a [idem] autorización a este Ayuntamiento para efectuar obras de acondicionamiento en dichas playas y para instalar temporalmente en ellas casetas de baño, duchas, cantina, sombrillas, etc. Asimismo se acuerda que para las expresadas instalaciones temporales se anuncie concurso con arreglo a un pliego de condiciones...*

1967ko egitasmoa:
igerilekuak eta hondartza Alaburtzan
Pasaia Udal
Artxiboa: P-016.



zabaltzeko, baina, hasiera batean, udalak ukatu egin zien baimena, langileentzako kaltegarria zelako. Geroago, alabaina, ordutegia Altzakoaren berdina izatea onartuko du udalak, hau da, ordu bata eta erdiak arte, baldin eta hamaiketatik aurrera abesten ez bazen.

Langile asko ere bertara joaten ziren bazkaltzera, eta are gehiago gerra ondoren. Beste leku batzuetako jendearen, salgaien eta itsasontzien joan-etorriari esker, nahiko azkar izan zuten pasaiatarrek, besteak beste, industriari eta aisialdiari lotutako hainbat teknikaren eta aurrerapen teknologikoren berri. Hain zuzen ere, 1909ko martxoaren 1ekoa da Antxoko elizako eranskinaren zati bat alokatzeko ordaindu beharreko errentari buruzko jakinarazpena. Julio Roldanek emanaldiak antolatu nahi zituen bertan. Horrek esan nahi du, aurretik, emanaldien errentagarritasunaren berri bazutela eta bazegoela nolabaiteko interesa zerbitzu hori ezartzeko. Baliteke negozioa aurrera ateratzeko, magia, kontzertuak edo antzerkia ere antolatzea. Horietako saio batek, gainera, mesfidantza sortu zuen: urrian, errentamendua lortu eta hilabete gutxiara, emankizun batzuk “jendearen esanetan, zertxobait ezmoralak” zirela ohartarazi zioten udalari.

Kirolaz eta elkarteez gain, ikuskizunak eta taberna izan dira pasaia tarren topalekua eta aisiarako tokiak. Batzuetan, esan dezagun, alai egia. 20ko hamarkadan, ostalariek bai-mena eskatu zuten gaueko hamabietatik aurrera ordutegia

Nolanahi ere, ikuskizun horrek interesa piztu zuen biztanleengan, eta Roldan bera izan zen barrutietako jaietan emanaldi horiek eskaintzen ibili zena, Donibanetik 1910ean hala eskatuta. Gerora, 1921eko abenduaren 18an, Donibaneko eskoletan emanaldi horiek eskaini nahi izan zituzten, dirudienez udalaren bamenik gabe. Maisuak hori gezurra zela esan zuen, eta orduko ikus-entzunezko beste bitarteko batzuk aipatu zituen: *el señor maestro de San Juan (...) hace presente que no es cierto que en la escuela de su cargo se hayan dado sesiones cinematográficas el último domingo; que el señor Párroco, en uso del derecho que la ley le concede (...) da repastos de doctrina cristiana en las escuelas una vez a la semana ilustrando sus lecciones con una linterna mágica, sencillo aparato de física en uso en gran parte de las buenas escuelas y colegios*⁴⁸.

Antxon ezarriko dira batez ere jarduera mota horiek. 1924an, “Príncipe Films” sozietatea jarri zen, emanaldiak eskaintzeko eraikin bat egokitzeko asmoz. Eta horrela sortu zen “Cine Moderno” zinema-aretoa, langile eta sindikalisten topaleku famatua, Gerra Zibilak iraun zuen hiru urteetan armada frankistak okupatu zuena. Bertan, hainbat zinema eta kantu jaialdi egin ziren.

Azkenean, pixka bat geroago bada ere, Trintxerpek interesa erakutsi zuen ikus-entzunezko bitarteko honen inguruan. Bada, 1931ean, Teodora Zabartek baimena eskatu zuen Francisco Andonaegi kaleko 9. zenbakian aparatu zinematografiko bat jartzeko. Kaperan antolatutako zine-emanaldien aitzindaritzat har daiteke eskaera hori. Bestalde, Arrandegi kaleko “Gran Sol” zinema-aretoak 1946an eman zituen lehen urratsak.

Taberna eta zinema-aretoa uztartuz, “Siglo XX” lokala dugu. Bertan, kafe-antzokia zegoen. Erdian dantzatzeko pista bat zuen, eta kafea hartzeko mahaiez inguratuta zegoen, baina ez zuen agertokirik, dirudienez, istiluak eta programazio desegokiak saihesteko. Zinegotzi sozialistak establezimendu horren alde zeuden.

Bukatzeko, bitxikeria moduan esan, 1909an, Antxoko Biteri eskolen ondoan zaldiko-maldiko bat jartzeko baimena eman zutela, baldin eta Cachorro sustatzaileak aurretik betelana egiten bazuen. “Komedia” arrakastatsu haiek ere ezin ahaztu, auzoz auzo zihoazen komikoen emanaldiak. Bertara, herritarrek etxetik eraman behar zuten aulkia, eseri nahi izanez gero.



Antxoko “Moderno”
zinemalekua.
Antxoko Historia
Mintegia.



INDUSTRIAREN GARAIPENA






Aipatu ditugu jada hemeretzigarren mendeko lehen erdian portua hondotik ateratzeko saiakeren porrota eta lurra eta jurisdikzioa duen udalerri bat izateko borroka amaiezina. Eta baita errepideak eta trenbideak portuaren garapenean eta udalerriaren berrikuntzan izan zuten eragina ere. Uste dugu, sakon ez bada ere, nahiko argi geratu dela berrikuntza hori aurreko orrietan.

Pasaia, parte hartu zuen, bigarren maila batean, 1850ko hamarkadaren industriaren garapen-hasieran. Ez zen gehiegi hedatu, ez baitzegoen horretarako lekurik, Donibaneko Bizkaia - Borda Handia ingurua izan ezik. Baina bere kokalekuari esker, Pasaia industriara bideratzeko lekua bihurtu zen, 30 urte geroago egiaztatu ahal izango dugun moduan.

Pasaia 1883an hedatu zen, Osinaldek Mandasko Dukearentzat urte horretan sinatu zuen planoak Antxoko portua egokitzeko lanen amaieraren ondorengoa baita (1879) eta garai berean abian jarri ziren beste proiektu txikiago batzuekin bat baitator. Hedapen hori goren mailara heldu zen 1926an, egungo Euskadi Etorbidea goitik behera berritu zenean, industria eta portu jardueraren indarra erakutsi nahian, eta Antxo Pasaia barruti izendatu zutenean.

1880tik 1930era bitarteko berrogeita hamar urte horietan, egungo Pasaia lehen geruza sortu zen. Harrigarria bada ere, eta lantegiak eta etxeak elkarren ondoan egon arren, jaikialdi faxistaren eta gerraren aurreko lehen hedapen hori ez zen hasiera batean pentsa dezakegun bezain kaotikoa. Izan ere, Antxok ezin hobeki delineatutako plano batean du bere sorrera, eta Trintxerpeko etxeak lekurik logikoenean egin ziren, Aranederreko hegaletik igotzen hasi eta metro gutxira. Era berean, hirigintzako hazkundea eta udal zerbitzuak eskutik joateko ahaleginak egin ziren, eta horren harira, Pasaia biztanleek presio dezente egin zuten, bizilagunak eta langileak baitziren aldi berean. Baina, eremuak hartzeari dagokionez, Antxoko dentsitatea oso altua zen eta Trintxerpen etengabe eskatu zituzten lanaz aparte zerbait egin ahal izateko gune irekiak.

Beraz, Gizarte industrialaren eta lantegian sortutako harremanen garaipen hori industriaren beraren garaipena ere bada. Industria, fabrikak, faktoriak, ontziolak, tailerrak... eta horien pilaketa Pasaia ezaugarri izatera pasa ziren, eta pilaketa hori hain handia zen batzuetan, etxeak ikusi ere ez ziren egiten. Azpiegitura horien zuzendariak eta inbertsoreak ez ziren udal kargu publikoak, eta ondorioz, udal ordezkariak ere bat bilatu behar izan zuten: eredu hori sustatzen bazuten, jasagarria izateko kontrapartida batzuk eskatu behar zizkioten.



Bordalabordan itsa-
sontzigintza eremua
sortu zen; MEIPIko
instalazioek izen
berria emango diote
toki honi.

Pasaia Udal
Artxiboa: 727-15.

Horren harira, badira diskurtso batzuk hazkundearen esanahia oso ondo azaltzen dutenak eta 1931ko eta 1934ko aldarrikapenen eta pasaiatarrek ondoren jokatu zuten paperaren berri ematen dutenak. 1805etik 1880ra doan ibilbide luzearen ondoren, Pasaia bere burua berraurkitu eta hiri industrial txiki bat gobernatzen ikasi zuen. Baliabide faltak eragindako bideragarritasun gabezia saihesteko, Pasaia Udalak gobernuak behin eta berriro egokitu behar izan zuen. Gabezia hori, neurri handi batean, 1805ean udalerriaren fundazioa ez errespetatzearen ondorio zen.

Aldarrikapena ondoko udalerriekin etengabea zen eta enpresen gehiegikeriak zirela eta protesta asko izan ziren. Enpresak, ordea, errespetatu behar ziren, herriaren hazkundearen oinarri baitziren. Kasu batean zein bestean, udalak indarrak batu zituen, eta batez ere udalaren eta enpresen arteko arazoak, hirigintzako garapenak eta hazkundeak eragindakoak, dira jarraian aztertuko ditugunak.

3.1 Industria udalaren aurka

Hirigintzako garapenaren ondorio den liskar hori azaltzeko, hiru adierazle hauek erabiliko ditugu: Ura, sarbi-deak eta zergak. Lehena bizilagunen eta enpresen baliabidea da; bigarrenak hainbeste jende eta enpresa hain leku estuan elkarrekin bizi behar izanak dakarren zailtasuna erakusten du; eta hirugarrenak arlo administrati-boaren eta produktiboaren arteko oreka lortzea zein zaila den adierazten du.

Oso zaila izan zen aldi berean industria eta biztanleak urez hornitzea Pasaian eta San Pedron. Bi barruti horietan, liskarrak hainbat industriarekin izan ziren. Esaterako, Portuko Sozietate Nagusiak, 1911n, lehorte zela eta, Berrabeako iturria itxi zuen, bere kontrolpean baitzegoen. Sozietate horrek berak, 1888an, San Pedron zuen egoitza Salbilotik hornitzea lortu zuen espalo bat

(egia esan, metro eta erdiko zabalera zuen pasabide bat zen, Erregearen Ontziola osoan zehar, San Pedroko biztanleak bertatik atera ahal izateko) eraikitzearen truke. Alabaina, ez zuen espaloia eraiki, eta ondorioz, erabiltzeko baimena ezeztatu zioten 1889an⁴⁹.

Are deigarriagoa dugu Muelles y Almacenes para Vapores de Pesca en Pasajes, S.A. (MAVP) sozietatearen

adibidea. 160 metroko luzera zuen pabiloia zen, San Pedroko etxeekiko eta kaiarekiko paralelo. Enpresako ur gezaren depositu nagusiak 180 metro kubikoko bolu-mena zuen eta edateko urez hornitzen zituen itsasontziak. Sozietate horren esanetan, Pasaiaiko urarekin ez zuen nahikoa, eta Altzako ura erosi eta hoditeria egin behar izan zuen beretzat.



Trintxerpeko eta Pasaiaiko historiaren laburpen eta argazki bikaina. Hauek dira protagonistak:

- Trintxer, hamabost eta hamaseigarren mendean portuko garapenean parte hartu zuen baserri zaharra. Hemeretzigarren mendean berreraiki eta 1920ean eraitsi zuten.
- Trintxer, armadorearen etxea, jatorrizko baserria eta berritutakoa ordezkatu zituen. Andonaegitarrak herriari utzitakoa.
- Behealdean, Trintxerpe etxebizitza multzoa, langileentzat eraikitakoak eta auzoari izena ematen diotenak.
- Uraren ondoan, lantokia, kaia eta *Muelles y Almacenes para Vapores de Pesca* (MAVP) faktoria, 1919koa. Terraza horiek armadak hartu zituen 1934an Pasaiaiko langileei kontra egiteko. Sozietate horrek herriko bizitza sustatu zuen, baina, aldi berean, liskarrak izan zituen udalerriarekin, eremuaren eta baliabideen erabilerengatik eta zergen bilketarengatik.
- Jada zutik dirau Araneder. Bertako maizterrek benetako jazarpena pairatu behar izan zuen etxea uzteko. Horixe da, behintzat, salatu zuena 1933an. Bere esanetan, lurrak eta sagastiak kendu zizkioten eskolak egiteko, eta ondorioz, ezin

zuen baserritik bizi. Aranederrekin gertatutakoak erakusten du gizarte mota batetik bestera, mundu tradizioaletik garaikidera emandako jauzia. Izan ere, baserria Amilibiatarrena zen, Donostiako familia liberalik nagusienetakoarena hain zuten ere. Oinarri familiar liberal horretatik, baserri horri lotutako bi adar sortuko dira. Batetik, Leon Carrasco Amilibiarena, ontzioletako zuzendariarena. Gerran golpisten alde agertu zen eta exekutatu egin zuten; bestetik, haren lehengusuak, Amilibia anaiak. 1934an, *Muelles y Almacenes para Vapores de Pesca* enpresako terrazetatik tirokatu zituzten arrantzaleak defendatu zituzten, eta, bereziki Miguelek, abertzaletasuna eta sozialismoa uztartu zituen, hemeretzigarren mendeko liberalismoa atzean utziz. Baina, horrez gain, baserri horretakoak bertakoak ziren Zapirain anaiak, Euskadiko alderdi komunistaren fundatzaileak (egia esan, hogeigarren mendearen hasieran, Trintxerpeko baserrietan, maizter guztiak ziren Zapirain).



Andonaegieneko beirate koloreztatuak.

Andonaegi sendiaren etxean beiratu koloreztatu multzo ikusgarri batzuk ditugu. Berrienak, Txexa Martínez atelie-rreran eginak dira. Beste hamalau, ordea, 1927. urtekoak dira, Maumejean Etxeak eginak.

XIX. mendearen bukaeran eta XX. mendearen hasieran Donostian eta Donostialdean emandako hiri garapena-ekin batera beiratu koloreztatuak iritsi ziren. Etxeetan ez ezik, aisialdiko guneetan ere agertu ziren: kasinoetan, jatetxeetan, kafetegietan... Dotoretasun zantzutat jotzen ziren.

Lehen beirateak kanpoan ekoiztu ziren (Bartzelonan, Parisen, Bruselasean, Munichen), baina XX. mendearen

hasieran nazioarteko sona handia zuen Maumejan Anaiak enpresa errotu zen Donostian bertan. Honek, Parisen, Hendaian, Miarritzen eta Madrilan beste lantokiak zituen.

Hortaz, Gipuzkoako eraikin askotan paratu beirateak bertan ekoiztu ziren; hauen artean ditugu Andonaegitarren “palazio”koak.

Multzo honetan, sendiaren armarrria eta itsas-bataila bat irudikatzen dituztenak dira nabarmenenak.

Mikel Lertxundi Galiana

Egia da itsasontzien deposituak betetzen ziren bitartean etxeek ur gutxiago zutela, eta egia da ere, askotan, ontzi-ratutako ura zikina zegoela: arraina garbitzeko urarekin nahastuta zegoen eta arrain-hondarrak zituen^{XV}. 1923an, Sozietate horrek Pasaian ura hartzeari eta ordaintzeari utzi zion. 1927ko maiatzean aitortu zuen udal zergaren pre-zioa zela ura Altxatik ekartzeko arrazoi bakarra. Horiek

horrela, Satrustegik, bere iturriak saldu nahian, artekari lanak egin zituen. Horretarako, arrantza-partzuergoko ordezkariekin hitz egin ondoren, berak udalari saltzen zion uraren prezio berri bat negoziatu zuen. Hau da, Satrustegik bere uraren prezioa igo zuen, udalak garesti saltzen zuela argudiatuta; baina udalak azaldu zuenean prezio altuarekin ez ziotela enpresari kalte egin nahi, baizik eta xahubidea saihestu, eta iturri gehiago erosi eta emaria handitu ondoren prezioa jaitsiko zutela, Satruste-gik ere berea jaitsi zuen eta kontsumoaren araberrako prezio mailakatu bat jartzeko gomendatu. Horixe egin

XV - Oreretan ere antzeko arazoa zegoen. Eta gauza bera gertatzen zen beste enpresek batzuek ura ponpatzen zutenean.

MAVP delakoaren
berreraikitze
ardura Tolosako
Guillermo
Eizagirreren izan
zen. Lan hau, baina,
ez da agertzen
arkitekto honi buruz
María Vicente
Ordóñezek idatzita-
ko artikulua bikai-
nean (Vicente
Ordóñez, María:
"Guillermo
Eizaguirre Ayestarán
Arquitecto (1878-
1932)" Ondare. 20,
2001, 161-193).
Ordoñezek
eskaintzen duen
Eizagirreren lanen
zerrendan honek
Tolosan, Beasainen
eta beste toki ba-
tzuetan eginiko
lanak aipatzen dira.
Era berean, gure lan
honetan zehar ager-
tzen diren arkitek-
tuen elkarren arteko
harremanak baieztat-
zen ditu (Alday
anaiak, Eizaguirre,
Urkola, Goikoa...) eta
hauek erabiltzen
dituzten estilo
anitzak ere
erakusten ditu.
*Pasaiaiko Udal
Artxiboa: 990-16, 17.*

zuten 1931ean MEIPIrekin (neurri batean, *Sociedad Muelles y Almacenes para Vapores de Pesca en Pasajes, S.A.* enpresaren oinordeko, baita *Muelles E Instalaciones Pesqueras Industriales* izenari dagokionez ere). Alabaina, urte horretan *Muelles y Almacenes para Vapores de Pesca en Pasajes, S.A.* enpresak Pasaian urrik kontsumitu eta ordaindu gabe jarraitzen zuen.

Aipatutako Sozietatea beste auzi batean topatuko dugu, oraingoan zergen ordainketa dela-eta. 1922. eta 23. urteaz geroztik auzitegien salatua zuten arraia esportatzeagatik ordaintzera behartzen zituela udalak. Zerga ez ordaintzeko, gainera, Tolosako geltokira eramaten zuten arraina, handik bidaltzeko. 1924an zerga hori kentzeko eskatu zuten; eta gauza bera eskatu zuten 1928an, 10 urteko hitzarmena amaitu zenean. Orduan, sektorearen krisia zela-eta, krisiak irauten zuen bitartean urtean hitzartutako 16.000 pezetatik 3.000 pezetara jaisteko erabakia hartu zuten⁵⁰.

Antzeko zerbait gertatu zen Pasaiaiko beste enpresa ezagun batekin, alegia, Luzuriagarekin. Horixe da behintzat udalak baieztatu zuena 1954an. Luzuriagak Madril-en kotizatzea erabaki zuen, garai hartako lege bati helduz, eta ondorioz, ez zuen diru-sarrerarik sortzen udalean. Alkateak, hori ikusita, esan zuen Luzuriaga hazten ari zela eta udala, berriz, txikiagotzen: "*mientras ella medra, nosotros mermamos*"⁵¹.


Udalerrian kotizatu nahi ez izateak ez zuen esan nahi kiebra jo zuenik, aitzitik, enpresa horretako instalazioak etengabe ari ziren handitzen, lurzoru publikoaren kontura. Fabrikaren handitzearen ondorioz, ezinezkoa zen toki batzuetara sartzea. Kaiko kalean, adibidez, 130 metroko luzera zuen ur beltzen ubide bat zegoen, 1942an

oraindik saneatu gabe. Kalea luzuriagako instalazioak eta itsasadarraren artean sartuta geratu zen. Asko negoziatu ondoren, kalea Luzuriagari eman zioten 40 urtez. Horren truke, Luzuriagak garbitu eta usufruktu-kanon bat ordaindu behar zuen. Gauza bera gertatu zen 1947an, Txoritokieta kalearekin eta fabrikaren eta Beorlegi kalearen zati batekin. Orduan Laffort enpresa atera zen galtzaile, eta azkean, biek trukatu behar izan zituzten lurak beren ondasunei forma arrazionalago bat emateko. Alabaina, emaitzak ikusita, Luzuriagak lur gehiago eskatu zion udalari.

Hala, alkateak 1954an esandakoa egiaztatu daiteke: Luzuriagak kalea erabiltzen zuen hondarrak, ikatzak, burdinak eta mota guztietako materialak biltzeko Horrez gain, txabola bat zuen burdina tolesteko erremintak gordetzeko, eta doakoa zen zirga-bidearen itxitura eta erabilera.

Izan ere, lekua hartzeko norgehiagoka behin eta berririo ikusi ahal izango dugu hogeigarren mendean zehar, ez bakarrik hedapen garaian, baizik eta industriak azaltzen hasi ziren unetik bertatik. 1918an, esaterako, Torres Renovales jaunak industria berri bat jartzeko eskaera aurkeztu zuenean, Etxarri zinegotziak salatu zuen Antxon, bizitegi-gunean etengabe ari zirela tailerrak irekitzen, eta zarata egiten zutela. Hori dela-eta, udalak industriak jartzea debekatu zuen Antxoko kale nagusietan eta garai hartako ordenantzak betearazi zituen.

Alabaina, industriaren eta udalaren arteko gatazkarik gordinena San Pedron izan zen, 1917. eta 1918. urteen artean. Gatazka hori zuzenean lotuta zegoen 100 urte lehenago eskatutako komunikabide duinarekin.




FACHADA



Pasaiaiko Udal
Artxiboa: 592-7.


Portuko Sozietateak, 40 urte lehenago, 1879 sinatutako planak gauzatu nahi zituen gaurkotu gabe, eta herriko joan-etorri beharrak aintzat hartu gabe, arrantza tradizionala eta enpresa berriak uztartu gabe eta udalari lurzoruaren erabilera arautzeko ahalmenik aitortu gabe.



Dirudienez, 1879ko planek Erregearen ontziola zaharren birmoldaketa aurreikusten zuten San Pedron^{XVI}. Portuko Sustapen Sozietate zaharrak asmo hori alde batera utzi zuen, eta baita dike lehor bat egiteko ondorengo asmoa ere; azkenean, Erasoko ontziolak (lehen Karpard) eta Andonaegikoak bertan jarri ziren. Jatorrizko planen arabera, zazpi metroko zabalera zuen ontziraleku bat egin nahi zuten elizarantz doan kalearen bukaeran, Jose Arrietaren eta beste bizilagun batzuen etxeen aurrean. Ontziraleku horrekin San Pedroko arrantzaleen erabilera eskubideak bermatu nahi zituzten, horixe baitzen arraina deskargatzeko eta itsasontziak lehorreratu eta konpontzeko tokia. Hori guztia hil edo bizikoa zen bertako jarduera tradizionalari eusteko.

Enpresa batek hasitako lanek erabilezin bihurtu zuten itsasorako sarbide bakarra 1917ko abuztuan. Enpresa horrek ez zuen Portuko Sozietate Nagusiarekin zerikusirik, baina Sozietateak lurra alokatu zion. Hain zuzen ere, ontziola berri bat zen Mamelena sozietatearentzat. Sozietate horretako itsasontziek garai hartako argazki

XVI - Gure ustez, ez da kasualitatea Antxoko kaia bukatu zen edo Herrerako hondartzako bi ertzak lotzeko Salinas inguruan zubi bat egin nahi izan zen urtearekin bat etortzea.




2011. urtean San Pedron hasitako lanek gaurkotasun handia ematen diote argazki honi, eraitsi berri diren eraikinak hasi baino lehen hartua baita. Itsasontzi-kopuruak, baina, beste garai bateko irudia dela uzten du agerian. Pasaiaiko Portuko Agintaritzaren argazki-artxiboa.

askotan ikus ditzakegu, erdian tximinia zabal bat dutela. Protesta zela-eta, Portuak baimena eman zion udalari 1879an aurreikusitako kaiko lanak egiteko. Udalari interesatzen ez bazitzaion, gainera, bere proposamena bertan behera utziko zuen. Eta horixe egin zuen, azkenean, 1919ko abenduan.

Garai hartako portuko agintaritzak ez zuen inondik inora proiektua eguneratu nahi. Horrez gain, esan zuen Merkataritzako Sozietatea zela eta interes orokorreko zerbitzuak zaintzea ez zela bere zeregina, baizik eta herri administrazioarena. Udal abokatuak Portuari esan zion kaiak egiteko eskubidea eta funtzioa nahasten zuela bere inbertsoreentzat mozkina lortzearekin, bereak ez diren lurak enpresa partikularrei berrakuratuta. Horrez gain, zalantzan jarri zuen Portuko Sozietatearen merkataritza izaera, Aldundiak partaidetua zelako eta, ondorioz, herri-erakundea. Beraz, ororen interesaz arduratu behar zuen. Kofradiak eta udalak beste behin eskatu zuten San Pedroko elizaren ondoko etxeen eta Andonaegi jaunaren

tailerren arteko lurak ez ixteko eta bere horretan uzteko: *los terrenos comprendidos entre las casas existentes junto a la iglesia de San Pedro y los talleres del Señor Andonaegui, no se cierran, y queden como en todo tiempo han estado, dedicados a la carena, varadura y conservación de embarcaciones menores.*

Pasaiaiko abokatuak ministerioei eskatu zien ontziola berriaren lanak gelditzeko eta udalari ahalmena emateko beharrezkoak ziren arrapala eta kalea eraikitzeko. Eskae- ra horrek agerian uzten du industriaren eta gainerako jardueren artean beharrezkoa den oreka: *El vecindario pasaba por tales modificaciones al ver que la industria de construcción naval iba en aumento, creando así riqueza y medios de vida en el término municipal, pero siempre segura de que se le respetaría el terreno o espacio comprendido entre los talleres de Sr. Andonaegui y las casas que existen junto a la iglesia. El tiempo ha venido a demostrar que no son estos los propósitos de la Sociedad General del Puerto...*



3.2 Industria eta batasuna

Ordura arte udaleko kideak elkarlanean aritu baziren ere, tradizionalistak ez ziren ordezkariek udalbatzan sartzen joan ziren heinean, geroz eta zailagoa zen ados jartzea^{XVII}.

Barruko tirabira horiek barrutien arteko lehiatik harago doaz. Gure ustez, batez ere, gizarte berri bat adierazten dute. Hogeigarren mendearen hasieran protagonista berriak azaldu ziren udal karguetan. Desadostasunak politikoak ziren eta proiektu jakinetatik harago zihoazen: Munduaren eta giza-harremanen ikuspegi orokor bat ere adierazten dute. Mundu tradizionala ez zen desagertu; jada ez zegoen Arizabalotarrak bezalako antzinako familia garrantzitsuen lekua hartuko zuenik, baina zinegotzi monarkikoak eta tradizionalistak zeuden udalbatzan. Alabaina, bloke horrekin batera, diskurtso berri bat sortu zen, alegia, errepublikanoen, sozialisten eta nazionalisten batasuna (ANV), garrantzi handi izan zuena Pasaian.

Barrutien arteko diferentziei dagokienez, tradizionalisten eta konterbadoreen iritziz, Pasaia zatituta zegoen eta barruti bakoitzak modu autonomoan funtzionatu behar



Errege Ontziola zaharrean herriko ontzigintzan arituko diren enpresa nagusiek izango dute egoitza. Honek, asko murriztu zuen arrantza tradizionala. *Pasaia Portuko Agintaritzaren argazki-artxiboa.*

Ontzirelaken erabilerak arazoak sortuko ditu erabilera industrialaren eta eguneroko erabileraren artean. *Pasaia Udal Artxiboa: 333-5.*

XVII - Eta, jakina, patroien eta langileen artean tirabirak izango dira etengabe. Ikusi X. Portugal (Sorginarri, 3), A. Ricón (Sorginarri, 2) eta K. Izagire (Sorginarri, 6).

Muelles y Almacenes para Vapores de Pesca (MAVP) delakoaren tamaina ederki antzematen da hemendik: Trintxerpetik Salinas bitartean; hortik, gainera, industria guneak segitzen zuen, ontzitegiarekin eta Salbioko ontziolarekin. Pasaia Portuko Agintaritzaren argazki-artxiboa.



zuen arazoak konpontzeko eta irtenbideak emateko garaian, batzuetan, aurrez aurre ipintzeraino.

La Unión bat egindako traineruaren gertaerak gogora ekartzen digu, batetik Pasaia industrial eta bat egina, eta bestetik, Pasaia desegina, iragan hurbila gainditu ezinik zebilena^{XVIII}. Traineruaren gertaeraren ondoren, buruzagi pasaiatar batzuk kirolaren bidez batasuna sendotu nahian ibili ziren. 1922ko deskalifikazioa bidegabekoa zela esan zuten, eta 1927an, San Pedroko alkateordea zen Pedro Odriozolak proposatuta, elkarrekin omendu zituzten San Pedroko eta Donibaneko arraunlariak denboraldia amaitu zenean, San Pedro eta Donibane arteko gorrotoak eta ika-mikak saihesteko. Elkarrekin egindako bazkarian istiluak izan ziren eta Odriozolak kargua utzi nahi izan zuen, bere menpekoek, alegia, aguazilak eta gauzainak zalantzan jarri zutelako bere agintea. Udalbatzak, ordea, ez zuen onartu kargua uzteko erabakia, eta hori gutxi balitz, txalotu egin zuten⁵².

Batasunaren edo sakabanatzearen arteko borroka horren adibide garbia dugu udal babes-etxeari buruzko eztabai-

da, noiz eta 1934an, Pasaian gertaera sozial garrantzitsuak izan ziren urtean. Obeso zinegotzi sozialistak^{XIX}, babes-etxearen fundazioaren klausula baten irakurketaren harira, esan zuen Donibanek, San Pedroko eta Antxok herri bakarra osatzen zutela: *en la actualidad la Villa de Pasajes constituyen tres distritos y por lo tanto no se conoce más que un Pasajes, por lo que tanto San Juan como San Pedro y Ancho tienen el mismo derecho por constituir los tres un solo pueblo: el Sr. Puy contesta que en la época en que se formalizó el testamento no existían más que dos Pasajes, que eran San Juan y San Pedro, que constituían dos pueblos independientes con sus respectivos Ayuntamientos, sin que figurase Ancho para nada, extremo este que ha querido aclararlo; el Sr. Obeso arguye que si Ancho es hijo de San Juan y pertenece a Pasajes, todo lo que se*

XIX - Obeso bera eta Felix Miguelez Larzabal (faxistek egindako akusazio-zerrendaren arabera, CNT sindikatuaren kidea zen), arrazionalki ordenatutako udalerriri baten aldekoak ziren, eta udal-mugapean Buenabista eta Eskalantegi sartu zituzten, garai hartako errealitate soziala kontuan hartuta. Batari zein besteari etorkizun-sena eta sen praktikoa aitortu behar zaie (eta hori guztia urte batzuk geroago Trintxerpen gertatuko zena jakin aurretik) eta baita haien hitzen gaurkotasuna ere. “Municipaleras” (*Pasajes* aldizkaria, 1932); “Hacia un nuevo Pasajes” (*Pasajes*, 1934). Web-orri honetan ikus daitezke: www.antxotarrok.com

XVIII - Izan ere, inork ez daki non dagoen traineru horrek 1921ean irabazi zuen bandera.

derive de esto tiene perfecto derecho, luego es natural que a pesar de que antes no figuraba Ancho, hoy existe para todos los efectos legales, luego debe tener las mismas ventajas que los demás.


Garai hartan, adina zela-eta, lanik egiten ez zuen jende asko zegoen, eta ondorioz, udal zerbitzu hori oso garrantzitsua zen batez ere bitartekorik gabeko langilentzat. Esanguratsua da ikuspuntu hori zinegotzi berriena izatea eta ez kristau uste sendoak zituzten tradizionalistena. Azken finean, Pasaiake eredu industrial oso indartsua zen eta eredu horretako protagonisten ideiak sendoak. Protagonista horientzat, langile izatea hiritartasunari eta eskubideei lotuta zegoen ezinbestean.

Desadostasun politikoei dagokionez, 1930eko gertaerei erreparatu behar diegu, ezin hobe laburtzen dutelako Pasaiake hirigintzako hazkunde eta bilakaera soziala, lan honetan azaldu nahi genuena, hain zuzen ere.

1930eko maiatzaren 30ean, Yarza alkateak ezohiko batzarra antolatu zuen, udalaren aurkako salaketak jasotzen zituen anonimo bat banatu zelako herrian: ur-hornidura, arraina esportatzearen gaineko zerga, Antxoko plaza, Madrileko kudeaketak, edo udalbatzako kideen eta kide izandakoen gaineko zeharkako aipamenak ziren, besteak beste, orri horretan azaltzen ziren gaiak. Alkateak kontu horiek banan-banan eta zehatz-mehatz aztertu zituen, Pasaiake hirigintzako hazkundearen eta bilakaera sozialaren laburpena egiten ari zela jakin gabe.

Urari eta arrainari dagokionez, Yartzak esan zuen Satrustegi desjabetzeko prest zegoela, baina azkenean jabeak eskatzen zuen kopurua erdira jaitea lortu zutela. Donibaneko ur-depositua eraikitzeke arazoak ingeniariaren erantzukizun faltari egotzi zizkion, ez baitzituen kontuan hartu ez abisuak ez luraren ezaugarriak. Arrainaren kontuari dagokionez, esan zuen *Muelles y Almacenes para Vapores de Pesca en Pasajes, S.A.* sozietateari esker diru

Trintxerpeko sarre-
ran, Bidebietapean,
“Compañía de
Maderas” delakoa
erakusten du argaz-
kiak. Egun, gune
hau beste erabateko
eraldaketa dago
murgilduta.



-sarrerak bikoiztu egin zirela. Horregatik, alkateak ez zuen ulertzen anonimoaren esaldi mingarri hau: “bada arrain -zopan hatzak miazkatzen duenik”.

Era berean, istil kirasdunaren betelanari buruz adierazi zuen udalak, erosketa eta betelana barne, 50.000 pezeta baino ez zituela gastatu eltxoak, usain txarra eta Osasun saileko salaketak ekiditeko lan horietan, 400.000 pezetatik gora kostatu arren.

Madrilera egindako bidaiei dagokienez, bidaia guztiek izan zituzten helburu zehatzak, hala nola arrain esportazioarengatik Pasaia kobratzen zuen kopuru bera kobratu nahi zuten udalerrri galiziarrei laguntzea edo San Pedroko hilerri berrirako baimenak lortzea, ez baitzegoen lekurik lur emateko.

Nolanahi ere, alkatearen hitzek garai bat amaitu dela gogorarazten digute berriro: egin dira lanak, martxan jarri dira industriak eta azpiegiturak, hobetu dira gutxieneko bizi-baldintzak eta saneatu da lurzorua eta jada badago toki-administrazio eskudun bat: *Explica seguidamente el empréstito de 400.000 pesetas, con las que se satisfizo la primera partida de la compra de aguas, se hizo la traída de las mismas, se construyó el cementerio de San Juan, se hicieron importantes mejoras en el de San Pedro, se hizo el precioso mercado de Antxo, pagó el último*

plazo del solar, se adquirió tubería de mayor calibre que está preparada para lanzarla en el canal cuando termine la draga el trabajo que lleva a cabo...



Udalbatzak ez zuen onartu alkateak bitan aurkeztutako dimisioa; alderantziz, konfiantzazko botoa lortu zuen eta Crespo zinegotziak esan zuen orri hori idatzi zutenek ez zutela udalean egotea merezi eta hamabi lagun baino ez zirela, gainerakoak alkatearen alde baitzeuden.

Nori buruz ari zen Crespo? Nortzuk ziren hamabi gizon horiek? 1931ko hauteskondeek argituko zituzten zalantza horiek: nazionalista tradizionalisten botoek errepublikanoek, sozialistek eta ANV alderdiak alkatetza erdiestea galarazi zuten. Hori ez zen gertatuko 1933ra arte, Ignacio Uribe Etxeberriarekin, baina bien bitartean, Gal, Uribe, Obeso, Marin eta de Lucas zinegotzi sozialisten, errepublikanoen eta ANV alderdiko zinegotzien ia 1.000 boto-emaileek hamabitik gora zirela ohartarazi zuten. Inda zinegotziak, segur aski PNV alderdikoa zenak, San Pedron eta Trintxerpen egindako lan bikaina eskertzeko, kale bati Uribe izena jartzeko eskatu zuen, baina Uribe ez zuen nahi izan.

Ez da soilik portuaren fisionomia aldatu, bertako biztanleek mundu berrian egoteko modua ere aldatu da. Horregatik, gure uste apalean, Pasiako iragana aldarrika-

Uraren inguruko eztabaida arintzeko, ur-biltegiak eraikitzea eta hobetzea lehenesten da. 1929. urtean, udalak Donibaneko hainbat iturri erosi zion Satrustegiri, hala nola: Buenos Aires, Muritza-Sanjuanarri, Saratxaga-Galerako, Alkai, Agerregi-Lete, Agindegi, Gaztarrotz eta Putre-kabiya. Badiaren beste muturrean, Aranederreko erreka berehala txiki geratuko zen ur-biltegia eta harraska bat egokitzeko aprobeztatzen da. Azkenean, Aranederreko ahoan zeuden kala eta errota ere lehortuko dira.

Pasaia Udal Artxiboa: 582-13
303-6



tzeko orduan, komenigarria litzateke zehaztea zein iraganari, zein une historikori buruz ari garen. Edo, behintzat, kontuan hartu beharko genuke ez dagoela une bakarra. Pasaia berri horren sorrera, hemeretzigarren mende bukarako eta hogeigarren mende hasierako traza viktoriararak dituen, izan da gure nortasunean eta gure kulturaren gehien eragin duena. Hala ere, ondare hori aldarrikatzea oso zaila dirudi, beharbada oraindik ez dugulako sentitzen gure iraganeko zerbait bezala; beharbada, edo, batez ere, gure zati den hori ez delako batere atsegina. Eta, jakina, herria berritzeko edo leheneratzeko tokirik ez dagoelako aurretik lekua egiten ez bada.


Nolanahi ere, badira aintzat hartu beharreko ondarearen osagai batzuk, 100 urte iraun dituen iragan hurbilaren lekuko direnak. Batzuk jada udalaren esku daude, hala nola Miguel Ciriza enpresaburuaren artxiboa; beste batzuek zutik diraute, ozta-ozta bada ere, Luzuriagako azken eraikina esaterako. Gehienek, ordea, lekua utzi behar izan diete eremu edo premia berriei. Eta, batez ere, bada ondare ukiezin bat hiri-garapen horretan: langile-kultura parte-hartzailearena. Lanean eta aldarrikapenean oinarrituta, egun, kultura horren adierazgarririk onena da herriaren leheneratzean parte-hartzeko bizilagunen proposamena.

3.3 Ondorioa


Hasieran esan dugun moduan, azterlan hau ez da garai baten amaiera, baizik eta abiapuntua. Bestalde, lana amaitzen eta hiri-garapena jorratzen ari ginen bitartean, hainbat gauzaz konturatu gara.

Batetik, etengabe azaldu zaizkigu gai berriak, garatzeke geratu direnak. Batzuk herriak izan duen hazkunde fisikoari buruzkoak dira eta, beste batzuk, gizarte antolatu gisa herriak izan duen hazkundeari buruzkoak. Adibidez: udal administrazioaren garapena eta antolakuntza, besteak beste, osasuna, zaborra eta ekonomia barne; irakaskuntza, bereziki Arte eta Lanbideak; kirol elkarteak, musika elkarteak, elkarte politikoak... (labur esanda, mugimendu sozialak); garapen horretan parte hartu zuten arkitektoak... eta, jakina, ontzi-ondarea, bilduma honetan argitaratu nahiko genukeena.

Era berean, datuak eta gertaerak beste modu batera antola daitezke: guk une bateko berria eman dugu, baina ez dugu gai guztien bilakaera modu linealean azaldu; ez beti, behinik behin. Izan ere, azterlan irekia da honakoa. Gai orokorrean ere ikus daiteke hori, Pasaia hiri garapena eta hazkundera ez baitzen geratu gerra piztu arren. Aitzitik, gerraren ondoren askoz nahasiagoa eta kaotikoagoa izan zen. Azterlan honetan azaldu dugun moduan, aldaketa eta garapen hori industria-prozesuak eragin zuen. Prozesu hori mende erdialdean poliki-poliki hasi, 1870. eta 1880. urteen artean sendotu eta 50 urtetik gora luzatu zen portuko eskualde osoan. Gure ustez, azterlan hau osatu beharko litzateke eta gerraren ondorengo hazkundera jorratu. Etxebizitza-blokez beteta, ia berdegunerik gabe, Pasaia logika historikorik, administratiborik eta soziologikorik ez duten mugak ditu, batzuetan, plangintza, udalerrien arteko koordinazioa eta bizilagunen parte-hartzea galarrastzen dituztenak. Era berean, testuinguru orokorra kotuan hartu beharko litzateke. Horretarako, material asko dago, “tokian tokiko adibideak” nahiz azterketa materialak⁵³.



HERRITARRON PROPOSAMENA



- 1 - Goeinetxe Patron, Erramun: "El informe Villalobos sobre el puerto de Pasaia (1617) o Cuatrocientos años de propuestas para una ordenación lógica y racional del puerto y su gobierno". *Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián*, 43 (2010). 419-470.
- 2 - Xinerren jarduera armadan arrakastatsua izan zen. 1763an, Reales Fábricas de Artillería de La Cavada (Riotuerto, Kantabria) fabriken eta *Gazeta de Madrid* egunkariaren zuzendaria izan zen, eta 1786ko abenduaren 15ean Artilleriako Teniente Koronel izendatu zuten.

Jatorrizkoaren izenburua (MPD 07-147): *Plano del puerto i canal de los Pasages desde su embocadura hasta la villa de Renteria i sitio de la Herrera que es adonde llega la agua salada. Levantado por Don Vicente Xiner, Comisario delineador del Estado Mayor de Artillería, por disposición i con asistencia personal del Señor Don Manuel de las Casas y la Quadra, Intendente de la Marina i Ministro Principal de ella en esta costa del Mar de Cantabria*.

Eskainitako kopiaren izenburua (MPD 07-148): *Copia del Plano del puerto i canal de los Pasages desde su embocadura hasta Renteria i sitio de la Herrera, que Don Vicente Xiner, Comisario delineador del Estado Mayor de Artillería, ofrece y dedica a los Señores Don Joseph de Lopeola, don Juan Antonio Clasens, Don Joseph de Ayerdi i Don Nicolás de Francias, dignísimos directores de la Real Compañía Guipuzcoana de Caracas, principal interesada en su conservación i limpieza*.
- 3 - Pasaian garrantzi handiko lanak badira ere, Solisen ibilbide luzea kontuan hartuta, obra txikia da eta, horrez gain, penintsulan egindako azkenetakoa; izan ere, 1752an Brigadier izendatu (Mariskal izatea iritsi zen) eta Ameriketara eramán zuten Mc Evan ordezkatzeko eta Cartagena de Indias hiriko fortifikazioei buruzko plana zuzentzeko. Web orria honetan kontsulta daiteke: <http://www.lne.es/cuencas/2011/02/15/lorenzo-solis-fortificador/1033659.html>
- 4 - Pasaiaiko Udal Artxiboa (PUA): 1670-1
- 5 - Mora Afán, Juan Carlos: *Arizabalotarrak*: aldaketa garaiak Pasaian: Pasaia, Udala, 2008.
- 6 - Pedro Manuel Ugartemendia (1770-1835), arkitekto gipuzkoarra, 1803an Probintziako Bide Ikuskari izendatu zuten, bai eta Madril-eko San Fernando Akademiako Arkitekto Emeritua, Donostiako udal arkitektoa,... Gipuzkoako eta Nafarroako eraikin zibilen eta elizen lan askotan parte hartu zuen. Proiektu original eta moderno bat aurkeztu zuen Donostian, 1813an, baina, azkenean, ez zuten onartu.
- 7 - Antonio Tahona Ugarte, armadako Gordailu Topografikoko Artxi-boaren arduraduna; 1819an, Itsas Armadako Ingeniarien teniente izendatu zuten. Ingeniari militar honen jarduera profesionala oparoa izan zen.
- 8 - Zapirain Karrika, David: *Pasaia 1805-2005: 200 urteko batasuna. Pasaia, Udala*, 2005. 2. argit. (84.-85. or.).
- 9 - M.A. Barcenilla: *La pequeña Manchester: origen y consolidación de un núcleo industrial guipuzcoano. Erretería*, 1845-1905. Donostia, Aldundia, 1999.
- 10 - PUA: 1682-3.
- 11 - 1843/07/04. GPAH (Oñati). PT 3/2624, 112r.-115v. Eta 1847ko martxoaren 28an egindako bileran, 1805etik bere jurisdikzioaren barruan zeudela argudiatuta Lezo lurak ixteko egiten ari zen lanak gelditzen saiatu zen udala.
- 12 - PUA, 726-13: Xehetasuna. Maparen izenburua hau da: *Batería del Astillero. Plano de las zonas polémicas asignadas por Real Decreto de 26 de febrero de 1913*, eta ingeniari militar batek sinatu zuen 1915ean. 1913ko Errege dekretuaren izenburua hau da: *Demarcación de zonas polémicas asignadas a las Plazas y puntos fortificados y de aislamiento de edificios peligrosos y polígonos de tiro, así como las Instrucciones que han de observarse para el régimen de dichas zonas*. Hau da, segurtasuna eta erabileraz ez militarrek erabileraz militarrekin uztartu nahi ziren. Dekretu horren menpe zeuden San Markosekin – Txoritokitarekin lotutako gunekak batetik; eta Kutarrori – Barrakoiei lotutakoak bestetik. Mapa hau San Markosekin lotutako gunek bati dagokio. Bertan, Astillero baserriaren goiakdean bateria bat jarri zuten.
- 13 - Barcenilla: *op. cit.*
- 14 - Ezinbestekoa da Lasala pertsonaia ulertzeko: Carlos Rilova: *Vida del Duque de Mandas*, 1832-1917. Donostia: Kutxa Fundazioa, 2008.
- 15 - <http://pelloaramburu.webcindario.com>
- 16 - Gipuzkoako Agiritegi Orokorrean, Mandasko Dukea Atal osoa kontsultatu behar da. (GAO) (Tolosa).
- 17 - C. Yarza Zala: *Amar-Etxetas*. [Pasaia]: Udala, 1999.
- 18 - 1907ko martxoaren 22an, hau da esan zuten ordentza horiei buruz: *proyectado oficiosamente por el Ayuntamiento de Pasajes el establecimiento de ordenanzas de edificación y reglamento de policía en el barrio de Molinao, así como el levantamiento de un plano general*. PUA: 989-2.
- 19 - 1878/09/01. PT 3/3053, 2499r.-2508v. Sozietatearen izenean jardun zuten Ignacio Mercader Etxanizek eta Ramón Londaiz Arrietak. Gero, Londaiz hil zenean, bere alargunak hartu zuen negozioa. Antxotarrok Mintegiaren arabera, Borderas 1870ean jarri zuten lehen aldiz Molinaon. Pasaia Antxoren kronologia, 1761-1936. Pasaia: Antxoko Historia Mintegia, 2007.
- 20 - 1885/04/29. GPAH (Oñati): 3/3767, 733r.-746r. Eta abuztuaren 8ko eta 23ko eta irailaren 6ko aktak.
- 21 - GAO (Tolosa): JD IT 1523/62

Era berean, 1891eko azaroan, erregai-biltegi bat jartzeko eskaera aurkeztu zuten. Biltegiak 110 metro hartuko litzuke, eta inportatutako materiala, jada findua, "kaxatan eta upeletan" gordeko litzateke. Udala eta bizilagunak (gai horri buruz iritzia emateko aukera izan zuten) oso kezkatuta zeuden eta, hasiera batean, ez zuten eskaera onartu. Segur aski, eskatzaileek uste zuten udalak baiezkoa emango ziela; izan ere, "udalak lur horien gainean eskumena izan aurretik" erregai-biltegi bat zegoen leku berean. Gerora, baldintza batzuen menpe bazen ere, eskaera onartu arren, akte ez zuten ezer aipatu 1892. urtera arte. Urte horretan, Desmarais Hermanos enpresak deposituen ezaugarriak buruzko 3. baldintza aldatzeko eskatu zuten.
- 22 - GPAH(Oñati): 3/3765, 747r.-760r. eta 3/3765, 870r.-885r.

- 23 - GAO (Tolosa): DM 8, 9
- 24 - *Pasai Antxoren kronologia... op.cit.*
- 25 - PUA: 300,23. Kordeldegiko ordezkariak ziren Joaquin Garaialde Egiamendiak eta Manuel Olazirieggi Igartzabalek lanak egiteko behar zuten mailegua jaso zuten, udalaren izenean, Juan Jose Eloseggi Aiestaran eskutik. Enrique Mariskal izan zen kontratista.
- 26 - 1899-VIII-6ko akta. Sagardoa garraiatzeko baimena, zerbait hondatuz gero, interesatuak konpontzeko baldintzapean.
- 27 - 1899an, *Mercader-Londaiz* enpresak 335.40 pezetako faktura aurkeztu zuen, herriko argietarako 13 petrolio-kaxari zegokiona.
- 28 - San Pedron zailtasunak izugarriak ziren 1896. eta 1899. urteen artean. Lehen urte horretan, esaterako, hamar minututik gora behar ziren ontziak –suilak– betetzeko.
- 29 - *Pasai Antxoren kronologia... op.cit.*
- 30 - A. Ricon: “Industria-ondarerik ote langileriarik gabe? = ¿Patrimonio industrial sin clase obrera?”, *Ondare industrial Pasaian = Patrimonio industrial en Pasaia*. Pasaia: Udala, 2006. (Sorginarri; 2)
- 31 - X. Portugal: *Pasaia 1931-1939: zanpatuen oroimina = la memoria de los vencidos*. Pasaia: Udala, 2007. (Sorginarri; 3)
- 32 - Portugal: *op. cit.*
- 33 - *El Sr. Artola propone la conveniencia de que la actual única calle denominada de San Pedro, se titule en lo sucesivo de la forma siguiente: Desde la actual casa número 25, propiedad hoy día de Don José Corta, hasta el final del punto llamado “Torreatze”, “Calle de San Pedro”. Desde dicha casa número 25 hasta la señalada actualmente con el número 15, “Plaza de Alfonso XIII”. El punto o lugar conocido por el nombre de “Sableo”, “Calle de la viuda de Pasamán”. Y con el de “Avenida del frontón” todo el espacio o lugar que dá frente al frontón de dicho distrito.*
- 34 - Enpresaburu honen jarduna Pasaiaiko udal aktetan egiazta daiteke 1910. urteaz geroztik. Urte horretan jada aipatzen ziren San Pedron zituen tailerrak. Herrerak eta Zalduak, ordea, 1908ko aipamenak topatu dituzte. Ontzigitzari lotuta egon arren, galdategi baten planoak erregistratu zituen 1971ean. Izan ere, bere emazte Rosario Luzuriaga negozio berari lotutako beste familia garrantzitsu bateko kidea zen.
- 35 - 1818/11/08. AHPG (Oñati): H-347, 51r.-51v. Jose de Silva Palafox (Santiagoko Ordenaren Zalduna) jaunak, bere seme Cayetano de Silva Fernandez de Cordobaren (San Vicenteko Markesa) izenean, Pedro Inazio Olañetari, Joaquin Maria Ferreren enkarguz, emandako eskritura.
- 36 - 1821/09/06. AHPG (Oñati): H-347, 59v.-60r.
- 37 - 1850/09/30. AHPG (Oñati): PT 3/3236, 216r.-218r.
- 38 - PUA: 129
- 39 - Iago Irixoa: *Pasaia: hastapenak (XIV. – XVI. mendeak) = orígenes (siglos XIV-XVI)*. Pasaia: Udala, 2009.
- 40 - 1848/09/13. 21/07/1862. AHPG (Oñati): H- 339, 487r.-488v. 3/3234, 229r.- 230r. Eta baita, esaterako, Mirasol baserria ere.
- 41 - PUA: 303-9, 582-5.
- 42 - C. Yarza Zala: *Pasajes Ancho*. Donostia: Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, 1874. 124. or. Yartzak dio teilape bat baino ez zela eta hiru gune zituela: bat arrandegirako, bigarrrena berdurarako eta hirugarrena independentea zen eta marrazketa eskolak emateko erbili zen.
- 43 - Ongintza-titulua jaso zuen 1911ko otsailaren 18an, aldizka kontuak emateko salbuespenarekin. Gerora, 1960ko otsailaren 23an, Ongintza Probintzian inskribatu zen.
- 44 - PUA: 672.9; 670-6; 975-1; 307-16; 311-52. PUA: 665-1; 728-7
- 45 - 1878-IV-14.
- 46 - 1911-11-26.
- 47 - 1905-11-20
- 48 - 1921/12/25.
- 49 - Eztabaidak 1891ean jarraitu zuen, bitartekotza probintzialarekin.
- 50 - Epaitegiek erabaki hori indargabetu zuten 1938ko uztailaren 14an.
- 51 - PUA: 592-7.
- 52 - 1927-IX-22; 1927-X-8; 1927-X-15.
- 53 - Udal aktak, hirigintzako espedienteak eta planoak, prozesuan parte hartu zuten zinegotzien hausnarketak, ahozko testigantzak, udal memoriak, herriko argitalpenak (hala nola *Trincherpe*, *Los tres Pasajes* aldizkariak...) edo azterlan espezializatuak (Gaur SCI enpresak 1971ean egindakoa, edo 1983ko Arau Subsidiarioen aurrekoa) eta herriko memoria kolektiboa berreskuratzeko Antxoko Historia Mintegiak sustatutako ekimena, esaterako.

Bibliografía

- www.antxo.org
- <http://arquitecturadonostiarra.blogspot.com/2011/10/edificio-residencial-en-la-avenida-de.html>
- <http://www.noticiasdegipuzkoa.com/2010/04/11/vecinos/donostia/el-creador-de-un-simbolo-centenario>

- Barcenilla, M.A: *La pequeña Manchester: origen y consolidación de un núcleo industrial guipuzcoano. Errenteria, 1845-1905*. Donostia, Aldundia, 1999.
- Castells, Luis: *Modernización y dinámica política en la sociedad guipuzcoana de la Restauración, 1876-1915*. Madrid: Siglo XXI, 1987.
- Catalán, Jordi: "Capitales modestos y dinamismo industrial. Orígenes del sistema de fábrica en los valles guipuzcoanos, 1841-1918". Nadal, J. y Carreras, A. (eds.): *Pautas regionales de la industrialización española (siglos XIX y XX)*. Barcelona: Ariel, 1990.
- Elortegi Bilbao, Antxon: *Pasaiaiko euskal kronika zaharrak*. Pasaia: Udala, 2003
- Garate, Montserrat: *El proceso de desarrollo económico en Guipúzcoa*. Donostia: Cámara de Comercio, Industria y Navegación de Guipúzcoa, 1976.
- Garmendia, Gotzon; San Román, Alaitz: *Lezoko demografia eta industria XX. mendean*. Lezo: Udala, 2003. (Lezoko historia urratsez urrats; 1).
- Goienetxe Patrón, Erramun: "El informe Villalobos sobre el puerto de Pasaia (1617) o Cuatrocientos años de propuestas para una ordenación lógica y racional del puerto y su gobierno". *Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián*, 43 (2010). 419-470.
- *Guía de arquitectura de Gipuzkoa*. <http://b5m.gipuzkoa.net/arkgida/index1.html>
- Herreras, Beatriz: *Altza: historia y patrimonio*. Altza: AHM, 2001 (Artiga; 4)
- Herreras, Beatriz; Zaldúa, Josune: "Industria y patrimonio en la Bahía de Pasaia = Pasaia: industria eta ondarea". *Ondare industrial Pasaian = Patrimonio industrial en Pasaia*. Pasaia: Udala, 2007. (Sorginarri; 2).
- Herreras, Beatriz; Zaldúa, Josune: Lezo: Udala, 2009. *Lezo: ondarea eta hiri garapena*. (Lezoko historia urratsez urrats; 5).
- Larrinaga, Carlos: "Pasaia 1861-1926: nacimiento y consolidación de un puerto industrial = industria portuaren sortzea eta sendotzea". *Ondare industrial Pasaian = Patrimonio industrial en Pasaia*. Pasaia: Udala, 2007. (Sorginarri; 2).
- *Pasai Antxoren kronología, 1761-1936*. Pasaia: Antxoko Historia Mintegia, 2007.
- Pereira, Dionisio: "O Trintxerpe republicano: mariñeiros galegos na meca do soviets roxo en Euskadi". *Loita de clases e represión franquista no mar: 1864-1939*. Vigo: Xerais, 2010.
- Portugal Arteaga, Xabier: *Pasaia 1931-1939: zanpatuen oroimina = la memoria de los vencidos*. Pasaia: Udala, 2007. (Sorginarri; 3).
- Ricón, Alvaro: "Industria-ondarerik ote langileriarik gabe? = ¿Patrimonio industrial sin clase obrera?". *Ondare industrial Pasaian = Patrimonio industrial en Pasaia*. Pasaia: Udala, 2007. (Sorginarri; 2).
- Rilova, Carlos: *Vida del Duque de Mandas, 1832-1917*. Donostia: Kutxa Fundazioa, 2008.
- Saez Garcia, J.A.: *Geografía e Historia de San Sebastián* (2010): <http://www.ingeba.org/liburua/donostia/61sspatr/6sspatr.htm>
- Yarza Zala, Carlos: *Pasajes Ancho*. Donostia: Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, 1974
- Yarza Zala, Carlos: *Amar-Etxetas*. [Pasaia]: Udala, 1999.
- Zapirain Karrika, David: *Pasaia 1805-2005: 200 años de unidad*. Pasaia, Udala, 2005. 2ª ed. (pg. 84-85).